# Goienkaria

2009ko urriaren 9a > Egubakoitza > IX. urtea > 392. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Aralar beti saiatuko da abertzale eta ezkerreko jendea batzen"

**Rebeka Ubera**
Aralarko Antolakuntza idazkaria > 08-09

**G2a** Agirreazaldegi, bertsolari txapelketan > 37

**ARRASATE**
**Abendurako bukatuko dituzte Iturbide egoitzako lanak** > 14

**BERGARA**
**Mendiko ganadu feria egingo dute astelehenean Elosun** > 19

**ESKORIATZA**
**Udalak saldu egin dio industrialdea Debagoieneko industrialdeari** > 29

**EKONOMIA** > BERRERABILTZEA ETA ENPLEGUA

# Hilaren 31n inauguratuko du Emausek Debagoieneko denda

**PRODUKTUAK** Sin Desperdicio delako markako artikuluak salduko dituzte, publizitate-banderetatik egindakoak

**ARROPA** Bigarren eskuko arropa ere izango da salgai dendan, ondo dagoena eta oso merke

**ARRASATEN** Nafarroa etorbidean izango da lokala; han duten tailerrean dihardute lanean bost arrasatearrek > 02-03

**JENDARTEA** > OSASUNA

## A gripetik babesteko aholkuak

Debagoieneko ospitaleko medikuek A gripearen aurrean zelan jokatu azaldu dute asteon > 05



**ANTZUOLARRAK** Duela 25 urte Aiherrarekiko senidetzea bultzatu zuten lagunak eta Antzuolako Udaleko ordezkariak, salgai dauden kamisetak erakusten. LEIRE KORTABARRIA

## Dena gertu dago Antzuolan Aiherrako lagunak hartzeko

Festa eguna izango dute etzi Antzuolan; Aiherrako (Nafarroa Beherea) lagunak etorriko dira eta bi herrien arteko adiskidetasunaren 25. urteurrena ospatzen hasiko dira. Aurtengo ospakizunak urte erdian barrena egingo dituzte, Antzuolan ekintza batzuk eta Aiherran beste batzuk. Helburua da gazteek har dezatela senidetze horren lekukoa.

Mende laurdena ospatzeko, kamisetak salgai jarri dituzte eta seinale bat bistaratu dute herriaren sarreran. > 13


**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Elkarrizketa** > 08-09
**Iritzia** > 10
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Eskelak** > 44
**Berri-zakua** > 44-45
**Non-zer** > 46-47


**KIROLA** > MOTO-KROSA

## Ipar zonako lasterketa Bergaran

Ipar zonako moto-kros lasterketa egingo dute domekan Angiozarrera bidean dagoen zirkuituan. Bergara Hiria txapelketan eguraldiak ez zuen lagundu, baina domekan baldintza ezin hobeak izango dituzte proba egiteko. > 34




Ibarreko pilotuak, aste barruan, moto-krosa iragartzen, zirkuituan. XABIER URTZELAI

## 'Asteleheneko Goienkaria', martitzenean

Oraingo astelehena, hilak 12, jai dela-eta, martitzenean banatuko da *Asteleheneko Goienkaria*.



**EKONOMIA** > MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA GARAPEN IRAUNKORRA

# Emausek urriaren 31n irekiko du denda

**BI PRODUKTU MOTA** Bigarren eskuko arropa salduko dute eta, bestetik, publizitate-banderekin egindako produktuak; guztia, oso merke saldu ere

**BERRERABILTZEA** Jendeak baztertzen dituen arropa, altzariak, tresnak... batzea eta saltzea da helburua; bailaran, oraingoz, arroparekin hasiko dira

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Emaus fundazioak lortu du azkenean Debagoienean ezartzea, "hamar urtetik gora saiatzen ibili ondoren", Fundazioko zuzendari Javier Pradiniren esanetan. Aste bat daramate gizarteratze enpresa gisa lanean, Nafarroa Etorbidean Mankomunitatearen Enpresa Ekintzetarako Zentroko lokaletan (Mankomunitatearen egoitzaren atzean). Zortzi hiletan prestakuntza jaso ondoren, gizarte-bazterketa arriskuan zeuden hiru arrasatear kontratatu ditu Emausek, eta han egokitu duten tailerrean josteko makinarekin lan egiten dute, Emausen Sin Desperdicio markako produktuak egiten: denetariko poltsak, maletak, diru-zorroak, karpetak, giltza-zorroak, erosketarako karroak ere... Horien guztien berezitasuna da berrerabilitako materialarekin eginda daudela: hain zuzen, kaleetan zintzilikatzen diren publizitate-banderekin. Ondoko argazkian ikusten da adibide bat: bandera bera eta hortik atera diren produktuak.

Bada, orain, produktu horiek salgai ipiniko ditu Emausek, eta, horiekin batera, bigarren eskuko arropa. Tailerra duten egoitza berean, 120 m2-ko lokala egokitzen dabiltza, eta urriaren 31n inaugurazioa egingo dute. Azoka txikia egingo dute egun horretan, eta bestelako ekintza batzuk ere: "Goizean, umeendako ipuinkontalaria izango dugu, gure jarduerarekin lotutako ipuinak kontatzen; arratsaldean, klown batzuk ibiliko dira jendearekin hartu-emanean; jolas eta joko kooperatiboak ere egongo dira", esaten du Emauseko Ingurumen arduradun Begoña Cabaleirok. Bestelako sorpresa atseginak ere egongo dira. Inaugurazioarekin lotuta ere, urriaren 26ko astean, ikasleendako kanpainatxo bat ere egingo dute, berrerabiltzearen kultura hedatzeko.

**"ARRASATEN EGINDAKOA DA"**

Debagoiendarrek Sin Desperdicio markako produktuak eta "arropa, bigarren eskukoa, behar bezala sailkatua, ondo dagoena eta prezio baxuan", Javier Pradiniren esanetan, topatuko dute Emausen dendan. Prezioak, denak izango dira baxuak, bi produktu motenak. Sin Desperdicio lerroko kalerako poltsa batek, adibidez, 20 euro inguruko prezioa izango du, modeloaren arabera; giltza-zorroak 3 edo 5 eurotik aurrera izango dira. Erosketa-gurditxoak, maletak... dira garestienak, baina horiek ere, merke-merke: 50 eurotik 65era bitartean.

Sin Desperdicio markak denetariko alde onak ditu, Emaus Fundazioaren filosofia islatzen dutenak: batetik, gizarte-bazterketa arriskuan edo ohiko bideetatik lana topatzeko zailtasunak dituzten lagunei lana ematea; eta, bestetik, birziklatzearen eta gauzak berriz erabiltzearen kultura sustatzea. Arrasateko tailerreko arduradun Jone Barquerok lehenengo alderdi haren gainean azpimarratzen du beste balio bat: "Produktua hemen egindakoa da, hemengo langileekin. Arrasateko bost langileak Arrasatekoak dira, eta lanpostu gehiago sortzen badira, Arrasateko jendearekin beteko dira". Orain arte, oso erantzun ona jaso dute produktu horiek: hala, Ibai Arte Arrasateko merkatarien elkarteak erosketarako 20 karrotxo zozketatu zituen, eta badirudi oso gustukoak izan direla. Debagoienetik kanpo ere arrakasta handia dute produktu horiek, eta enpresetarako eta erakundeetarako eskaerak ere jasotzen dituzte, langileendako materiala edo *merchandising* produktuak egiteko. Norbanakoendako edo eskari handiak egin nahi dituzten bezeroendako, produktuak erakusten duen katalogo bana dago honako webgunean: *www.sindesperdicio.es*. Artikulu horiek duten beste berezitasun bat da ez daudela bi berdin, bakoitza horrelako bakarra da, modu artisauan egindako produktu guztiak bezala. Jone Barquerok prestatzen du patroia, piezak mozten ditu, eta tailerreko langileek fabrikatu egiten dute. Horretarako, bandera bakoitzak ematen dituen aukera estetikoak aprobetxatzen dira, irudimena eta originaltasuna jokoan jarrita.

**AUKERA DUINA**

Emausen jardueraren hirugarren abantaila bat dendan ipiniko dituzten prezio baxuak dira: "Bizi dugun egoera ekonomiko eskasean, diru-sarrera txikiak dituzten familiendako interesgarria izan daiteke; baina oro har, Debagoieneko jendarteari erakutsi gura diogu bigarren eskuko arropa oso aukera ona izan daitekeela, eta hori gauza normaltzat ikus dezaten, beste herrialde batzuetan –Erresuma Batua, Alemania– gertatzen den moduan", gaineratzen du Emaus Fundazioko zuzendariak. Arropa Debagoienean jasotakoa izango da, edukiontzi zurian botatzen duguna, alegia. Hori orain Donostian sailkatzen du Emausek, eta "dendaren bidez, bere jatorria lekura bueltatuko dugu", dio Pradinik. Azaltzen duenez, "Sin Desperdicio markako produktuak gehiago edo gutxiago egongo dira une bakoitzean, eskaeraren arabera, baina denda beti egongo da zabalik".

**GIPUZKOAN, LAU SALTOKI**

Ailegatu berriak da Debagoienera, baina Gipuzkoan dagoeneko lau saltoki ditu Emaus Fundazioak eta, horien bidez, berrerabiltzearen filosofia garatzen joan da. Denda nagusia Donostian dute, Belartzan, Ekocenter deitzen den zentro eredu bat: "Arropa gure jardueraren %30 da, baina Ekocenterrean, jendeak behar ez dituen denetariko gauzak batu eta saltzen dira, sailkatuta: altzariak, etxeko gauzak, bazarreko gauzak, jostailuak, ontziteria, liburuak eta, orain, etxetresna elektrikoak saltzen hasi gara. Horretarako, jendeak modu sailkatuan bota edo utzi behar ditu gauzak, eta ez







Ezkerreko banderarekin, goian ikusten diren artikuluak egin dira. EMAUS

SIN DESPERDICIO MARKA

## Bi asteko bizitza zuen bandera aprobetxatu

Hauteskundeetakoak, herriko jaietakoak, jaialditakoak, komertzialak... denetariko publizitate-banderak ikusten ditugu sarri kaleetan, batez ere, hirietakoetan. "Pena da hilabetean, bi astean edo gutxiagoan erabili den gauza bat gero zaborretara botatzea", dio Arrasateko Emaus tailerreko arduradun Jone Barquerok. Horri jarraituz, Emausek banderok batzen ditu –Euskal Herritik kanpokoak ere bai– eta garbitu; kasu batzuetan, plantxatu, eta gertu uzten ditu langileek Sin Desperdicio markako produktuak egin ditzaten. Argazkiak ilustratzen duen kasuan, hain zuzen birziklatzera animatzen duen bandera bat da aprobetxatu dutena.


Julian, Rosa eta Agripina langileak, Emausen tailerrean. LEIRE KORTABARRIA


Javier Pradini eta Jone Barquero, Sin Desperdicio produktuekin. LEIRE KORTABARRIA

ESANAK

**"Hemen egindako produktuak dira, hemengo langileekin"**

**Jone Barquero** > Arduraduna

**"Erakutsi nahi dugu 2. eskuko merkatua oso aukera ona dela"**

**Javier Pradini** > Zuzendaria

kaleko bilketa lekuetan. Badaukagu etxerik etxeko bilketa zerbitzu bat, batik bat Donostialdean, baina Gipuzkoa osorako ere bai: 902 45 58 55 da horretarako gure telefonoa". Jasotzen duten denak ez du balio berriz erabiltzeko, baina emaitza onak dituzte: batzen dituzten altzarien %45 eta %55 bitartean berriz erabiltzen dira, salgai jartzen dira, alegia. Kontuan hartu behar da, kasu askotan, okerrik ez duten artikuluak direla: "Orain, Lurreko Telebista Digitalarekin, jende asko dabil telebista botatzen, konturatzeke deskodetzaile bat konektatuta ikus daitekeela telebista digitala; eta telebistak primeran dabiltza". Beste adibide bat, liburuena: asko eta asko paperaren edukiontzira botatzen dira; Pradiniren esanetan, "horiekin papera egingo da, horrek dakarren kultura galerarekin".

Ekocenter horrek hileko 5.000 bat bezero izaten ditu. "Esaten ziguten Debagoienean sartzea oso zail izango genuela, baina Donostian ere hala ei zen, eta orain bagaude, harrera bikainarekin, gainera", dio Javier Pradinik. Irunen beste Ekocenter bat irekiko dute azaroan, eta beste denda bana dute Donostiako Amara auzoan eta Tolosan.

**HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEA**

Denda horiek guztiak –eta, orain, Debagoienekoa– jendeak botatzen dituen objektuekin hornitzen dituzte. Arrasaten, oraingoz, arroparekin hasiko dira; hau da, edukiontzi zurian Mankomunitateak jasotzen duenarekin. Baina ez horrekin bakarrik: botatzen dena aprobetxatzeko helburu hori jarraituz, ixten dituzten dendetatik ere materiala lortzen dute –Arrasateko tailerrean dituzte, adibidez, itxi zen mertzeria batek emandako ehun-biribilki batzuk– eta, orain, ehungintza sektoreko enpresek sortzen dituzten oihalkiak erabili ahal izateko kanpaina bati ekingo diote.

Horrek harrera ona badu, ateak irekiko lizkieke baztertutako beste objektu batzuei, batez ere bolumen handiko gauzei. Birziklatzeko eta gauzak oraindik balio duten artean erabiltzen jarraitzeko –norberak edo beste norbaitek– pentsaeraren mugak zabalduz eta urratuz joatea da helburua. Javier Pradinik hauxe dio: "Zerbait bota beharrean, Emausi dei diezaiotela; eta, bestalde, hondakin gutxiago sortzea; eta, bide horretatik, ikustea noraino ailegatu gaitezkeen".






ELAkoek Arrasateko Udala plazan egin zuten astelehenean elkarretaratzea. GOIENKARIA




LAB martitzenean bildu zen, Arrasateko Markulete industrialdean. TXOMIN MADINA

Arrasateko Olandixoko langilearen heriotza salatzeko ELAk eta LABek elkarretaratzeak egin dituzte asteon

**LANA** > EZBEHARRA

# Sindikatuek erakundeen eta enpresen "utzikeria" salatu dute




**T. MADINA/M.BITERI** > ARRASATE

Asteon Debagoieneko bi sindikatuk elkarretaratzeak egin dituzte Arrasateko Olandixoko langilearen heriotza salatzeko. Astelehen eguerdian, ELAko hainbat ordezkari bildu ziren Udala plazan. Martitzenean, berriz, LABekoak elkartu ziren Arrasateko Markulete industrialdean. Sindikatuko ordezkariekin batera Arrasateko zenbait zinegotzi ere izan ziren.

Urriaren 1ean, 34 urteko langilea hil zen gidatzen ari zen makina irauli ostean, Arrasateko mendebaldeko saihesbideko lanetan, Olandixoko tunela egiten dabiltzan tokian, hain zuzen ere.

**ELA SINDIKATUAREN SALAKETA**

ELAk salatu zuen krisia delaeta, enpresek ez dituztela beharrezkoak diren neurriak ezartzen. Sindikatu horren arabera, "argi dago enpresek eta administrazioak segurtasun eta lan osasun arloak ez dituztela lehentasun bezala". Egoera "larria" gainditzeko, premiazko neurriak hartzea exijitu zuen: "Kontua ez da adostasunak lortzea edo argazkiak ateratzea, baizik eta legea betearaztea enpresei; jarraipen zorrotza egitea lantokietan eta behar denean gogoz aurre egitea patronalaren utzikeriari".

**LAB-EK, ELKARTASUNA**

LABeko ordezkariek elkartasuna helarazi nahi izan zieten hildako langilearen senideei eta lankideei. ELAkoekin bat egin zuten gastuak gutxitze aldera lanean ez direla betetzen gutxieneko segurtasun neurriak aipatzean, eta erakunde publikoendako ere izan zituzten kritikak. Arazoarekin amaitzeko "borondate politikorik" ez dagoela salatu zuten.

**EKONOMIA** > ENPRESA

# Linacisororen "kalte-ordain negargarriak" salatu dituzte

Epaitegiak uztailean ireki zuen bidea kontratuen amaiera kolektiboak egin zitzan enpresak

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Bergarako Industrias Linacisoro enpresaren jarrera "publikoki salatzeko" eskuorriak banatu dituzte ELA eta UGT sindikatuek. "Zuzendaritzak, enpresaren itxiera erabaki ostean, gelditzen diren azken langileak kalte-ordain negargarriekin kaleratu nahi ditu", esaten dute.

**"PORROTA LORTU DUTE"**

Azaroa ezkero, enplegu erregulazio espediente (ERE) egoeran zegoen lantegia; martxoan, lege konkurtsalaren babesa eskatu zuen enpresak, eta, sindikatuen esanetan, asmoa zen enpresa likidatzea, nahiz eta oraindik ekonomikoki bideragarria izan.

Orain, ELAk eta UGTk zera salatzen dute: "Azken sei hilabeteetan enpresako ugazabek euren eskuetan zegoen guztia egin dute enpresaren porrot ekonomikoa probokatzeko". "Eta baita lortu ere", jarraitzen dute. "Izatez, uztailean epaitegiak Industrias Linacisoro enpresa epe motzean ordainketak egiteko diru faltan zegoela onartu zuen".

Sindikatuon iritziz, "gaitzesgarriena zera da: orain, ugazabek enpresan gelditzen diren azken langileak kalte-ordain negargarriekin kaleratu nahi dituztela: 20 eguneko kalte-ordaina lan egindako urte bakoitzeko, 12 hilabeteko mugarekin".

**ADIERAZPENIK EZ**

Enpresako zuzendaritzarekin harremanetan jarrita, esan dute ez dutela adierazpenik egingo.

Javier Zubizarreta > Arlo Medikoko arduraduna

# "Neguan erne eta prest egon beharko dugu, A gripe kasuak ugaritu egingo dira-eta"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

**A gripearen aurrean zelan jokatu azaltzeko prentsaurrekoa egin zuten martitzenean Debagoieneko ospitaleko mediku batzuek. Arlo Medikoko arduradun Javier Zubizarretak hainbat aholku eman, eta egungo egoera azaldu zuen.**

**A gripea zuten zenbat pertsona joan dira Debagoieneko ospitalera?**
Ospitalera A gripearen sintomekin etorritako guztien artean bi pertsona bakarrik ospitaleratu ditugu benetan A gripea zutelako, eta biak pertsona helduak dira.

**Zeintzuk dira A gripearen sintoma nagusiak?**
Gripe normalak eragiten dituen sintomak ditu: 38 gradutik gorako sukarra, neke handia, gorputzean mina eta eztula. Gainera, gaixoen laurden batek digestio arazoak izaten ditu, goragalea, beherakoa eta okadak, besteak beste.

**Ze kolektibok dute A gripea hartzeko arrisku handien?**
Orain arte hiru taldetan banatu dituzte gaixotasuna izateko arriskua duten pertsonak: alde batetik, adina kontuan hartu barik arnas gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak daude; beste alde batetik, haurdun dauden emakumeak; eta, azkenik, 2 urtetik beherako umeak.

**A gripea oso kutsakorra da. Nola ekidin dezakegu?**
Gripe normalaren moduan, A/H1N1 birusa hitz egiten dugunean edo eztula egiten dugunean ahotik botatzen ditugun txistu-tantekin kutsatzen da. Era berean, A gripea dutenen arropak erabiltzen baditugu eta eskua ematen badiegu ere kutsa gaitezke. Kutsadura eragozteko neurrietako batzuk dira: aldika eskuak xaboiarekin edo alkoholarekin garbitzea eta gaixorik daudenei eskua ez ematea.
Bestalde, norbera gaixorik dagoenean komenigarria da eskua inori ez ematea eta lehen sintomak agertzen direnetik astebete pasatu arte, eztula egiterakoan sudurra eta ahoa estaltzea kleenex batekin.

**Prebentzioagatik, A gripearen kontrako txertoa hartzea aholkatzen duzue?**
Europako Batasuneko Osasun Segurtasunerako batzordea txertoak jartzen hasiko da gaixotasun kronikoak dituzten sei hilabetetik aurrerako pertsonei, haurdun dauden emakumeei eta osasun-langileei. Oraingoz, ez diete txertorik ipiniko sei hilabete eta 14 urte arteko umeei eta irakasleei.


Javier Zubizarreta martitzeneko prentsaurrekoan. GOIENKARIA

**Nola antzematen duzue A gripea?**
Proba erraza egiten dugu. Sintomekin datorren pertsonari lagin bat hartzen diogu eztarritik. Dena den, proba egiten diegu ospitalean geratu beharra duten gaixoei bakarrik.

**Zer egin behar dugu larria ez den A gripea harrapatzen dugunean?**
Gripe normala izango bagenu bezala jokatu beharko genuke. Lehen sintomak ditugunen ohean sartu, eta antitermikoak eta antibiralak hartzeko likidoak edan beharko genituzke; besteak beste, zukuak eta ura. Bestalde, haurdun dauden emakumeek parazetamola hartu beharko dute.

**Noiz komeni da medikuarengana joatea?**
Gripe normalak dituen sintomez gain arnasa hartzeko arazoak dituztenean edo egunetik egunera okerrera egiten dutenean. Dena den, Osakidetzak informazioa eta aholkuak emateko eta zalantzak argitzeko telefonoa dauka iraila ezkero. Interesa eta zalantza dutenek 900-47 47 32 zenbakira dei dezakete.

**Zein da oraingo errealitatea?**
Nahiko lasai gabiltza azken asteotan. Dena den, erne eta prest egon beharko dugu negua iristen denerako. Orduan etorriko da unerik gogorrena.
Egun, Euskal Autonomia Erkidegoan 100.000 biztanleko 123 kasu gertatzen dira.

**"Debagoieneko ospitalean bi pertsona egon dira A gripearekin; biak helduak dira"**

**"A gripea dutela zehazteko lagin bat hartzen diegu eztarritik"**

**"Iraila ezkero, informaziorako eta zalantzetarako telefonoa du Osakidetzak, 900 47 47 32"**

EKONOMIA > ENPRESA

## Arcelorko 66 langile kanpora eraman dituzte, altzaritegikoak eta beste

Irailean, 55 langile eraman dituzte Arcelorrek Zumarragan duen egoitzara; beste 11 Olabarrin daude

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Arcelorko langileak kezkatuta daude enpresaren etorkizunarekin, azken hilabeteotan hartu diren erabakien argitara. Bergarako Arcelorko LABeko iturriek esaten dutenez, aurten, %30 jaitsi da lantaldea (247 langile daude orain), eta beste 66 langile herritik kanpo bidali dituzte.
Iturri horien arabera, zuzendaritzak esan zien langileei altzairu-lantegia behinbehingoz bakarrik itxiko zutela, "eta hori horrela izango dela mantentzen dute", diote LABeko iturriek, "baina dagoeneko 55 langile joan dira Zumarragako lantegira eta beste 11, Olabarrikora". Irailean joan ziren langile horiek.
LABek esaten duenez, Arcelorren hiru enpresa horiek bat egin dute, eta Arcelor Gipuzkoa osatu dute, horrela langileak alde batetik bestera lekuz aldatu ahal izateko. Bestalde, hasieran esan ez bezala, Bergarako zerbitzu orokorretako langile batzuk ere aldatu dituzte lekuz.

**"TAILER BIHURTUKO DUTE"**
Bergarako Arcelorko langileek uste dute lekualdatze horiek ekarri dutela produktua garestitu izana, eta irabazi txikiagoendako lekua uztea, hortaz.
Kezka hau azaldu dute: "Garai baten Bergarako enpresa erraldoi bat zena tailer arrunt bihurtzeko bidean dago".

EKONOMIA > ENPLEGUA

## Langabezia %0,11 jaitsi da, 33 langabe gutxiago daude

L.K. > BERGARA

Langabezia zertxobait jaitsi da Debagoienean abuztutik irailera: 3.363 langabe zeuden INEMen izena emanda, abuztuan baino 33 gutxiago. Langabezia tasa %10,85 izan da irailean; abuztuan baino %0,11 gutxiago.
Martxoan jo zuen gailurra langabezia tasak (%11,19); gero, jaitsiz joan zen, uztailean %10,75era ailegatu arte; abuztuan berriz langabe gehiago egon ziren; eta irailean, 33 langabe gutxiago egon dira abuztuan baino.
Herririk herri, hobekuntza nabarmenenak Bergarakoa (746 langabetik 719ra; %10,40ko tasatik %10,02ra) eta Elgetakoa (46 langabetik 41era; %9,35eko tasatik puntu bat gutxiagora) izan dira. Langabe gehiago egon dira Aretxabaletan (364tik 367ra), Eskoriatzan (263tik 266ra) eta Gatzagan (11 langabetik 13ra).

**GIPUZKOAN, %1,61**
Gipuzkoan, %1,61 hazi da langabezia irailean (588 lagun), eta 37.199 langabe zeuden hilabete horretan.

> JENDARTEA

### Politika publikoetan parte hartu nahi dutenei zuzendutako ikastaroa antolatu du Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak politika publikoetan herritarren parte-hartzea bultzatzeko ikastaroen bigarren ekitaldia antolatu du, EHUk eta Baketik fundazioak lagunduta. Ikastaroak Irunen, Bergaran, Zarautzen, Elgoibarren eta Beasainen izango dira urrian eta azaroan. Gai publikoetan interesa duten herritarrei dago zuzenduta, besteak beste. Argibideak: *www.baketik.org*; 943 25 10 05.

> BERDINTASUNA

### Garraio publikoa erabiltzen duten emakumeekin batzartuko dira, berdintasunaz hitz egiteko

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Gipuzkoako garraiosistemako genero berdintasunari buruz egiten ari den azterketa dela eta, Gipuzkoan bizi diren emakumeekin hainbat eztabaidatalde antolatu ditu, eta bailaran ere bai: hilaren 14an, Arrasaten, 18:00etan. Garraio publikoan ibiltzen diren 25-55 urte arteko emakumeei egiten diete dei. Izenematea: 943 00 59 59.

TURISMOA > MANKOMUNITATEA

# Astelehenean hasiko dituzte III. Jardunaldi Gastronomikoak

Debagoiena gastronomiaren bidez ezagutzeko proiektua jarri dute martxan hirugarrenez

MIRIAN BITERI > BERGARA
Dena gertu dago Debagoieneko jardunaldi gastronomikoen hirugarren ediziorako. Astelehenean, urriak 12, hasiko dira eta azaroaren 15era arte iraungo dute.

Menu bereziak, prezio berezietan eta eskualdean hazitako garaiko produktuekin. Horixe da edizio berri horrek eskainiko duena. Jatetxeek horretarako prestatutako menuetan, bildotsa, onddoak eta ardoa izango dituzte gertu.

**KALITATEZKO MENUAK**
Oraingoan eskualdeko zazpi jatetxek egin dute bat esandako ekimenarekin; Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako eta Leintz Gatzagako bana eta Oñatiko hiru. Jatetxe horiek hainbat plater dastatzeko aukera eskainiko diete bezeroei: bi lehen plater, bi bigarren plater (guztiak errazio erdikoak), postrea, kafea eta txakolin, sagardo edo ardoa. Plater horien kalitatea ez da edonolakoa izango. Aretxabaletako Baster-Alde jatetxean, esaterako, honako menua eskainiko dute: lehenik eta behin, olagarro eta langostino entsalada epela eta ravioliak zigalatxo eta perretxikoz beteak onddo kremarekin eta boilur (trufa) arraspatuarekin; bigarrenik, legatz-kokotxak pasatuta pikillo gainean eta etxeko bildotsa labean erreta; eta azkenik, jogurt *mousse*-a marrubi saltsarekin. Menu guztiek 35 eta 40 euro artean balio dute.

DATUA
**7**
JATETXE
Hona hemen parte hartuko duten jatetxeak: Aretxabaletako Baster-Alde; Arrasateko Hilarion; Bergarako Lasa; Leintz Gatzagako Soran Etxea; eta Oñatiko Etxe-Aundi, Goiko Benta eta Soraluze.

**BISITAK**
Bestalde, dastatzeekin batera, lehen bi edizioetan moduan, produktuen jatorria eta elaborazio prozesua ere ezagutu ahal izango dute bisitariek, Leintz Gatzagako Jakionen eta gatz museoan, Arantzazuko Gomistegi baserrian eta Antzuolako Lapatza baserrian. Mankomunitateak gomendatu du aurretik erreserba egitea.



Gatzagako Soran etxean gertu dituzte menu berezirako produktu gehienak. MIRIAN BITERI

etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goiena.com'

## Pentsamoldeak birziklatzea

Plastikozko ontziak modu egokian birziklatzeko kanpaina bultzatu du Debagoieneko Mankomunitateak. Izan ere, behar baino ontzi gutxiago birziklatzen dugu, eta, ondorioz, ingurumena nabarmen kaltetu.

Era berean, merkataritzagune handiek plastikozko poltsarik ez banatzeko erabakia hartu dute. Hori egin dute, hala diote, behintzat, ingurumenarekiko errespetuagatik, baina baita poltsek dakarten kostu ekonomikoagatik ere.

Industria Iraultzaren ondoren, eta batez ere azken 40 urteetan, kontsumo ereduak erabat aldatu dira eta gaur egungo gizartean gauza azkarrek eta iraupen mugatua dutenek dute lehentasuna, merkeagoak direlako. Dena den, epe luzera begiratuz gero, merkeago barik, garestiago suertatzen dira, sortzen duten kalteak aintzat hartuz gero.

**"Egungo gizartean iraupen mugatua duten gauzek dute lehentasuna"**

Gaur egungo gizarte ereduak hobetu egin ditu gauza askotan gure bizi baldintzak, hori ezin da ukatu, baina pentsaerari erreparatuz gero... Presa eta aldibatekotasun eredua gailentzen dira gaur egun eta horrek ez dut uste ezer onik dakarrenik. Plastikoa eta gainontzeko hondakinak birziklatzen hasi garen moduan ez legoke gaizki gaur egun ditugu hainbat balio eta pentsamolde ere birziklatzea.

Guztiok eskertuko genuke lasaitasun eta patxada pixka bat.

**> Bill Clinton**
**San Frantzisko hiriko Euskal Etxean egon da. Kongresurako hautagai den John Garamendirekin joan zen. Euskal herritar egingo litzatekeela esan zuen, "esne hotzagatik eta arrainagatik izango ez balitz". Inork ulertu du hori?**

**> 'Il cavalieri'**
**Silvio Berlusconi ez da ukiezina. Udako etxean putak hartzeak inolako buruhausterik eragin ez bazion, Auzitegi Konstituzionalak burukomina eragin dio. Immunitatea galdu du. Jakina, Konstituzionala "ezkerrekoa" delako.**

KIROLAK > LAGUNTZAK

# Diputazioak 2,5 milioi eman ditu kirol instalazioetarako

M.B. > BERGARA
Kiroletako eta Kanpo Harremanetarako Departamentuak hainbat udal eta erakunderekin hitzarmenak sinatu ditu egunotan, aurten egiten ari diren kirol instalazioak diruz laguntzeko. Guztiak 2008-2011 aldiko Gipuzkoako Ekipamenduen Planaren barruan daude.

Planak datozen hiru urteotan 50 proiektu diruz laguntzea aurreikusten du, eta horretarako, 10,9 milioi euro jarriko ditu. Debagoienean hiru proiektu finantzatuko ditu: batetik, Aretxabaletako kiroldegiko eraikin berria eta estali gabeko kirolgune berria dago. Guztira, 1,7 milioi euro bideratuko ditu egitasmo horretara -400.000 euro, aurten; 500.000 euro, 2010. urtean; eta gainontzeko 800.000 euroak, 2011n.

**OÑATI ETA BERGARA**
Aldi berean, Oñatin, belar naturaleko futbol zelaia belar artifizialeko bihurtzeko 400.000 euroko dirulaguntza emango du Diputazioak; eta kopuru bera bideratuko du Bergarako Ipintzako belar artifizialeko futbol zelairako.

POLITIKA > SANMIGELETAKO ATXILOKETAK

# Aretxabaletako PSE-EE "haserre" dago Udalak azken atxiloketak salatu dituelako

Aralarrek aurkeztutako adierazpena onartu egin zuten Ezker Batua-Berdeen botoen laguntzarekin

MIREIA BIKUÑA > ARETXABALETA
Aretxabaletako sozialistak "haserre" daude sanmigeletan izandako atxiloketen aurrean Udalak hartutako jarrerarekin eta erabakiarekin. Aretxabaletako Aralarrek aurkeztutako adierazpenean, Ertzaintzak egindako lau atxiloketak salatzen zituzten, jaiak "giro onean eta lasai" egiten ari zirela argudiatuta.

Aralarrek aurkeztutako adierazpena onartu egin zuten Ezker Batua-Berdeen botoekin.

**"NEURRIZ KANPOKO ATXILOKETAK"**
Aretxabaletako PSE-EE alderdiak prentsa oharra kaleratu du Udalaren erabakia salatzeko. Diote alderdi politiko batzuek "zalantzan" jartzen dutela Ertzaintzak, Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak, epaitegiek eta epaileek egiten duten lana. "Demokrazia defendatzen duten sektore guztien kontra egiten dute", diote sozialistek.

Aretxabaletako Udalak onartutako adierazpenean esaten dute atxiloketak neurriz kanpokoak izan zirela eta umeen aurrean egin zituztela. Hori dela-eta sozialistek esan dute beste behin Ertzaintzaren lana gutxiesten dutela: "Jarrera horrekin badirudi ertzainak direla gaizkileak".

**"EZKER ABERTZALEA POZIK"**
Sozialistek oharrean gaineratu dute: "Ezker abertzaleko kideak pozik egongo dira Udalak hartutako erabakiarekin, babesa jaso dute-eta. Atxilotutako gazteei elkartasuna adierazi diete, esanez atxilotuen artean zinegotzi izandako pertsona bat zegoela".


ALDEKO AURREZKIA ALDEAN
Aurrezkiak Mahaian
Hartu aurrea eta prestatu jakirik goxoenak zeure aurrezkien interesaz. kutxak mahaian ipiniko dizu imajina dezakezun tresneriarik praktikoena eta modernoena. Aukeratu zeure interesa ohiko bulegoan, Telekutxa-ren 901 333 555 telefonora deituz, www.kutxa.net-en edo kutxaren kutxa-zainetan.
Zuk aukeratu zer eraman.
Laberako 2 azpil, 2 zartagin edo sukaldeko ontziteria ere eraman dezakezu.
Aztertu baldintzak.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

GOIENKARIA
2009ko urriaren 9a

Aralarko Antolakuntza idazkaria abertzaleen eta ezkerreko direnen arteko elkarlanaren aldekoa da, "ezker abertzale zabal eta zibila" osatzearen aldekoa. Eta kritikoa da Foru Aldundiarekin. Dio "ideologiko ahula" dela eta aurreko gobernuaren "lepotik jarraitzen" duela.

**Rebeka Ubera** > Aralarko Antolakuntza idazkaria

# "Ezinbestekoa da Nafarroan abertzaleen arteko elkarlana"



Rebeka Ubera, Donostian, Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

**ENEKO AZKARATE** > ELGETA

**Rebeka Ubera (Elgeta, 1972) Aralarko Antolakuntza idazkari izendatu berri dute, alderdiaren azken kongresuan. Gipuzkoako Batzar Nagusietan dihardu 2005a ezkero. Batzar Nagusietako Emakumeen Berdintasunerako batzordeburua da. Elgetako Udalean zinegotzi da 2003a ezkero; agintaldi honetan, Hezkuntza eta Kirola dira haren ardurak.**

**Aralarko Antolakuntza idazkari izendatu zaituzte orain dela aste bi. Zinegotzi, batzarkide eta orain beste zeregin hau. Ardura larregi?**

Bai, ardurak pilatu egin zaizkit eta, gainera, lan asko eskatzen duten zereginak dira. Herritarrei egoki erantzun nahi izanez gero, lan handia egin beharra daukat. Horregatik, ikusten badut zerbaiti ezin diodala behar den moduan heldu, utzi egin beharko dut zerbait, proiektu hauek ez dira-eta pertsonalak, talde proiektuak dira. Hortaz, taldeko beste pertsona batek hartuko luke ardura bat edo bestea.

**Zein izango da zure zeregina alderdian kargu berri honekin?**

Alderdia egituratu eta antolatzea. Azken hauteskundeen emaitzak ikusita, alderdia handitzen doa eta horrek eskatzen ditu oinarri sendoagoak, erronka berriei, jendartearen beharrei, egoki erantzuteko Aralarko kideek. Bitarteko egokiak behar ditugu Aralarren edo alderdiaren inguruan gabiltzanok eta bitarteko horiek eskaintzea, laguntasuna eta babesa ematea, da nire zeregina. Alderdia ondo egituratzea, azkar eta egoki erantzun ahal izateko, betiere ezkerreko politiketan sakonduz, are gehiago bizi dugun egoera ekonomiko larri honetan. Eta ez bakarrik ezkerreko politikekin erantzuteko, baita abertzaleon arteko batasuna bultzatzeko ere. Erronka horiei guztiei erantzuteko, alderdi sendoa behar dugu.

**Zer balorazio egiten duzu Nafarroa Bai koalizioaren gainean?**

Nafarroa Bai sortu zen Nafarroako egoera bereziari eta errealitateari modu eraginkorrean erantzuteko. Lehentasuna zen indar abertzaleak elkartzea, Nafarroako egoera bereziari abertzaletasunetik erantzuteko. Balorazio positiboa egiten dugu. Batzuetan, eztabaidak gogorrak dira, baina argi daukagu Nafarroa Bairen alde lan egingo dugula, Nafarroak abertzaletasunetik eta ezkerretik erantzun egokia behar duelako. Aralarrek dihardu, batez ere, Nafarroa Bai sustatzen eta bultzatzen. Nire kargua ere horri erantzuteko sortu da, ze Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian Aralar sendotu egin da-eta, baina Nafarroan ere bai, NaBairen bitartez. Abertzaleen arteko elkarlana nahi badugu, Aralarrek indartsua izan behar du, alderdien arteko eguneroko ika-mikei hobeto erantzuteko.

ANTOLAKUNTZA IDAZKARI

**"Alderdia egituratu eta antolatzea da nire zeregina; alderdia handitzen doa eta behar dira oinarri sendoagoak"**

NAFARROA BAI

**"Abertzaleen arteko elkarlana nahi badugu, Aralarrek indartsua izan behar du"**

**PSNk NaBairekin udaletan zuen akordioa apurtzeko hartutako erabakia zela baloratzen duzu?**

Eszenaratzea izan da. Lehendik bazetorren kontua. Ez da berria. Ez da positiboa, ze jendarteari erantzuna eman behar zaio-eta eta ez da ona alderdien artean ika-mikak izatea eta batera jardun beharrean zatituta jardutea. Behar denarekin harremanak edukitzen saiatuko gara.

**2011ko hauteskundeei begira, koalizioa berriro osatzeko borondatea dauka Aralarrek?**

Bai, elkarlanaren alde egingo dugu beti, batez ere Nafarroaren egoera zein den ikusita. Lehentasunezkoa da Nafarroan abertzaleen arteko elkarlana.

**Erakundeetan lan egiteaz gain, arlo sozialean lan egiteko borondatea agertu du Aralarrek azken kongresuan. Zer dela-eta?**

Erakunde publikoak eta alderdiak desberdindu egin behar dira. Erakundeek bakarrik, gainera, ezin diote erantzun egokirik eman, talde sozialekin ere egin behar da lan. Kalean lan egitea ezinbestekoa da, parez pare, errespetu osoz eta inolako manipulaziorik barik.

**EAk eta legez kanporatutako ezker abertzaleak bultzatu nahi duten polo subiranistaren gainean zer iritzi daukazu?**

Elkarlanerako prest gaude. Ez dakit polo subiranista edo ze izen izango duen etorkizunean ezker abertzalea osatzen dugun talde, mugimendu eta alderdiekin egituratuko den horrek. Aralarren helburua izan da, sorreratik, ezkerrekoak eta abertzaleak batzea etorkizunean. Prest gaude, elkarlanean jardunez, ezker abertzale zabal eta zibila osatzeko.

ERAKUNDEAK ETA JENDARTEA

**"Kalean lan egitea ezinbestekoa da, parez pare, errespetu osoz eta inolako manipulaziorik barik"**

ELKARLANA

**"Aralar beti saiatuko da, proiektu eta ideia guztiak errespetatuz, abertzale eta ezkerreko jendea batzen"**

**Eta Otegik polo horretatik baztertu izana EAJ eta Aralar?**

Nork bere bidea egin behar du eta bakoitza da bere jokabideen erantzule. Aralar beti saiatuko da, inor baztertu barik, proiektu eta ideia guztiak errespetatuz, abertzale eta ezkerreko jendea batzen.

**Agintaldi erdira iritsi gara; zer egin du ondo eta zer txarto Foru Aldundiak?**

Hasieran, bazirudien aurreko legealdiaren ezberdina izango zela, baina haizeak eroan ditu ideia onak. Zaharrak berri. Lehengo lepotik jarraitzen du oraingo gobernuak eta, bestalde, oso gobernu ahula da. Bereziki, ideologikoki da ahula. Komenentziazko ezkontza dirudi. Lidergo garbirik bakoa. Besteak beste, Gipuzkoa Aurreraren oskolpean ezkutatzen den gobernua dirudi. Bestalde, oinarrituta dago Batzar Nagusietatik bideratu diren hainbat proiektutan. Positiboki baloratzen dugu oposiziotik egindako proposamenak aintzat hartzea, baina gobernu batek proposamenak egin behar ditu. Gobernu honek ez dauka garbi zeintzuk diren lurraldearen proiektu estrategikoak eta beharrak. Ondo egindakoen artean, nabarmenduko nuke mugikortasun kontuei eman dien erantzuna.


GOIENKARIA

**Ze iritzi daukazu Gipuzkoa Aurrerari buruz?**
Saiatu dira saltzen Gipuzkoa Aurrera lidergo partekatu moduan, baina egin nahi izan dute lidergo partekatua berdin pentsatzen dutenekin, lagun koadrilaren artean. Gure ustez, Gipuzkoa Aurreran egon behar dute Batzar Nagusietako taldeek ordezkatuta, horiek dira-eta Gipuzkoako herritarren ordezkariak, eta ez Kutxa, Mondragon Taldea edo Merkataritza Ganbera. Lidergoa partekatu eta jendarteko sektoreekin batera jarduteari ondo deritzogu, baina denekin, eta ez bakarrik batzuekin. Hankamotz dagoen proiektua da eta, bereziki, Foru Aldundiaren eskumenekoak diren proiektuak bultzatzen dihardu.

**Zeintzuk dira Batzar Nagusietan esku artean dauzkazuen gai garrantzitsuenak eta eztabaidatsuenak?**
Fiskalitatearen inguruko eztabaida oso garrantzitsua da eta gobernu baten zutabe izan behar du. Zelako zerga politika daukazun, baldintzatuko dizu abian jar ditzakezun proiektuak, kudeaketa ereduak… Pertsona fisikoen errentaren eta elkarteen gaineko zergen gaineko foru arau bana aurkeztu dugu; bestalde, Espainian BEZaren aldaketa onartu egin da eta eztabaida hori gurera ere etorriko da. Horretaz gain, aurrekontuen eztabaidaren atarian gaude…

**Egokia iruditzen zaizu Foru Aldundiaren zerga politika?**
Inondik inora! Gehien dutenei eta gehien irabazten dutenei mesede egiteko zerga politika aplikatzen dabiltza. Apur bat makillatuta eta populismoan oinarrituta. Zergak barkatzen zaie kapitaleko errentei. BEZaren igoerarekin, bestalde, berdin ordaindu beharko dute gehien zein gutxien dutenek, eta, beti bezala, kaltetuak izango dira langileak.

**Errepide azkarrak erabiltzeagatik kobratzeko eztabaida zabaldu da batzarretan. Zein da Aralarren posizioa?**
AP-1 eta AP-8 autobideetan bineta sozial bat jartzea proposatzen dugu, Suitzan-eta dagoen moduan: urtean ordaindu 72 edo 75 euro eta horrekin erabili autobideak. Ostera, A-16 eta N-1 doan izatea gura dugu autoendako. Kamioiekin zer egin ikusi egin beharko litzateke, ze Gipuzkoa da-eta pasoko lurraldea, kamioi asko pasatzen dira urtean eta kamioi horiek ez dute errepideen mantenuan parte hartzen. Hortaz, horiek zerbait ordaindu beharko lukete, eta hemengo kamioiei deskontuak ezarri.

**Gizarte zerbitzuak: gastuak ala inbertsioak?**
Mentalitate aldaketa egon da azken urteetan, baina hemen kontua da zelan ulertzen ditugun gizarte zerbitzuak. 2008an onartu den legeak dio gizarte ongizatea dela eskubide unibertsala, ez dela karitatea. Eguneroko praktikan, ordea, ikusten dugu proiektuak abiatzerakoan eta finantzazioa erabakitzekoan, karitate moduan funtzionatzen duela. Inork ez du zalantzan jartzen errepide bat eraikitzeko zorpetzea, baina askok jartzen dute zalantzan zaharren egoitza bat egiteko zorpetzea. Esaterako, krisiari erakundeetatik erantzuteko modua da gizarte zerbitzuetan lanpostu duinak sortzea.

**Zaborren kudeaketa egokia egiteko ereduak egon badaudela diozu. Hondakinen Partzuergotik planteatzen dena ez da egokia?**
Aurka gaude, saldu digutelako zaborrak kudeatzeko eredu bakarra dagoela. Besteak ez direla bideragarriak. Baina, egia esan, eredu asko daude.

**Zein da eredu egokia?**
Ahalik eta zabor gutxien sortzen duena. Horretarako, legedia eta bitarteko guztiak jarri behar dira. Zaborren kudeaketa modu integralean ulertu behar dugu. Izan ere, askotan, azkeneko eta lehenengo faseetan jartzen ditugu begiak: errausketa planta edo atez ateko bilketa. Baina fase guztiak elkar lotuta daude eta fase bakoitzak bestea baldintzatzen du. Ahalik eta zabor gutxien sortu behar da; birziklapenean sakondu behar da; materia organikoa batu behar da konposta egiteko… Eta zaborra batzeko modu asko dago: atez atekoa, edukiontzietakoa… eta eskualde bakoitzak, herri bakoitzak, askatasun osoz erabaki behar du bere ezaugarrietara hobekien egokitzen den bilketa eredua. Bilketaren ostean egon beharko litzateke tratamendu termiko mekaniko bat: beste teknika bat birziklapenean sakontzeko, metalak kentzeko zaborretatik eta, horrela, azken faseko hondakinek kutsadura maila txikiagoa edukitzeko. Eta, azkeneko fasean, errausketaren ordez gasifikazioa proposatzen dugu, gutxiago kutsatzen duelako. Zaborren kudeaketarena arazo larria da. Erraustegia edo zabortegiak, hala saldu digute kontua, baina inork ez dauka egia osoa. Alternatibak egon badaude.

**Mugikortasunaren inguruan aurrerapausoak izan direla esan duzu. Zertan?**
Inbertsio handiak egin dira eta horrek erakusten du apustu garbia egiten duela hor Foru Aldundiak mugikortasunaren arazoa konpontzeko. Hiriburutik zenbat eta urrunago, zerbitzua are eta eskasagoa da. Eta iruditzen zaigu ikuspegi zabalagoa eduki eta hiriburutik hain hurbil ez dauden ibarrei, Debarroari esaterako, beste zerbitzu bat eman beharko litzaiekeela. Txartel bakarra bazegoen aurreko agintaldian, baina oraingoan hobetu egin da. Aralarrek hala proposatuta batzarretan, %40ko deskontua egiten zaio txartel bakarraren onuradunari, lehenengo autobus bidaiatik. Horrek asko lagundu du mugikortasuna hobetzen. Benetako apustua egiten denean herritarrek erantzun egiten dute.

**Debagoienean tranbia bultzatzeko mozio bat onartu zuten Batzar Nagusiek, talde guztien adostasunez eta sozialisten ezezko bakarrarekin. Egingo da?**
Bai Gipuzkoan eta baita Gasteizen dauzkagun gobernuek ez dute lehentasun moduan ikusten. Ez dago benetako borondaterik. Geldirik dago. Ez dakit tranbia izan behar duen edo zer izan behar duen, baina Debagoienean garraio publiko ganorazkoa behar dugu, baldin eta autoak utzi eta zirkulazio arazoak saihestu nahi baditugu.

**Haurreskola, ludoteka eta gaztelekua: iraila ezkero martxan da lokal berria. Bihar, zapatua, duzue inaugurazio ekitaldia. Proiektu garrantzitsua da Elgeta moduko herri batendako, ezta?**
Bai, oso egitasmo garrantzitsua da elgetarrondako. Gobernu taldearendako, haseratik, lehentasunezkoa. Zapatuan inauguratuko ditugu zerbitzu horiek.

**Gazteleku zerbitzuak gorabehera handiagoak izan ditu. Zapatuan egin zen lehenengo saioa eta 17 gazte joan ziren. Kopuru interesgarria, ezta?**
Bai. Elgetan gaztelekuak, herri txikia garenez, gaztetxera heldu baino lehenagoko tartea betetzen du: 10-16 urte bitarteko neska-mutikoendako aisialdi gunea da. Hala ere, ez dira bateraezinak eta elkarrekin egiten dira gauzak.

**Kirolari dagokionez, zein da Elgetak daukan premiarik nagusia?**
Elgeta oso herri dinamikoa, aktiboa, izan da beti eta, bereziki, kirolean. Herriak beti sortu izan ditu dinamikak, nahiz eta gero Udalak hainbat zerbitzu eskaini. Ikusten da, hala ere, betikoak dabiltzala saltsatan, baina errelebua falta da.
Orain, kirola egiteko modua aldatu egin da… Ez da berdin ulertzen eta praktikatzen kirola. Erakundeetatik eskaintzen diren zerbitzuetan jendeak parte hartzen du, baina antolakuntzan-eta falta da jendea. Boluntarioak, militantzia, behera doaz eta, hain zuzen, zaila da asmatzea zelan konpondu hori.

EAJ-HAMAIKABAT
**"Foru Aldundia oso ahula da; bereziki, ideologikoki da ahula, lidergo garbirik bakoa"**

GIPUZKOA AURRERA
**"Egin nahi izan dute lidergo partekatua berdin pentsatzen dutenekin, lagun koadrilaren artean"**

BIDESARIAK
**"AP-1 eta AP-8 autobideetan bineta sozial bat jarri eta A-16 eta N-1 doan izatea gura dugu autoendako"**

ZABORREN KUDEAKETA
**"Erraustegia edo zabortegiak, hala saldu digute kontua, baina inork ez dauka egia osoa; alternatibak badaude"**



zabalik

Iñaki Peña

# Ona ala euskalduna?

Gaur estreinatzen naz txoko honetan eta potente egingo dot, ur handietan murgilduz eta galdera potoloak eginez. Azken finean, zuek zer nahi dozue: lelengo platera ala bigarrena? Are gehiago, bazkaltzea ala afaltzea gura dozue? Edo demagogiaren mugaraino iritsiz, jatea ala arnasa hartzea, zer aukeratzen dozue?

Osasun sailburu barriak, orain dala hainbat urte Arrasateko *Centro Asistencial* hartan lanean ibilitakoak, eztabaida xelebre hau plazaratu dau Eusko Jaurlaritzara ailegatu eta gitxira. Berak argi deuko, mediku onak nahi ditu, zuek legez suposatzen dot. Eta aurreko kontseilariak legez be bai, noski, Arantzazura euskara ikasten ibilitakoa.

Halandabe, batzuk saiatzen dira soilik euren eta euren maiteen osasunaz kezkatzearen itxurak egiten eta azkenean esaldi famatura iristen dira: "Neuri bardin jat medikuak gazteleraz, euskaraz, errusieraz edo txineraz egitea, zer deukodan asmatzen eta hori sendatzen deustan bitartean". Batzuetan "munduko uritar" hauek zinez irrigarriak dira, ez esan. Imajinatzen dituzue kontsultaren barruan Errusiako sendagile bategaz, hasikeran irribarretsu eta keinuka komunikatzen saiatu nahian eta apurka-apurka tonua igonda eta silabak ondo markatuz, sendagile errusiarra gorra eta ergela izango balitz legez, azkenean euren onetik atarata Cervantesen hizkuntzaz egiteko exijituz eta idatzitako kexa bat ipiniz?

**"Zer nahiago: mediku ona ala euskalduna?' galderari gehienek erantzun bera emon eben: sendagile ona eta euskalduna"**

Zorionez, bezeroek argi deukie; behintzat, *Sustatu*-n uztail aldean egindako inkestan "Zer nahiago: mediku ona ala euskalduna?" galderari gehienek erantzun bera emon eben: sendagile ona eta euskalduna.

usteak uste

Larraitz Zeberio

# ETBko aurpegi berriak

Aldaketak egon dira Euskal Telebistan. Talde osoan, esango nuke. Sarri entzun izan dut aurpegi edo formatu berrien bila saiakera gutxi egin izan dituela ETBk. Arrisku oso gutxi hartu izan dituen katea dela. Bada, heldu da aurpegi berriak ikusteko garaia.

Aurkezle berri horietako batzuk ezagunak ditut, eta benetan pozten naiz eman zaien aukerarekin. Aldaketa horiek noiz eta zergatik gertatu diren, ordea...

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# Alakrana

Anjel Lertxundi
www.berria.info/blogak/lertxundi

Zernahiren izenen azterketak izen horiek jartzen dituen gizarteaz informazio ugaria eta aberatsa ematen duela pentsatzen dutenetakoa naiz. Konparatuko bagenitu gure aiton-amonen izenak gure gurasoenekin, gureenekin eta gure seme-alabenekin, gizarte baten nahiko istorio adierazkorra osatuko genuke. Gauza bera jendearen goitizenekin. (...)

*Alakrana* izeneko itsasontzi bat bahitu dute Somalian, eta bahiketak ez gaitu gehiegi harritu. Bai, ordea, izenak. Garai bateko hemengo itsasontzien izenek zerikusi handia zuten elizarekin (*Aita gurea, San Antonio, Maria Auxiliadora*), euskal mitologiarekin (*Tubal, Urtzi, Aitor*), geografiarekin (*Gorbeia, Txindoki, Kantauri*) eta baita ortziarekin ere (*Goizeko izarra, Eguzki*).

Bermeoko ontzia non zebilen ikusita, ez da harritzekoa armadoreek *Begoñako ama* baino izen erasokorragoa aukeratu izana ontziaren izentzat.

# Ikeako best-sellerra

Edu Mendibil
www.goiena.net/blogak/edu

Nire beste debilidadetako bat: lagunen edo bestelakoen etxean sartuz gero, apaletan dauden liburuei botatzen diet begia. Gauza bera autobus geltokian, hondartzan edo trenean. Gustatzen zait jakitea jendea zer ari den irakurtzen. Bai, aitortzen dut voyeur bibliografikoa naizela. Aurreko astean Barakaldoko Ikean egon nintzen eta hango altzari dotore, osagarri moderno eta *gadget* ederrei ez ezik, logela eta egongeletan zeuden liburuei erreparatu nien. Gauza bat deigarria egin zitzaidan: Stephen Fry aktoreak idatzitako *Flodhästen* liburuaren kopia mordoa zegoen Barakaldon. Gainerako Ikeako sukurtsuletan gauza bera errepikatuz gero, Stieg Larsson berari aurrea hartuko zion aktore ingelesak dagoeneko. Trilogia arrakastatsuan Ikeari egiten dion publizitatea ezer gutxirako balio izan dio Larssoni.

koplak

Eñaut Uriarte

# Utzikerixian ordaina

Tenperatura igo dala
pentsatzen jaku normala
uste dut hortan ere guztiok
kulpa haundia dugula.

Antartida desagertzen
gure mendiak erretzen
horrela erraz hasi gaitezke
lur maite hontaz agurtzen.

Uholdeak be badira
baitta lurrikarak tira
natura zaindu ez dugulako
hori gertatzen ari da.

Le(he)nago ameriketan
Asiako herrialdeetan
baina oraintxe tokatzen /
jaku
gauza horrek hemen bertan.

Sumatrakua albistea
bada hori nahiko tristea
Gazteizen ere inundau /
ziren
eta hori ez da txistea.

Jarraitu ezkero horrela
dator panorama itzela
ondorengoei kontatutzea
Aitzgorri existitu zela.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Eduardo Eguren eta Jose Ignacio Mendoza** / Ekisolar

# "Edozeinek har dezake parte eguzki energien instalazioetan"

*Aretxabaletako Aritu kooperatibak ingeniaritza diseinuan eta softwarearen garapenean dihardu azken 15 urteetan. Duela lau urte energia berriztagarrien sektorean sartu zen, Ekisolar enpresa sortuz ingurumenean esperientzia handia duten beste bi bazkiderekin.*



*Eduardo Eguren eta Jose Ignacio Mendoza, Aretxabaletako bulegoan.*

**Zergatik egin duzue sistema fotovoltaikoen aldeko apustua?**

Bi arrazoirengatik sortu genuen Ekisolar: negozioa egiteko eta zabaltzeko aukera handiak dituen sektorea delako eta ingurumena hobetzeko dugun erantzukizunarekin bat egiten dugulako.

**Zeintzuk dira zuen bezeroak: enpresak, eraikin publikoak, partikularrak...?**

Teilatu gainean jartzen diren eguzki energien instalazioetan espezializatu da hasieratik Ekisolar. Ez zitzaizkigun gustatzen lurraren gainean egiten ziren instalazioak; uste genuen jasotako eraikinak aprobetxatu egin behar zirela. Modu horretara, gainera, kontsumitzen den gunetik gertu sortuko da energia, eta ez da galerarik egongo distantziagatik. Euskal Herrian industriagune asko daude teilatu azalera handiekin.

Batez ere enpresendako egiten dugu lan, baina baita administrazioarendako ere. Duela gutxi, adibidez, Antzuolako frontoian jarri dugu eguzki energiako instalazio bat. Energia sortu eta 25 urtetan dirua irabazi gura duten partikularrei ere jartzen diegu.

**Instalazio konpartituak ere egiten dituzue; COVILA izeneko egitasmoa, esaterako. Nolako proiektuak dira horiek, zehazki? Eman adibide bat, mesedez.**

Instalazio konpartituak posible egiten du lagun talde batek eguzki energiako zentral bat jartzea, bakoitzak ekarpen ekonomiko txikia eginez. Horrela, lagun talde horrek etekinak aterako ditu 25 urtetan, sortzen duen energia Iberdrola etxeari salduz urte horietan guztietan. Kontratu hori, gainera, erosketa ziurreko kontratua da. Horixe da berritasuna, edonork inberti dezakeela aldaketa klimatikoaren aurka egiten lagunduz.

Ekisolar enpresak gune eguzkitsuetako teilatuak bilatzen ditu, baina gure bailaratik gertu daudenak; Arabako Errioxakoak, esaterako. Eraikinaren jabeari teilatua alokatzen diogu 25 urtez, eguzki energia sortzeko instalazioa egin dezan bertan. Une honetan COVILA proiektuarekin ari gara lanean. Lapuebla de Labarcako bodega baten teilatua alokatu dugu eta interesatu bakoitzak 4.800 euroko ekarpena egingo du eguzki energia sortzeko instalazioa jartzeko.

**Non jartzeko proiektuak dira? Eta nola banatu gero gastuak, dirulaguntzak, errentagarritasuna...?**

Zenbat eta eguzki gehiago jaso, orduan eta energia gehiago ekoiztuko dute instalazioek. Horregatik, hegora begira dauden teilatuetan jartzen ditugu.

Etekinak eta gastuak beste edozein enpresatan moduan banatzen dira hemen ere; etekinak hiru hilabetero banatzen dira bazkideen artean. Bestalde, errentagarritasuna oso handia da, baina, batez ere, oso segurua da: legeak bermatzen du lehen 25 urteetan. KPIak eta Euriborrak ez dute eraginik eta hasierako inbertsioa egiteko erabilitako dirua zortzi urtetan berreskuratzen da. Hortik aurrera, etekinak baino ez dira jasotzen.

**Zein punturaino merezi du?**

COVILA bezalako inbertsio bat benetako inbertsioa da, ez da finantza produktu bat. Ona da naturarendako eta inbertsioa egin dutenen poltsikoetarako. Gainera, bankuetxeek baldintza onak jartzen dituzte horrelako proiektuetarako maileguetan, eta zerga-arinketa egiten du. Iberdrolak ez du ezer ezartzen, kupoak gobernuak ezartzen ditu lege bidez eta Iberdrola derrigortuta dago hori betetzera.

**Poltsiko guztiendako dira eskuragarriak horrelako proiektuak?**

Bai. Teilaturik gabeko edozein partikular edo enpresa txikik har dezake parte horrelako proiektu baten, 4.800 euro jarrita. Instalazioaren jabe bakarra izan gura izanez gero, 80.000 euroko inbertsioa egin behar da.

Gu arduratzen gara guztiaz: alokairuaz, guztia lege barruan egoteaz eta baita instalazioaren beraren mantentze-lanaz ere.


Oiongo metal-aroztegi baten jarritako instalazioa da argazkikoa; 50kW, 228 plaka.

**Eguzkiak jotzen duen edozein tokitan jar daitezke**

Eguzkiak jotzea. Horixe bera izan behar da kontuan eguzki energia emango duen instalazio bat jartzeko tokia aukeratzerakoan. Ekisolar enpresak horrelako instalazio ugari jarri ditu dagoeneko, adibidez: Alegria-Dulantzin, Antzuolan, Mallabian, Legution, Biasterin, Arrankudiagan eta Ugaon. Erabakia hartu eta 4-5 hilabetetan instalazioa legeztatuta egon daiteke.

Eskatu informazio gehiago konpromisorik gabe
945 00 10 23
*ekisolar@ekisolar.com*




1. Gure proiektuak bereziki diseinatu eta kudeatuak daude, inbertsioaren segurtasuna zainduz.
2. Sortutako elektraindarrari dagozkion gainsariak 25 urtez bermatuak daude (Errege Dekretua 1578/08).
3. 25 urtetan zehar jasotako batazbesteko diru sarrera: inbertsioaren %10a urteko.
4. Dedukzio fiskala.




Ekisolar
Aholkularitza eta Ingeniaritza
Energia Berriztagarriak
Ingurumena

**Ekisolar**
CEIA eraikina - Albert Einstein 15
Arabako Teknologia Parkea
01510 Miñano (Araba)

**Ekisolar - Aritu S. Coop.**
PG Basabe EO2
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

*www.ekisolar.com*

# Zorionak, Txapa!

**Roberto Merino**
Bergara

25 urte eiñgo ditxu azaruan. Ze esango zeban Rajoyk (ero Raxoi?): "Si fuese niño..., y si fuese niña...".

Ez da gutxi irrati libre batek 25 urte betetzia eta Txapa Irratia hortara iritsi da. Mende laurdena txapadia emoten! Hor ibili giñanak ume moko batzu giñan hasieran eta oiñ illia zuritzen daukou (beste batzu ezta hori be, ziero kalbotuta dare). Esan leike askok gure gaztarua irratixan pasau giñuala. Bidian lan eta abentura pillia, baitxa lagun mordua. Baña bueno, ez da momentua batallitak kontatzen hasteko. Goenkalen esaten zeben moduan: Hau ospatu beharra zagok, Txapas!

Enterauta zarete, eta bestela enterauko zate, ekintza pillatxo bat eongo die ta. Ondo garbitxu belarrixak eta piztu irratixa FM 97.25-an. Zorionak eta urte askotarako!

# Erretiratuen kontzentrazioa

**Pedro Sologaiztoa, Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jabier Arana**
(LABeko Erretiratuen taldea)
Oñati

Gaur egun, jeneralean, erretiratzen garenean ematen du lanjarduera uzteagatik eskubideak ere aldatu egiten zaizkigula eta bizitzari aurre egiteko erak ere diferentea izan behar duela.

Erretiratuok gauzak egiteari uzteko joera izaten dugu, azken batean lasaitzeko, paseatzeko… joera hartzen dugu, baina ezin dezakegu onartu norma gisa gure ordez beste batzuek erabakitzea. Gure arazoak gizarte bizitzan parte hartuaz konponduko ditugu.

Egoera berri honetan, LAB sindikatuak pentsiodun eta erretiratuen arloa sortzea pentsatu zuen eta, ondorioz, Oñatin ere LABeko Erretiratuen taldea ari da pausoak ematen gure interesen alde lan egiteko. Horregatik, momentu honetan ditugun erronkak hauek dira: gure bizi-baldintzak gutxitzearen aurka borrokatu, kalitatezko zerbitzu publikoaren alde lan egin, dagozkigun eskubideez aholku eman eta eskubide hauek gauza ditzagun ekimenak koordinatu.

Eta hor sartzen da Udaleko Gizarte batzordean parte hartzeko desioa ere, bertan erabakitzen delako zer-nolako erantzuna eman behar zaien herritarren beharrei eta oso inportantea dela pentsatzen dugu Oñatiko erretiratu guztientzat Udalak emateko obligazioa daukan zerbitzu horiek ondo batzen diren edo ez jakitea.

Baina horretarako udal irekiak behar ditugu. Herritarrei entzuteko gertu dagoen alkatea behar dugu. Udaleko batzorde guztietako eztabaida, erabaki eta informazio guztia herritarrei emateko konbentzituta dagoen alkatea eta gobernua behar ditugu.

Herriko gorabeheratan parte hartu nahi duen edozein pertsona eta gizatalderi ateak ireki eta laguntza emateko gogoa daukan alkatea eta gobernua behar ditugu. Herritarren iritzi, lankidetza, sujerentzia jasotzeko irrikan dagoen alkatea eta gobernua behar ditugu. Eta, azkenik, kritika eta kontrola egiteko eskubidea eta obligazioa daukagula herritarrok jakin beharko lukeen alkatea behar dugu eta ez aitzakia merkeak jarriaz parte hartzea moztu eta ezabatzera dedikatzen den alkatea. Horrelako alkaterik ez dugu behar.

Beraz, Udaleko Lan batzordeak inongo mugarik gabe irekiak eta nahi duen guztiak parte hartu ahal izateko aukera izan dezan eskaera egiten dugu eta Udal Gobernu eta alkate anderearen erabakia salatu nahi dugu kontzentrazio bat eginez herriko plazan urriaren 16an, ostirala, eguerdiko 12:15ean.

# Gipuzkoaren indarguneak eta ahuleziak

**Iñaki Galdos**
(Gipuzkoako lehen diputatu nagusiordea)
Donostia

Gipuzkoako Foru Aldundiak legealdi honen hasieran sortu zuen Gipuzkoako Bulego Estrategikoa. Bulego Estrategikoak, irailaren 24an Arantzazun, Gipuzkoaren diagnostiko estrategikoa deritzana aurkeztu zuen oraindaino Gipuzkoa+20 prozesuan lagundu duten guztien batzarrean. Gure gizartearen indar eta ahulezia nagusiak izendatzea eta elkarlotzea zen xedea. Aldi berean, prozesuaren hurrengo fasea jarri zen martxan: *eginkizunak eta jomugak* deritzana. Diagnostikoa begirada hautakorraz egin da, Gipuzkoaren elementu erabakigarriak zein diren identifikatzen eta antolatzen saiatuz.

Hala, diagnostiko horretatik ateratzen diren mezuetako batzuk aipatuko ditugu hemen. Hasteko, Gipuzkoako gizartea kohesio handikoa da, egoera sozio-ekonomikoaren eta ongizatearen ikuspuntutik. Lurraldearen humusean betidanik izan dute indarra berdintasunarekin, elkartasunarekin eta behartsuen babesarekin lotutako balioek. Ez alferrik Gipuzkoan sortua da munduan den mugimendu kooperatibistarik indartsuena, berdintasuna eta parte-hartzea baliotan dituena. Badira pobrezia poltsak; baina, balio erlatibotan, Gipuzkoaren egoera positiboa da.

Bestalde, Gipuzkoako gizartea, Euskal Herrikoa eta Europakoa bezalaxe, gero eta zaharragoa da, eta horrek osasun arretaren eta beste zerbitzu publiko batzuen behar gero eta handiagoa dakarkio. Hamar urte barru, Gipuzkoan lau lagunetatik batek 65 urte baino gehiago izango ditu. Gizarte gogoeta zabal bat egin beharrean gaude, ezinbestean, gure gizarte gero eta zaharragoaren eskakizunei nola erantzun jakiteko, baliabideak urriak baitira, definizioz.

Beste mezu garrantzitsu bat da Lurralde Historikoaren eredu ekonomikoak indargune sendoak ageri dituela gaurko ekonomia global eta lehiakorrean lehiatzeko. Industria zutabe erabakigarria da oraindik: berari zor dizkiogu enpleguaren herena eta barne produktu gordinaren herena. Gipuzkoako ekonomiak 100.000 lanpostu sortu ditu 1983 eta 2008 artean, biztanleria bere horretan mantendu den bitartean. Lau enplegu berritatik ia hiru emakumeek bete dituzte. Industriak esportatzeko gaitasun nabarmena izan du, era berean. Jakintzaren ekonomiarako aurrerapenak ere nabariak izan dira: Gipuzkoan ia 6.000 lagunek lan egiten dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentroetan. Beste indargune nabarmen bat da Gipuzkoako industria eta enpresa ehuna nagusiki bertakoa dela, horrek Lurraldean ondo sustraitua dagoela esan nahi baitu.

Hala ere, hainbat ahulezia garrantzitsu ere azaltzen ditu diagnostikoak, aurre egin beharko zaienak. Oraindaino gure esportazio gaitasunaren oinarri izan diren sektoreak –automozioa, ekipo ondasunak, etxeko ekipamendua, etab.– sektore helduak dira denak. Gure merkatuak europarrak izan dira eta dira gaur egun, eta oso gutxi esportatzen dugu potentzia ekonomiko berrietara, Txinara, Indiara, Brasilera edo Errusiara, kasu. Gure industriaren segmentu batean produkzioaren deslokalizazio arriskua dago, gero eta zailagoa delako eskulanaren kostu txikiak dituzten herrialdeekin lehiatzea, Txinarekin eta Europako ekialdekoekin, besteak beste. Ildo berean, harremanak ez dira behar liratekeen bezain errazak eta ugariak unibertsitatearen, enpresa eremuaren eta zientzia eta teknologia sistemaren artean; ostera, beren baitan nahiko itxitako dinamikak dituzte hirurek.

Garapenaren oinarri fisikoa, ingurumenekoa, baloratzerakoan, berriz, diagnostikoak argi-ilunak ikusten ditu. Lurraldean barnako biztanleriaren banaketa orekatua da. Salbuespenak salbuespen, eskualdeek beren biztanleria proportzioa gorde dute azken 30 urteetan, baina, hala ere, kosta alderako eta hiriburuaren ingurunerako joera badago. Gipuzkoako lurraldea oso gizakiaren mendera erabilia dago, eta lurraldea artifizialago eta zatituago bihurtzen duten dinamikak indartsuak dira. 150 urtean industrializazio bizia jasan eta gero, Gipuzkoaren natura kapitala oso galdua dago. Hori zaintzea gure garapen ereduaren eginkizun gailenetako bat dugu. Arreta berezia merezi du baserri munduak, etorkizuna zalantzan jartzen dioten egoera berezi batzuk baititu.

Gipuzkoako energia sistema, Euskal Herri osokoa bezalaxe, energia fosilen mende dago zeharo. Epe ertain eta luzera begiratuta, ahuldade nabarmena da hori, Nazioarteko Energia Agentziak esaten duenez hurrengo urteak oso gorabeheratsuak izango baitira energiaren merkatuan, eta petrolioaren deribatuen prezioak asko igotzea espero baita. Errepidean eta motordun ibilgailuetan oinarritutako garraioaren eredua ahitzeko bidean dela nahiko argi dago. Mugikortasun berdea, iraunkorragoa eta berria, hazten ari da eta indartsu dator bidegorri, oinezkoentzako bide eta garraiobide publikoen forman. Klima aldaketaren gaira gatozela, gure *per capita* igorpenen datuak altuak dira; beraz, nazioarteko komunitatearekin batera, horiek mugatzeko ahalegina egin behar dugu.

Diagnostikoak aztertzen dituen eremuen artean dago Lurralde Historikoan ditugun ordezkaritza politikoko erakundeena ere. Esaten duenez, Gipuzkoako gizarteak azken hiru hamarkadetan askoz bilakaera azkarragoa izan du, bera ordezkatzen duten erakundeek baino. Erakunde egituraren izaera historikoa onartuz ere, Lurralde Historikoen Legeak orain dela 25 urte sortutako erakunde eredua eguneratzeaz politika eta gizarte mailan eztabaida zabaldu beharra ikusten du. Inertzia handia antzematen zaio erakundeen funtzionamendu ereduari, hain gizarte zibil dinamikoak eskatzen duenaren kontra, eta horrek, beste arrazoi batzuen artean, gizarteko sektore asko erakundeetatik urruntzea eta aldentzea dakar.

Bukatzeko, erakunde autonomiko eta demokratikoak berreskuratu zirenetik 30 urtera oraindik indarkeria politikozko azpikulturak irautea gure gizartearen ahulezia nagusitzat jotzen du. Indarkeriaren alde dagoen azpikultura horrek irauteak erakusten du Gipuzkoako gizartearen zati txiki baina esanguratsu batzuek ez dutela bat egiten *politika aurreko* ditu geniezaiekeen zenbait baliorekin, gizarte osoaren topalekua antolatzeko beharrezkoak direnekin.

Diagnostiko fasea amaituta, Gipuzkoa+20 prozesua eginkizun estrategikoak zehazki identifikatzeko eta etorkizuneko jomuga marrazteko etapan sartu da. Parte hartzeko eta usteak egiaztatzeko martxan jarri den sare zabalak bere esperientzia eta jakintza oparo emango ditu aurrerantzean ere. Denon artean, adostasunez identifikatuko dugu zer-nolako basotara egin nahi dugun bidea.

# Mila esker!

**Iñaki Kortazar Arana**
(Aitzorrotz Kultura Elkartea)
Eskoriatza

Irailaren 19an, Eskoriatzan antolatutako kontzertuen, giro ezin hobiaz eta ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izen geben. Eskerrak taldekideei, Simbiosis, Deabruak Teilatuetan eta Berri Txarrak, zuen prestutasun eta lanagatik; eskerrak baita be, kontzertua aurrera eramateko laguntza eman diguzuen guztiei, hiru egunetan lanean buru belarri ibili zarielako.

Aitzorrotz Kultura Elkartiarentzat erronka haundixa izan da horrelako ikuskizun bat antolatzia; horregatik, kontzertura gerturatu zineten guztioi eskerrik asko. Bereziki zuen ahalegina eskertu gurako genuke, sarreraren prezioa oso popularra izan ez arren eta gure herrira gerturatzeko garraiobide publikoa (gauez) ia existitzen ez den arren, gurekin egon zinetelako.

Bukatzeko, auzokideei mila esker, badakigulako halakoetan sortzen dan zarata eta traba ez dala atsegina izaten.

Hurrengoan ere elkarrekin egongo garelakoan, mila esker guztioi bihotz bihotzez!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**

# Herriak

**Arrasate** > 14-18 **Bergara** > 19-23 **Aretxabaleta** > 24-26 **Oñati** > 27
**Eskoriatza** > 28-29 **Antzuola** > 30 **Elgeta** > 31 **Aramaio** > 32 **Gatzaga** > 33



**> ARETXABALETA**
Arrasatera bideko biribilgunea egiteko lanak hasi dituzte asteon **> 24**



**> OÑATI**
Errosaixo Bixamon egunean, 81 taldek parte hartu zuten erakusketan **> 27**



**> ESKORIATZA**
Atxorrotzeko indusketa lanak bisitatu dituzte ikasleek **> 28**



**> ELGETA**
Ikusmin handia sortu du herriko harategi inauguratu berriak **> 31**

**ANTZUOLA** > JENDARTEA

# "Hizkuntza bera dugu eta mintzatu egiten dugu, hori da aberasgarriena"

**OSPAKIZUNA**
Antzuola-Aiherra harremanaren 25 urteen jaialdia da etzi

**HURBILTZEA**
Hego eta Iparraldeko herriok gertuago egoteko balio izan du



Aiherrarekiko harremanaren bultzatzaileak eta Antzuolako Udaleko ordezkariak, urteurreneko kamisetekin. LEIRE KORTABARRIA

**LEIRE KORTABARRIA** > ANTZUOLA

Etzi izango da Antzuolako eta Aiherrako (Nafarroa Beherea) bizilagunak, beste behin, anai-arreba moduan batzeko eguna. 25. urteurrena du Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzeak, eta urteurrenerako propio antolatutako gauzak izango dituzte: hala, bi herrien arteko harremana irudikatzen duen seinalea bistaratuko dute, eta 400 kamiseta prestatu dituzte, gaur hasita salgai daudenak. Bestalde, eguaztenean, harreman horren aldeko adierazpena onartu zuen osoko bilkurak aho batez. Ospakizuna urte erdikoa izango da, ekintzak txandakatuz herri batean eta bestean. Bukaera Aiherran izango da.

**HERRITARREK SORTUTAKOA**

Antzuola eta Aiherraren arteko senidetzearen ikurra da, nahiz eta bi udalek ere parte hartzen duten, herritarrek sortutako harremana dela eta herritarrak direla protagonistak. Hala, Antzuolako Kultura zinegotzi Patxi Olabarriak hauxe dio: "Antzuolako Udalak hasieratik lagundu du harreman hori, baina herritarren artean sortutako harreman bat da. Jendea elkar ezagutzen joan da, lagunak egiten, eta hori da aberasgarriena". Harreman horri babesa ematen dio Antzuolako Udalak hasieratik, eta Aiherrakoak bost urte direla egin zuen bat. Udalon babesa garrantzitsua da, baita kostuei aurre egiteko ere.

Juan Antonio Iturbe izan zen harreman horren sortzaileetako bat; hark dioen moduan, "ustekabez" sortutako harremana, antzuolar batzuek eta aihertar batzuek elkar ezagutu ondoren bultzatu zutena. Hauxe dio bi herrion adiskidetasunaren gainean: "Bizkarra emanda bizi izan ginen Hegoaldea eta Iparraldea, eta deskubrimendu handia izan zen mugaz bestalde batak bestearekin euskaraz egin genezakeela ikustea". Iturberen esanetan, "harremanari eustea eta bide berriak jorratzea" da orain helburua, eta, haratago joanda, "Euskal Herri bateratu baten bidean urrats bat" dela esaten du.

**GAZTEEK HARTU DUTE ERRELEBUA**

Aiherran, Beltzuntze Elkartea izan da beti harremanaren babeslea. Hango kide Jean Mixel Barbier bat dator Juan Antonio Iturberekin: "Enetako, aberastasunik handiena bi arlotan zatikatzen da: hizkuntza bera dugula eta praktikatzen dugula, batetik: Iparraldean, gero eta gutiago mintzatua da euskara, baina euskaraz ikasten dutenek ikus dezakete eta ikas dezakete, Antzuolan, euskara praktikatzen ahal dela. Eta bigarren gauza da mugak baditugula gure artean, batez ere buruan, eta hartu-eman horrek ditu ezeztatzen muga horiek".

Barbierrek nahiko luke 25. urteurrena izan dadin etorkizunerako oinarria: "Gazte ginelarik, bi bikote aihertarrek mendi baten kaskoan antzuolar bikote bat ezagutu zuten, eta horrela ziren hartu-emanak hasi. Baina orain, gazteak ez dira beren artean ezagutzen, eta gure grina hori da; gazteenek ez baldin badute hau beren gain hartzen, guk egindako lana folklore bilakatuko da". Eta bide onetik doaz ahaleginok; izan ere, Antzuolako eta Aiherrako gazteak hasi dira harremanetan, eta domekan batzeko asmoa dute, elkar ezagutzen hasteko.

**ESANAK**

**"Deskubrimendu handia izan zen batak bestearekin euskaraz hitz egitea"**
**Juan Antonio Iturbe** > Antzuolarra

**"Gure grina da gazteek beren artean ezagutzea, harremana beren gain hartzea"**
**Jean Mixel Barbier** > Aihertarra

## Etzi, domeka, jaia Antzuolan

**11:00** Aihertarrak Antiguara ailegatuko dira. Hamaiketakoa.
**12:30** Txistulariekin batera, plazara jaistea; han, ongietorria dantzariekin. Antzuolako eta Aiherrako alkateen ongietorria.
**13:00** Herriaren beheko sarreretan bi herrien arteko harremana irudikatzen duen seinalea bistaratuko da. Trikitilariekin triki-poteoa.
**14:30** Bazkaria pilotalekuan. Bazkalostean, kantu saioa.

**LABUR**




## Aiherra, Debagoienetik 140 kilometrora bizi den herritxoa

Nafarroa Beherean dago Aiherra, hain justu Lapurdirekiko mugan. 1450. urtean sortutako herria da. Bere ekonomiaren oinarria nekazaritza da, eta Lauak elkartea (industria aeronautikoa eta espaziala) Aiherran dago kokatuta. Hizkuntza aldetik, aihertar gehienek dakite euskaraz, eta ikasketak euskara hutsean egiten duten umeek Hazparneko ikastolan ikasten dute.

> Nafarroa Behereko Arberoa eskualdean dago, Bastida kantonamenduan, Lapurdirekiko mugan.

> 2.765 hektarea hartzen ditu eta 970 biztanle dauzka. Gehienek badakite euskaraz.

> Beltzuntzeko gaztelua, Abarratea mendiko gotorlekuak edo Done Petri parrokia dira ikur ezagun batzuk.



Amenabar enpresako langile bat egoitzako sotoan dagoen sukaldea berritzeko lanak egiten. UBANE MADERA

**ZERBITZUAK** > NAGUSIAK

# Abendurako bukatuko dituzte Iturbide egoitza berritzeko obrak

Kanpotik eta barrutik berritu dute egoitza; besteak beste, teilatua, fatxada eta egoitza barruko solairu guztiak berritu dituzte

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Bukaezina zirudiena laster bukatuko da. Hori da Amenabar eraikuntza enpresako ordezkariek diotena: abenduan bukatuko dituztela Iturbide egoitzako lanak.

Lau solairu goitik behera berritu eta gero, une honetan azkeneko lanak egiten dihardute, beheko solairuan. "Beheko solairuaren erdia berritu behar dugu bakarrik. Beste erdia Abaroa da, eta Abaroa berria egin arte (Etxaluzen), hau ezin dugu ukitu", azaldu du Veronica Monterok, Iturbideko obra-buruak.

Egokitu beharreko zatian bulegoak dabiltza egiten, ileapaindegia, fisioterapia gela eta podologoa. "Eta nagusiak bisitatzera datozenendako egongela, kafe makinekin-eta".

**SARRERA ALDATU BEHAR**

Jakinarazi dute azken obra horien ondorioz datozen hiru hilabeteotan Iturbide egoitzarako sarrera lekuz aldatu beharko dutela, eta egoitzako sotoko sarreratik bideratuko dutela.

**ONDO ARGIZTATUTA**

Hori bai, gainerako solairuek erakusten dute aldea aurreko itxurarekiko. Batez ere, argitasunean; "iluminazio handia ipini dugu, bai, eta horren ondorioz, sentsazioa da guztia dela handiagoa", azaldu du Monterok.

**KOMUNAK**

Instalazioei dagokienez, logela guztiak berritu dituzte. Eta berrikuntzen artean aipagarrienetakoak dira komunetakoak: "Guztiak egokitu ditugu mendekotasuna duten egoiliarrendako. Adibidez, badaude komun batzuk ezertxo ere mugitu ezin dutenendako gertu. Gela baten adinako komunak dira", azaldu du Montero obra-buruak.

**IGOGAILUAK**

Horrez gainera, igogailuak ere berritu dituzte. Bat gehiago ipini dute: "Jakien eta jantzien karroetarako. Eta beste hiru ere badaude: pertsonendako. Bata handiagoa da, esku-oheak igotzeko".

Orokorrean, solairuetako instalazioak berritu dituzte eta orain, jangela eta egongela bana dituzte solairu bakoitzean.

**IA URTEBETE BERANDU**

Hori bai, Iturbideko obrek bukatuta behar zuten; 2007an hasi zituzten eta 2009 hasieran bukatzea egokitzen zen: "Otsailean bukatu behar ziren; hamar hilabeteko atzerapena da. Baina justifikatuta dago, proiektua aldatu egin delako behin eta berriro. Adibidez, berogailua berritzea ez zuten aurreikusi proiektuan".

ELEMENTU KURIOSOAK, NAGUSIENDAKO PENTSATUAK

## Euria eginez gero bakarrik ixten diren leihoak

Iturbiden egin duten obra erraldoia aprobetxatu dute teknologia berrienak ipintzeko. Kuriosoenak dira, akaso, teilatuan daudenak: euriarekin automatikoki ixten diren leihoak ipini dituzte. Laugarren solairuan, berriz, pertsiana automatikoak ipini dituzte geletan.

Bestalde, lurra berritzeko ere kontu handia izan dute materiala aukeratzerakoan: "Zorua berezia da: zikinkeria gutxiago batzen duen zoru mota ipini dugu. Horrez gainera, 3 milimetroko esponja modukoa dauka, eta horrek asko biguntzen ditu jausiz gero egon daitezkeen kolpeak. Dutxetako zorua ere berezia da; pikorduna, ez labaintzeko".

DATUA

## 2.300.000

**EURO**

Hori da obrak egiteko adjudikatutako aurrekontua; harrezkero, baina, kreditu aldaketa ugari egin dituzte, aurreikusi bako obrak egiteko; hori horrela, azkeneko kopurua asko handituko da.

## oharrak

KINTOAK
**> 1956koak, Errioxara**

1956an jaiotakoak azaroaren 7an elkartuko dira urteroko irteera egin eta egun osoa lagun artean pasatzeko. Errioxara egingo dute bidaia, ardo-upategi batera, eta txikiteoaren ostean bazkaria eta dantzaldia izango dituzte. Animatzen direnek datorren urriaren 22a baino lehen sartu beharko dituzte 60 euro Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 50 001 1144449.

KINTOAK
**> 1942koen ospakizuna**

Urteroko ospakizuna egingo dute 1942an jaiotako emakumeek datorren urriaren 24an. Parte hartu gura duenak izena eman behar du Izadi belar-dendan urriaren 20a baino lehen.

KINTOAK
**> 1959koek, bazkaria**

Azaroaren 4rako hitzordua egin diete 1959an jaiotakoei bazkaria egiteko. 12:30ean Monte tabernan elkartu eta trikipoteoa egin ostean, 14:15ean oroitzapenerako argazkia aterako dute, Monterronen. Horren ostean, Sara jatetxera joango dira, autobusez. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Kutxako honako zenbaki honetan: 2101 0055 65 0127019156, urriaren 24a baino lehen.

ARIZMENDI IKASTOLA
**> Perretxiko Eguna eta beste**

1967an jaiotakoek azaroaren 7an afaria egingo dute. Izena eman behar da honako bi leku hauetako baten: Portaloi optika (Mirari; 943 79 65 56) edo Xalo ile-apaindegia (Maria; 943 77 07 66).

ARIZMENDI IKASTOLA
**> Perretxiko Eguna eta beste**

Urriari begira hainbat ekitaldi antolatu ditu Arizmendi ikastolak, asteburuetarako. Adibidez, urriaren 25ean Perretxiko Eguna egingo dute. Eta urriaren 31n, berriz, Ikastolaren Eguna ospatuko dute. Bestalde, jakinarazi dute urrian abiaraziko dutela Ikasys proiektua, Lehen Hezkuntzako maila guztietan.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARAN Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



JOKIN BEREZIARTUA

## Obra ikusgarria Munar auzoan

Obra ikusgarria egiten ari dira Munar auzoko plazan. Ondoan, lur azpian dauden garajeetan ura sartzen zela-eta bizilagun talde batek Udalara jo zuen, gunea iragazgaizteko (inpermeabilizatzeko) baimena eskatzera. Udaleko teknikariak, baina, garajeetan larrialdietarako irteerarik ez zegoela ohartu ziren. Bada, larrieldietarako irteera eta beste zenbait obra ari dira egiten.

**MERKATARITZA** > DENDARI ELKARTEAK

# Ibai-Artek 9.000 euro banatuko ditu erosketa oparitan

Urriaren 1ean hasi zen ekimena eta abenduaren 31ra arte iraungo du; abantailez gozatzeko Ibai-Arte txartela behar da

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Ibai-Arte Arrasateko merkatari eta zerbitzu elkarteak beste ekimen bat abiarazi du. Oraingoan, erosketa oparietan oinarritu ditu bezeroenganako abantailak.

Hala, Ibai-Arte txartela erabiltzen duten bezeroek 10 euroko, 20 euroko eta 50 euroko erosketa abantailak jasotzeko aukera izango dute. Izan ere, 9.000 euro banatuko ditu Ibai Artek. Honako hau da opari guztien banaketa: 10 euroko 400 hobari, 20 euroko 150 eta 50 euroko 40.

**ABANTAILAK NOLA LORTU**

Joan den urriaren 1a ezkero dago martxan Ibai-Arteren ekimen berria, eta bezeroek urte amaierara arte, hots, abenduaren 31ra arte, izango dute abantaila horiez gozatzeko aukera.

Abantailak eskuratzeko, bezeroek Ibai-Arte txartela erabili beharko dute erosketak egiteko orduan. Hala, momentuan bertan jakingo dute zortekoak izan diren edo ez, hobariak –egongo balira– datafonotik bertatik ateratzen den txartelean agertzen baitira. Gero, hilabete amaieran, txartelaren kargua egiten zaion kontu korrontean zuzenean jasoko dute hobaria.

Gainera, azaroaren 30era arte, Ibai-Arte txartela erabili duten bezeroek bi pertsonarendako Kanarietara bidaiarako –astebeterako– zozketan sartuko dira. Azkenik, urri amaierarako gertu egongo da Ibai-Arteren puntu eta oparien gida.

**UDALA** > ENKANTE PUBLIKOA

# Garajea jarriko du enkantean Udalak Otalora kalean

**J.B.** > ARRASATE

Arrasateko erdigunean aparkatzeko pribilegioa jarriko du salgai Arrasateko Udalak. Izan ere, enkante publikoa deitu du garaje bat saltzeko. Garajea Otalora Lizentziaduna kalean dago, San Frantzisko elizaren ondoko biribilgunetik gertu. Hain zuzen, Otalorako 24. zenbakian dago eta 27 metro koadro pasatxo ditu; hau da, garaje baterako metro koadro asko dira.

DATUA

**45.000**

**EURO, IRTEERA PREZIOA**

Garajearen irteera prezioa 45.000 euro izango da. Hortaz, enkantean parte hartzen dutenek hortik gorakoa eskainiko beharko dute. Gainera, 1.300 euro pasatxoko bermea ere jarri beharko dute.

**AZAROAREN 2A BAINO LEHEN**

Erosketa proposamenak Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira azaroaren 2a baino lehen. Data ondo zaindu beharra dago; izan ere, ez dute onartuko epez kanpoko eskaintzarik, nahiz eta frogatu eskaintza Correosen aurkeztu zela epea amaitu baino lehen. Epea bukatuta eta eskaintza guztiak jasota, azaroaren 11n zabalduko dituzte, jendaurrean, eta unean jakinaraziko dute zeinek eskuratuko duen Otalorako garajea. Gero, jakinarazpenetik hilabetera egingo dituzte eskriturak Udalak eta garajearen ugazaba berriak.



Irudian, enkante publikoan jarriko den garajea. UBANE MADERA

**bere ustez**



Ander Etxeberria

## Balizko laugarren hiriburua

Sasoi batean, aspaldi ez dela, "Debagoiena = Euskal Autonomi Erkidegoko laugarren hiriburua" ideia atera zen, dagoeneko desagertuta dagoen esaldia.

Egunotan aurkeztu ditu Jaurlaritzak krisiari aurre egiteko neurri gehiago. Titularretan agertu dira, besteak beste, Bilboko metroaren eta Gasteizko tranbiaren zabaltzeak. Horiei batu behar zaizkie Donostiako metroa gauzatzeko joan zen asteko lehen hitzarmenak. Ezin zitekeen izan EAEko bi kapitalek metro edota tranbia edukitzea eta besteak burdin bide urbanorik ez! Hala ere, horiei guztiei baietz esateak, bestea, garai batean Debagoienarentzat proiektatu zen tranbia, ahaztu edo inplizituki baztertu dutela esan gura du.

> **"Hiriburu garela aldarrikatu beharko dugu, hiriburuentzat denetarik dago-eta"**

Ezer berririk ez eguzkipean; aurreko Jaurlaritzan ere indarra galdua baitzuen proiektuak, asmatu zutenek fedea galduta-edo.

Ni ez nago seguru hemen komunikazioak hobetzeko tranbia den formularik egokiena edo beste sistema bat bilatu behar den, baina arduratzen nau aintzat ez hartze honek, inongo aipamenik ez egiteak. Marketina egiteko besterik ez bada hiriburu garela aldarrikatu beharko dugu hiriburuentzat denetarik dago-eta.



bote prontuen



Bittor Arriaran > Basati taberna

# "Maritxu Kajoi egun aproposa da; nekagarria, baina merezi duena"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Bederatzi urte ditu Basati tabernak, eta, beraz, bederatzi Maritxu Kajoi bizi izan dituzte bertan. Bertako bazkide Bittor Arriaran, baina, 25 urtez dabil tabernari eta ondo baino hobeto ezagutzen du Arrasateko jairik dotoreena.**

**Zer moduz Maritxu Kajoi?**

Oso ondo. Giro polita egon zen, jende mordoa ibili zen eta eguraldi onak asko lagundu zuen. Eguraldi onak mugimendu handiagoa sortzen du tabernan, eta horrek, noski, lan gehiago dakar.

**Iaz baino jende gehiago ala gutxiago? Eta kanpoko jende asko ibili da?**

Eguraldi onak lagunduta, iaz baino jende gehiago ibili dela esango nuke. Bestalde, urtero moduan, kanpoko jende asko ibili zen. Baina aurten, behintzat, arrasatearrek gauean ez dute kalerik egin. Izan ere, aurreko urteetan gauean herriko jende gutxi ibiltzen zen; aurten ez da hala izan.

**Zenbat orduz egin zenuten lan? Eta zenbat lagunek? Egunez ala gauez hobeto?**

12:00etatik 07:30era egin genuen; guztira 20 ordu inguru, beraz. Sei lagun ibili ginen lanean, eta, egia esan, oso egun nekagarria izan bazen ere, gustura ibili ginen. Ez zen ez arazorik ez apurketarik izan; dena ondo joan zen. Egunez gusturago egiten da lan, giro politagoa eta herriko jende gehiago egoten delako.

**Urteko lanegunik zailena da?**

Ez, egun aproposa da lanerako. Egun luzea izaten da, baina merezi du. Sanjuanak, adibidez, egun asko dira eta ekonomikoki ez dute horrenbesteraino merezi.

txaloak eta txistuak



UBANE MADERA

## Autobusak azkarregi ei doaz Garibai etorbidean

Irakurle batek jakinarazi duenez, Garibai etorbidetik autobusak azkarregi pasatzen dira, eta hori "arriskutsua" da bertan ibili ohi direnendako. Biteri plazak betidanik izan du oinezkoen mugimendu handia eta horregatik, akaso, taxiak eta autobusak dira errepidetik pasa daitezkeen bakarrak. Bada, mantsoago ibiltzen badira, hobeto.

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

**ANTZERKIA** > 'JOANEN ILARGIA'

# Kataluniako txotxongiloak zapatuan Amaia antzokian

Carme Sole Vendrellek 1982an idatzitako ipuina da txotxongilo ikuskizunaren oinarria

Uharte txiki batean bizi den Joan eta haren aita dira antzezlaneko protagonistak



Bereziki haurrei zuzendutako ikuskizuna da *Joanen ilargia*. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Bihar, zapatua, bereziki haurrei zuzendutako antzezlana ikusteko aukera izango da Amaia antzokian, 17:00etan.Teatre Nu talde kataluniarrak *Joanen ilargia* antzezlana ekarriko du Arrasatera. Carme Sole Vendrellek 1982. urtean idatzi eta ilustratu zuen ipuina oinarri du antzezlanak. Joan mutikoaren istorioa taularatuko dute. Aitarekin bizi da Joan, uharte txiki batean, baina aita gaixotu egingo da eta Joanek bere esku dagoen guztia egin beharko du hura sendatzeko...

Victor Borras Gaschek zuzentzen duen txotxongilo ikuskizun hori sortzeko, konpainiak Sole Vendrell idazlearen laguntza izan du, ipuinaren xarma mantentzeko asmoz; hain zuzen ere, egilearen estetika izan dute abiapuntu eta obraren protagonista diren txotxongiloak ipuinaren irudietatik abiatuta sortu dituzte.

**TXATXILIPURDI** > GAZTE SAILA

# Gazteendako argazki lehiaketa

Partaideek hamar gai jorratu beharko dituzte; lanak jasotzeko epea, urriaren 30era arte zabalik

**E.M.** > ARRASATE

Txatxilipurdi elkarteko gazte sailak argazki lehiaketa deitu du Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Zaldibarko gazteleku eta gazte txokoen artean. 12-17 urte bitarteko edozein gaztek parte hartu ahal izango du eta argazkiak urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, JPEG formatuan, aipatutako gazteleku edo gazte txokoetan. Hamar gairi buruzko hamar argazki aurkeztu beharko dira. Gaiak honako hauek dira: lagunak; udazkena; natura edo ama lurra; kirola; musika; herria; gazte txoko edo gaztelekua; aitaita-amamak; kulturak; eta dirua. Argibideak, 943 79 54 46 telefonoan.



Musika izango da jorratu beharko duten gaietako bat. GOIENKARIA

> BERTSOAK

### Egaña, Gaztelumendi eta Lujanbiorekin bertso-afaria

Goi Eskola Politeknikoan bertso-afaria izango da martitzenean, urriaren 13an, 21:00etan. Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbio etorriko dira eta eskolako jantokian egingo dute afaria.

Txartelak 15 eurotan salgai daude Basati tabernan eta Arrasateko Gazte Bulegoan. Mubing Bizitza Unibertsitarioa izeneko taldeak antolatu du bertso-afaria eta hurrengo hilabeteetan ekitaldiak antolatzen jarraituko dute.

> LEHIAKETA

### Santamasetako irudi lehiaketako lanak, urriaren 16ra arte

Santamasetako irudi lehiaketa antolatu du aurten Santamas Komisiñoak. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokorrerako deialdia ere bada; hain zuzen, egileek kartelaz gain eskuorrirako eta kartel bateraturako proposamena egin ahal izango dute.

Lehiaketa edozein arrasatearri zuzenduta dago eta urriaren 16 baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen. Argibideak *santamasirudilehiaketa@gmail.com* helbidean.

> ERAKUSKETA

### 'Reuters, munduari begira' Kulturaten urriaren 18ra arte

*Reuters, munduari begira* argazki erakusketa ikusgai dago Kulturaten urriaren 18ra arte. Mundu zabalean ateratako argazkiak dira, hainbat gatazkaren berri ematen dutenak. Guztira, 80 argazki dira, testu txiki batekin lagunduta.

Esan bezala, erakusketa datorren domekara arte, hilaren 18ra arte, izango da zabalik. Martitzenetik domekara ikusteko aukera izango da, 17:30etik 20:30era.




KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**FUTBOLA** > LEHIAKETAK

# Mondrak antolatutako 'Bederatzitik sei' porra, hurrengo jardunaldian

Porra horretan euskal taldeen partiduekin batera ibarreko taldeenak ere sartuko dituzte; Arrasateko hainbat tabernatan bete ahal izango dira

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Datorren asteko jardunaldian jarriko du abian Mondrak *Bederatzitik sei* porra. Futbol jardunaldiari saltsa apur bat jartzeko asmoarekin egin dute lehiaketa hori, eta baita klubarendako diru sarrera berri moduan: "Badakigu ekonomikoki ze egoeratan gauden denok. Instituzioek diru gutxiago emango digutela aurreratu dute eta babesleak bilatzea geroago eta zailagoa da. Guk aurrekontu bat bete behar dugu; hala, porra hau egitea diru sarrera berriak topatzeko ahaleginetako bat da", adierazi du Mondrako presidente Patxi de Andresek. Mojategin bertan bete ahal izango da porra –zapatuetan, 14:00etan itxiko da porra–, baina baita Arrasateko hainbat tabernatan ere; besteak beste, Monte tabernan, Kajoin, Basatin, Estrellan eta Ziorlan.


BEDERATZITIK SEI
Mondrako Porrie
Peña edo Izena
Non
Telefonoa
Data - Fecha
1.....
2.....
3.....
4.....
5.....
6.....
7.....
8......
9.....
1 - X - 2
Gogoratu beretzaitik sei
Recuerda seis de nueve
mondra@me.com

Tabernetan egongo da porra. GOIENKARIA

**IBARREKO TALDEEKIN**

*Bederatzitik sei* porran, Mondrako ordezkariek euskal talde nagusiak aukeratu dituzte, baina haiekin batera ibarreko ordezkariak ere hartu dituzte, hirugarren mailako eta ohorezko erregionalekoak. Hala, datorren asteburuan bederatzi partidu hauetatik sei aukeratu beharko dira, eta, noski, aukeratutako sei partidu horietako emaitzak asmatu: Athletic-Sporting, Osasuna-At. Madril, Levante-Reala, Eibar-Lemona, Lugo-Alaves, Laudio-Aretxabaleta, Hernani-Mondra, Euskalduna-Aloña Mendi eta Trintxerpe-Bergara.

**EURO BATEN TRUKE**

Porrazaleek euro bat ordaindu beharko dute porra betetzeko, eta sei emaitza asmatuz gero, ordura arte batutakoaren %60 jasoko dute; gainontzekoa Mondrarendako izango da: "Batetik, jendeari asko gustatzen zaizkio horrelako lehiaketak; eta bestetik, herriko kirol talde bati laguntzeko dela jakiteak ere jendea animatuko duela uste dugu". Porraren gaineko informazio gehiago *www.web.mac.com/mondra* webgunean aurkituko duzue.



Dorletako Ama Sein taldeko ziklistak, gazte mailakoak guztiak, Raul Blazquez entrenatzailearekin, Dorletan. DORLETAKO AMA

**TXIRRINDULARITZA** > DENBORALDI AMAIERA

## Dorletako Amako gazte mailako ziklistak ondo moldatu dira kategoria berrira

Sein taldeko ziklistek gazte mailara egin dute aurten salto eta kategoriara egokitzeko lanean ibili dira

**X.U.** > ARRASATE

Dorletako Ama txirrindulari eskolako ziklistek amaitu dute aurtengo denboraldia. Sein taldeko gazteek martxoan hasi zuten denboraldia, eta Udazkeneko Kriteriumean izan zuten azkeneko lasterketa, Martutenen. Hala, Raul Blazquezen mutilek denboraldi polita osatu dute, kontuan hartuta kategoria berrira moldatzen ibili direla, iaz kadeteak ziren-eta guztiak. Bestalde, Dorletako Amako ordezkariek eskerrak eman nahi izan dizkiete klubak izan dituen babesleei.



Jonathan Perez, Maialen Axpe eta Lore Marrekin. ARRASATE ATLETIKO

**ATLETISMOA** > GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN GALA

## Jonathan Perezek saria jasoko du

Federazioak emango dio atleta onenaren saria hilaren 23an egingo duten galan

**X.U.** > ARRASATE

Aurtengoa ez da kirol mailan Jonathan Perezen urte ikusgarriena izan; emaitzetan ez, behintzat –nahiz eta Euskadiko jauzilari onena izaten jarraitu–. Arrasatekoak marka pertsonaletan buru-belarri ibili beharrean entrenatzaile lanetan jardun du gehiago, baina Gipuzkoako Atletismo Federazioa *zorretan* zegoen Arrasatekoarekin, eta iritsi da aurreko urteotan egindako lan bikainaren errekonozimendua: gizonezkoetan, atleta onenaren saria jasoko du hilaren 23an egingo duten galan.

Azken urteotan pertikarekin atleta gutxik gainditu dute 5 metroko marka, eta Perez gutxi horien artean dago. Gaur egun ere Estatuan puntako hamar jauzilarien artean dago. Eta Arrasatekoa ez da egon, beste asko moduan, errendimendu handiko kirol zentroetan. Hau da, lana eta atletismoa uztartuta iritsi da Estatuko onenen *taldera*.

Jonathan Perez sari hori jasotzen duen bigarren arrasatearra izango da: 2007an Jose Ramon Petreñasek jaso zuen.

**ZILARREZKO DOMINAREKIN**

Joan den asteburuan Bidasoa taldearekin Espainiako Txapelketan zilarra irabazi eta gero (3,10 metro), Malen Ruiz de Azua Iruñean izango da asteburuan pertika saltoa egiten. Hamabost egun barru Bartzelonara joango da Espainiako kadete mailako txapelketara (3,15 metroko marka du). Hori da Arrasateko taldeak duen beste harribitxia.

> SASKIBALOIA

### Ointxe!-k antolatuko duen Gabonetako saskibaloi torneorako dagoeneko lau babesle ditu klubak

Gabonetako saskibaloi torneoa prestatzeko klubeko arduradunak batera eta bestera dabiltza babesle bila. Eta lan hori hasi da fruituak ematen; izan ere, dagoeneko lau babesle topatu dituzte torneorako. Horietako bat Loramendi Kirolak da; Arrasateko arropa denda horrek iaz ere laguntza eman zion herriko saskibaloi taldeari, jaurtiketa lehiaketako sariak hark jarri zituen-eta.

Aretxabaletako Erostegi enpresak ere txapelketa antolatzen lagunduko du, gonbidatutako taldeei gosariak eta edariak emanez. Monte tabernak ere txapelketa babestuko du, eta azken orduko albistea da Ifam empresak ere bat egin duela Ointxe!-rekin torneoaren alde lan egiteko.

**JENDARTEA** > FERIA

# Jaki postuak ere plazan jarriko dituzte astelehenean, Elosuko ganadu ferian

09:00etan irekiko dute feria eta antolatzaileek urbanoan igotzeko dei egiten dute; arratsaldean idi probak egongo dira



Ganadua bezala, jaki postuak plazan jarriko dituzte aurten, lehenengoz. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Eguraldi ona egitea. Horixe da astelehenean Elosuko ganadu feriaren 31. aldia borobila izateko faltako den bakarra. Gainerakoa antolatzaileek jarri dute. Hain justu, Elur Txiki elkarteak antolatu du azoka, Bergarako eta Azkoitiko udalen laguntzarekin.

09:00etan irekiko dute azoka eta ikusteko asko egongo da. Aurtengo berrikuntzetako bat da azokaren antolaketa aldatu egin dutela; hau da, orain arte jaki postuak Elurmendi elkartearen osteko zelaitxoan egon dira, baina aurten plazan jarriko dituzte guztiak. Elosuko auzo alkate Ainhoa Beristainek esan duen moduan, "proba" egin nahi dute.

Jaki postuei dagokienez, egongo dira gazta, eztia, ogia... eta baita belar-ukenduak, argizaria... eta lehengai naturalez egindako bestelako produktuak.

**ARTISAUAK ERE PLAZAN**

Eguraldia erabakigarria izaten da Elosuko feriaren arrakastan, eta horren adibide da, esaterako, azkeneko urteetan ez dela artisaurik joan euria egin duelako. Bada, egunotan egiten diharduen eguraldi onarekin, hainbat artisauk astelehenean Elosun egongo direla baieztatu diote auzo alkateari, "azken orduan eguraldia okertzen ez bada, behintzat". Artisauok ere plazan egongo dira, eta baita mendiko ganadua ere. Behiak, astoak, zaldiak eta ardiak eroango dituzte baserritarrek: guztiak dira Elosukoak, eta bat Azpeitikoa, nahiz eta "azken orduan kanpokoren bat etor daitekeen", Beristainen esanetan. Plazaz gain, kanposanturako bidean eta eliza aurreko zelaian ere egongo da ganadua ikusgai. Ganadu lehiaketari dagokionez, 13:00etan banatuko dituzte sariak.

**IKUSKIZUN GEHIAGO**

Esandakoez gain, pilotalekuan egongo dira taberna, talo postua eta taulatu txikia. Aurten Elurmendi elkartea egingo da tabernaren kargu eta aurreko urteetan baino pixka bat txikiagoa izango da.

Horrez gain, bestelako salmenta postuak ere –jantzi, jostailu, bitxikeria...– egongo dira, urtero bezala, beheko zelaian.

Arratsaldean ere egongo da zer ikusi Elosun. Hain justu, 17:30ean idi probak egongo dira. Hirukia kafetegiak eta Belarretak nor baino nor gehiago jardungo dute Azkoitiko Ipintza harriarekin.

**URBANOAN IGOTZEKO DEIA**

Elosura igotzeko autobusa antolatu dute. Lehenengoa abiatuko da 09:30ean, San Martin plazatik. Azkena jaitsiko da 15:00etan Santutxutik. Bidaia bakoitzaren prezioa izango da euro bat.

Horren haritik, auzo alkate Ainhoa Beristainek dei egiten die herritarrei autobusa erabiltzeko.

Autoan igotzen direnendako aparkalekuak egokituko dituzte Santutxun eta auzoaren sarreran dagoen eskumako zelaian.

**KULTURA** > DOHAINTZA

# Ia 400 liburu jaso ditu dohaintzan Udal Liburutegiak

**M.B.** > BERGARA

Gregorio Ugarteburu zenaren sendiak liburu sorta handia eman dio dohaintzan Udal Liburutegiari. Euskal Herriari buruzko –historia, literatura, folklorea, natura, literatura, antropologia...–liburuak dira; gehienak bildumak. Sorta horretan daude, esaterako, *Obras Completas de J.M. Barandiaran, Euskaldunak, Mendiak, Arte Vasco* eta *Euskal Idazleak gaur* lanak.



Irudiko gelatxoa (ezkerreko atea) egokituko dute dohaintzako liburuendako. M.B.

**DOHAINTZA INTERESGARRIA**

Udal arduradunek uste dute dohaintzan jasotako materiala interesgarria dela, besteak beste Euskal Herriari buruzkoa delako. Horrez gain, azpimarratu dute liburu kopurua ere handia dela; ia 400 liburuk osatzen dute dohaintza.

Horregatik, katalogatu, liburutegiko sisteman sartu eta herritarren eskuetara jarriko dute. Udal Liburutegitik aurreratu dutenez, Gabonetarako kontsultagarri egotea espero dute eta, liburutegian bertan dagoen leku falta dela-eta, gelatxo bat egokituko dutela liburu horiendako.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono, 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

> IKASTAROA

## Interneten erabileren gaineko beste lau ikastaro KZgunean

Martitzenean hasi eta egubakoitza bitartean izango dira, eguneko bat: martitzenean, *Wikipedia* zer den erakutsiko dute, 16:00-18:00 ordutegian; eguaztenean, *Gmail*-en gainean jardungo dute, 11:00-13:00 ordutegian; eguenean, *Google Tresnak* izango dira ikastaroko gaia, 11:00-13:00 ordutegian; eta egubakoitzean, *Google* eta *Maps Earth* izango da gaia, 16:00-18:00 ordutegian. Informazio gehiago 943 76 73 24 zenbakian.

> IKASTAROA

## Haurrei masajea emateko ikastaroa aurten ere Aranzadin

0 eta 1 urteko umetxoei masajea nola eman jakiteko ikastaroa antolatu du Aranzadi ikastolak. Azaroaren 18an eta 25ean eta abenduaren 2an, 9an eta 16an izango dira eskolak, 17:00etatik 19:00etara, Aranzadi ikastolan. Ikastaroaren prezioa da 85 euro eta irakaslea Nerea Mendizabal izango da.

Izenematea da urriaren 26tik azaroaren 12ra, Haurtxoa haurtzaindegian.



Plazarako aldaparen malda jaitsi egin dute eta galtzada-harriak kendu egin dituzte; baita eskailerak egin ere. M.B.

**HIRIGINTZA** > E PLANA

# Hil erdian ekingo diete Iralako lanei

Uda sasoian geldi egon dira lanok, terrazak dituzten tabernariek hala eskatu zutelako

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Domingo Irala kalearen azkeneko tartea egokitzeko lanei urriaren 19an ekingo diete, udako etenaldiaren ostean. Udal iturriek azaldu dutenez, lanak geratu egin zituzten terrazak dituzten tabernariek hala eskatuta, udako denboraldia aprobetxatzeko. Hori horrela, Udaletik gehitu dute Iralako urbanizazio lanek ez dutela beste etenaldirik izango.

Lan horiek egingo dira Espainiako Gobernuak bultzatutako E Planaren dirulaguntzekin. Era berean, Bideberri bi noranzkoko bihurtzeko lanak eta Bolu auzorako igogailuak plan bereko dirulaguntzarekin egiten dihardute.

Udaletik gehitu dutenez, Bideberri eta Boluko lanak martxa onean doaz eta, aurreikusi bezala, abendurako bukatuta egongo dira.

## oharrak

KINTADA

**> 1962an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 31n egingo dute, Tartufo jatetxean. Autobusa egongo da joan-etorrirako. Izenematea da urriaren 25a baino lehen, Ariznoa, Etxagi eta Deportivo tabernetan (10 euro aurreratu behar dira). Hitzordua egin dute 20:00etarako Fraiskozurin.

BERTSOLARITZA

**> Bertsolari Txapelketa Nagusirako txartelak salgai**

Jardun elkartean daude salgai. Finalerako sarreraz gain, bazkari zein autobuserako txartelak ere badaude.

KINTADA

**> 1968an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 24an egingo dute. Izenematea da urriaren 15a baino lehen, Deportivo tabernan. 10 euro aurreratu behar dira.

JAIALDIA

**> Pelloren Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude**

Pello Garitanoren omenaldi egunerako antolatu duten bazkarirako txartelak salgai daude Lazkano zapata-dendan eta Ariznoa tabernan, 20 eurotan. Azkeneko eguna da urriaren 12a.



**IKUS-ENTZUNEZKOA** > ARGAZKIAK

# Kaperotxipiren argazkiak ikusgai laster Zabalotegin

Indotxinaren gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko du urriaren 14an argazkilariak

**I.A.** > BERGARA
Iñaki Kaperotxipi argazkilariak munduan barrena hainbat bidaia egin ditu bere bizipenak argazkietan islatu eta ondoren, ikus-entzunezkoen eta erakusketen bidez jendeari azaltzeko. Argazki horiek, gainera, bide eman diote nazioarteko argazki lehiaketak irabazteko.

**BIDAIA ARGAZKITAN**
Bergarako Zabalotegin urriaren 14an egingo duen emanaldian, *Indotxina. Vietnameko Paisaietatik Angkorreko hondakinetara* ikus-entzunezkoa eskainiko du, 19:00etan.

Ibilbidea Hanoin hasi eta Halong Badian, itsasontzian, Cat Ba uhartean ibiliko da; Sapara joan eta hango etniak ezagutuko ditu autobusean bidaiatuz eta geldialdiak eginez. Mekong ibaiaren deltak ekonomian duen garrantzia eta Angkor Wat hiriko Jemer inperioaren artelanak ere erakutsiko ditu.

**LEHIAKETA** > IKUS-ENTZUNEZKOAK

# Zabalik dago film laburrak sariketara aurkezteko epea

**I.A.** > BERGARA
Bergarako Udalak film laburren laugarren lehiaketa antolatu du eta Debagoienean bizi den edozeinek har dezake parte. Lanak azaroaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dira Bergarako kultura etxean eta informazioa ere han jaso daiteke.

Gaia librea da, hortaz, izan daiteke film labur bat, abesti baten bideoklipa, iragarki bat, irudi muntaia, esketx bat, dokumentala, arte bideo bat...

Lanak bakarka zein taldeka egin ahal izango dira eta edozein hizkuntzatan. Hala ere, partehartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

**SARIAK**
Sari banaketa azaroaren 27an edo abenduaren 4an izango da. Irabazleak 400 euro jasoko ditu eta bigarrenak 300 euro. Lehenengo bietan bergararrik ez bada, 150 euro jasoko ditu bergarar onenak.

> ZINEMA

## 'Madagascar' eta 'El intercambio' filmak aste bukaeran

Zabalotegiko zinema saioetan umeendako *Madagascar* filma emango dute urriaren 10ean eta 11n, 17:00etan, eta sarrerak bi euro balio du. Helduek *El intercambio* filma ikusi ahal izango dute urriaren 10ean, 19:30ean edo 22:30ean; eta urriaren 11n, 19:30ean. Hiru euro da sarrera.

Zineklubeko saioa urriaren 15ean izango da eta *Vals con Bashir* filma emango dute.

> ORGANOA

## Donostiako orfeoia eta Gerardo Rifon organo jolea Santa Marinan

Nazioarteko organo erromantikoaren hamargarren zikloaren barruan, urriaren 10ean, zapatuan, Donostiako orfeoiaren kontzertua izango da, Gerardo Rifon Donostiako San Inazio parrokiako organo-jolearekin. Emanaldia Santa Marina elizan egingo dute, 20:00etan hasita. Bach, Faure eta Mendelssohnen obrak eskainiko dituzte, besteak beste.



Kataluniako abesbatza 45 lagunek osatzen dute eta Frederic Praten zuzendaritzapean jardungo dute. GOIENKARIA

**MUSIKA** > ABESBATZA

# Santa Coloma orfeoiaren emanaldia, Mariaren Lagundiko elizan

Urriaren 11n izango da abesbatza katalanaren kontzertua, iluntzeko zortzietan hasita

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Katalunian ez ezik, Espainiako Estatuan eta Europako zenbait tokitan 300 emanalditik gora egin ostean, Bergarara dator Kataluniako Santa Coloma de Queralt herriko orfeoia. Domekan egingo dute emanaldia, iluntzeko zortzietan Mariaren Lagundiko elizan.

Euskal Herrian aurrez ere abestutakoak dira: Ordizian eta Irunen, hain zuzen ere. Horretaz gain, Valentzia, Aragoi, Menorka, Suitza, Txekiar Errepublika, Italia eta Frantzian ere izan dira.

Era berean, aipagarriak dira euren herrian musikaren gainean abesbatzak egindakoak: herriko musika eskola sortzea, *La musica en Santa Coloma de Queralt* liburua argitaratzea, umeen koruez arduratzea, kontzertuak antolatzea eta herriko jai eta jaialdietan parte hartzea, besteak beste.

**ERREPERTORIOA**
Beti saiatu izan dira euren errepertorioan herri musikari tokia egiten, bai Kataluniakoari eta baita beste herrialde batzuetakoei ere. Hala ere, obra klasikoak eta Elizako kantuak ere abesten dituzte eta musika tendentzia berriak sartzen dihardute pixkanaka euren saioetan.

Bergarako emanaldian Bachen bi abesti eta Gabriel Faureren eta Eugene Butlerren bana eskainiko dituzte lehen zatian.

Kontzertuaren bigarren zatian Friedrich Silcherren *Lorelei*; John Rutterren *The Peace of God*; John Lennonen eta Paul Mc Cartneyren *Hey Jude*; Antoni Perez-Moyaren *Tinc enveja del matí*; *El cant dels ocells* eta *Muntanyes regalades* Kataluniako kantu herrikoiak; *El moliner del Fresser* kantu herrikoi ingelesa; Frederic Siresen *La Gavina*; *Agur Jaunak* euskal kantu herrikoia; eta *Premianenca* sardana abestuko dituzte.

Santa Coloma abesbatza 45 lagunek osatzen dute eta Bergarako emanaldian Pol Pastor izango da pianoan eta Roser Sabate bakarlari lanetan. Horiek guztiak zuzentzeko ardura Frederic Pratek izango du, azken 12 urteotan abesbatzako zuzendari denak.

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903




Bergara taldeko Najera, iazko denboraldian, jaurtiketa egiteko gertu; aurtengo erronketako bat da liga iaz baino hobeto hastea. GOIENKARIA

**ESKUBALOIA** > LEHENENGO TERRITORIAL MAILA

# Soraluce Bergarak Donibane hartuko du etxeko lehen partiduan

Josetxo Muniategiren mutilek astelehenean jokatuko dute ligako bigarren partidua; joan den astean epaileak ez zien garaipenaren gola ontzat eman

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Liga hastearekin batera hasi dira epaileak protagonista bilakatzen. Joan den astean, ligako lehenengo jardunaldian Bergarak puntu baliotsua ekarri zuen Ereintzaren kontrako partidutik (31-31). Puntu baliotsu hori, baina, ez zen justua izan, Bergarak gehiago merezi izan zuelako. Mahoneroek 32 gol egin zituzten Errenterian, baina markagailura 31 baino ez ziren igo, epaileak ez zuelako ikusi Soraluce Bergarak partiduko azken unean egindako gola. Kontua da ateko sarea zulatuta zegoela, eta gola egin arren baloia zulotik irten eta epailea nahastu egin zuela.

Trago txar hori gainditzeko mahoneroek astelehenean izango dute hurrengo hitzordua, 12:15ean, taldea goitik behera aldatu duen Donibaneren kontra.

**ONDO IBILTZEKO URTEA**

Iaz kopa irabazita, Bergarak apenas aldatu du aurtengo urteari begira taldea. Horrek esan nahi du ligan aurrealdean ibiltzeko moduan egon behar dutela, baina ezinbestekoa izango da, iaz ez bezala, ondo hastea.

**FUTBOLA**

# Bergarak Vasconia hartuko du bihar (16:30)

Jokatutako lau partiduetan puntu bakarra batu du biharko kontrarioak

**X.U.** > BERGARA

Ohorezko erregional mailara iritsi berria da Bergara, baina badaude liga mahoneroen atzetik hasi dutenak –tartean, Mondra eta Aloña Mendi–. Eta EHU Vasconia da beste talde horietako bat, donostiarrek jokatu dituzten lau partiduetan puntu bakarra batu dute-eta –Euskaldunaren kontrako partiduan, etxetik kanpora, 2-2.

**IDIAZABALGOA AHAZTU**

Bergarak, berriz, joan den astean Idiazabalen jasotako jipoia ahaztu nahi du (4-1). Liga hasieran gutxik esango zuten Idiazabalek horren indartsu hasi behar zuenik. Azkoagainen sei gol sartu zituzten, eta bazirudien kasualitatea zela, baina zazpi egun igaro eta Bergarari beste lau gol eginda, batek baino gehiagok honezkero tente ditu belarriak.

Bergarak Zarautzen kontra (2-0) jokatu zuen moduan jokatzen badu bihar, Vasconia ondo hartuko du mendean, Herrerako mutilak ezinean dabiltza-eta.

**SASKIBALOIA** > SENIOR PROBINTZIALA

# Berdin hasi diren bi talde aurrez aurre

Soraluce Bergarak Alde Zaharra hartuko du bihar, 16:00etan, Labegaraietan

**X.U.** > BERGARA

Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko du Bergarak asteburuan, Alde Zaharra taldearen kontra (zapatua, 16:00, Labegaraieta). Unai Iñarraren mutilek etxean jokatutako lehenengo partiduan erakutsi zuten kategoria berrian ondo moldatzeko moduko taldea daukatela, Goierriri 62-57 irabazi zioten-eta. Lehenengo emaitza on horrek hauspoa eman zion taldeari, mailaz igota ere partiduak irabazteko gauza direla ikusi zuten-eta.

Baina joan den astean Zarautzen jokatutako partiduan baieztatu zen etxetik kanporako partiduak bestelakoak izango direla; hau da, Labegaraietatik urrun mahoneroek oso ondo egin beharko dutela lan puntuak batzeko; alegia, etxean baino zailtasun handiagoak izango dituztela. Leihoak Zarautz taldeak 13 puntuko aldearekin irabazi zion Soraluce BKEri (69-56).

**BERGARAK, ERRONKA PROPIOA**

Dena dela, Zarautzen kantxatik esku-hutsik etortzea normaltasunez hartu behar da. Badirudi zarauztarrak ligako talde indartsuenetako bat izango direla, jokatutako bi partiduetako bakarrean ere ez dutelako barkatu. Horri esker, dagoeneko aurreko postuetan dira, Beiztinberri, Biok Zerbitzuak eta Astigarragarekin batera. Eta aurten, behintzat,




Bergarako jokalaria kontrarioen artean barneraketa egiten. GOIENKARIA

Bergararen erronka ez da talde horien parean egotea. Mahoneroek erronka propioa dute: jaitsiera postuetatik ahalik eta urrunen ibiltzea, hain zuzen ere.

Biharko kontrario Alde Zaharrak ere aurpegi erabat ezberdina erakutsi du etxean eta etxetik kanpo. Ligako lehen partiduan kolpea jaso zuten Astigarragan (68-59), baina joan den astean bertsio onena erakutsi zuten Kevian Sport taldeari ia 20 puntuko aldearekin irabazita. Hala, bihar, liga berdin-berdin hasi duten bi talde izango dira lehian.

**PILOTA**

# Gipuzkoako txapelketako bi partidu gaur

**X.U.** > BERGARA

Gaur arratsaldean (20:00) Bergarako pilotalekuan bi pilota partidu egongo dira ikusgai, Gipuzkoako txapelketa barruan. Hasteko, gazte mailako partiduan Aurrera Sayaz taldeko pilotaria izango da bisitari, eta ondoren bigarren mailako seniorren partidua jokatuko dute. Hor, Aretxabaleta izango da kontrario.

**OÑATIN IRABAZLE**

Bestalde, joan den asteburuan Bergarako Rezustak irabazi zuen gazte mailan San Migel saria. Bergarakoak Juaristi azkoitiarra izan zuen bikotekide, eta 22-10 hartu zituzten mendean Landa eta Azpitarte.

**mingainari tiraka**

Maria Jesus Prieto > Bolu Sukaldeak

# "Sukaldeko altzarietan beti saldu izan dena egurra da"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Oraindik emakumeek aukeratzen dituzten arren sukaldeak, bikote gazteetan ohitura aldatzen dabilela esan digu Maria Jesus Prietok. Buru-belarri aurkitu dugu lanean, Renove plana delakoarekin.**

**1997an, altzarien marka aldatu zenuten, eta orduan etapa berri bat hasi zenutela esan daiteke.**

Bai, badira urte batzuk sukaldeak saltzen dituguna. Hasieran nire neba hasi zen, eta gero sartu nintzen ni; orduan, altzarien marka aldatu genuen. Lehen, Fagor marka geneukan eta orain, Logos. Lehenengo mailako kalitatezko marka da Logos. Etxetresna elektrikoak, ostera, denetik ditugu.

**Ze kolore dago gaur egun modan?**

Orain zuri-beltza saltzen dugu asko; distirarekin edo gabe. Beti saltzen dena, bestalde, egurra da. Edozein koloretan saltzen da.

**Aldaketa handia gertatu da azkeneko urteetan?**

Bai, azkeneko hamar urteak hartzen baditugu, asko aldatu da sukaldeen diseinua. Lehen, dena altzaria zen; orain, berriz, etxetresna elektriko asko bistan jartzen dira; adibidez, kanpaia.

**Argiñanok sukalde modernoak jarri ditu modan. Nabaritu duzue eragina?**

Bai, batez ere nabaritu dugu sukalde-gaineko koloredunak saltzen direla. Argiñanok lehen Compac marka zeukan eta marka hori asko eskatu izan dute.

**Gremioen koordinazioa ere eskaintzen duzue.**

Bai, eta baita barne-diseinugilearen laguntza ere.

**Renove plana nola joan da?**

Hiru aste gutxi izan dira: diseinua, aurrekontua... lan handia du sukalde aldaketak.



**txaloak eta txistuak**



MIRIAN BITERI

## Zikinkeria asko dago Elorregin

Elorregin, biribilgunetik Bergararako bidea hartuta, eskuman geratzen den tokia da irudikoa. Etxola oso egoera txarrean dago; baina atentzioa ematen dutenak utzitako auto zaharrak dira. Elorregiko auzotarrak kezkatuta daude han dagoen zikinkeriarekin eta eskatzen dutena da horren ardura dutenek garbi dezatela. Euren ustez, ez da askorik kostatzen lan hori egitea.

**argazki zaharra**



## 1934an Elosun ospatutako Aberri Eguna

75 urte pasatu dira goiko argazkia atera zenetik. 1934an ateratakoa da, Elosun, Aberri Egunean. Irudiko hiru mutikoak dira Joseba Laborda –lehenengo txistua–; Iginio Agirre –bigarren txistua–eta Jesus Berroia –danborra–. 1932ko Pazkoigandean ospatu zen lehenengo Aberri Eguna; Bilbon izan zen eta 60.000 pertsona elkartu ziren. Bigarrena Donostian izan zen; eta 1934ko Aberri Eguna, ostera, Gasteizen ospatu zen.

Horrez gain, kontuan hartu behar da irudiko Aberri Eguna Espainiako gerra aurretik ospatu zela.

**Argazkia:** Jesus Berroia.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.
**Urtea:** 1934.














Ibilgailu txikienek igarriko dute tasaren igoera handiena. M.A.

**UDALA** > ORDENANTZA FISKALAK

# Ondasun higiezinen zerga eta ibilgailuena igoko dituzte

Aurkeztutako proposamenari bi aldaketa egitea erabaki zuen Udal-Gobernuak, Ezker Batua-Berdeen aldeko botoa lortzeko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak 2010eko ordenantza fiskalak. Ez zen samurra izan, baina, gobernuak aurkeztutako proposamenarekin ez zirelako ados azaldu gainerako alderdiak: EA, PSE-EE eta Ezker Batua-Berdeak –EAJko zinegotzirik ez zen izan.

**2010EKO IGOERAK**
Ogasun batzordean landutako proposamena hiru irizpide kontuan hartuta egindakoa zela esan zuen Inaxio Garro alkateak: 2010-2012rako egindako plan ekonomiko-finantzarioari diru ekarpenak ziurtatzea; enpresa eta ekonomia eragileei presio fiskalik ez igotzea; eta Udalak ezarritako tasak mantentzea. Baina ezin izan zioten horri eutsi.

Ezker Batua-Berdeek esan zuten diru sarrera berriak bilatu behar direla derrigorrez; telefono mugikorren enpresei zerga ezarri, esaterako. Gaineratu zuten jarduera ekonomikoaren gaineko zerga igo beharko litzaiekeela enpresa handiei; hau da, urtean 2.000.000 eurotik gora fakturatzen dutenei. Aralarrek onartu egin zituen proposamenok eta erabaki zuten %3 igotzea zerga hori.

Datorren urterako onartutako ordenantzen arabera, ibilgailuen zerga igoko dute legeak uzten duen guztia –ibilgailu txikienek igarriko dute gehien–. Zaborrak ez du igoerarik izango –mankomunitateak hala erabakita– eta ura %5,16 igoko du Ur Kontsortzioak. Ondasun higiezinen gaineko zerga %5 igoko dute etxebizitzei dagokienez; %3,2 nekazari lurrei dagokienez; eta industria lurrek ez dute izango igoerarik (katastroaren balioa bakarrik, %1).

EAko zinegotziek aurka bozkatu zuten: "Gastuak zelan murriztu gestionatzeko ezer ez duelako egin gobernuak eta aurrekontuak gertatzen ere ez delako hasi". Alderdi sozialistako kideak, ostera, abstenitu egin ziren, gaia ez zegoelako aurretik behar bezala landuta.

**ATXILOKETEN GAITZESPENA**
Bestalde, San Migel jaietan izandako lau atxiloketak gaitzesteko adierazpen instituzionala onartu zuten, Aralarren eta Ezker Batua-Berdeen botoekin. Udalak adierazi zuen neurriz kanpokoa izan zela atxiloketa eta elkartasuna adierazi zien gazteei. Gainera, herriko arazoak mahai baten bueltan konpontzeko eskatu zuen, eta ez polizia-etxean. Alderdi sozialista guztiz kontra azaldu zen eta EAko zinegotziak abstenitu egin ziren.

**ANTZERKIAK**

## Heldu eta umeendako antzerkiak Arkupen

**M.A.** > ARETXABALETA
Antzerki saio bi izango dira aste bukaeran Arkupe kultura etxean. Bihar, zapatua (22:00), *Ni Hektor naiz* antzezlana eskainiko die helduei Txalo taldeak. Hezur-haragizko bi ni ikusten dituen Hector da komedia horretako protagonista. Sarrera 8 euro da.

Umeek ere badute antzerkia, domekan (17:00). Trikuharri taldeak *Galtzagorriei to, Inaxito* eskainiko die. Inaxito protagonista duen hirugarren antzezlana da eta euskal mitologiako pertsonaiak ezagutuko ditu oraingoan, aurrekoetan legez, bertsoak lagun dituela. Sarrera 3 euro.

Eta eguenean, hilak 15, Josune Bereziartu eskalatzailearen hitzaldia izango da Arkupen (19:30).

**LANAK** > BIRIBILGUNEA

## Biribilgunea egiteko lehen lanak hasi dituzte Deba ibaian

Ur zikinak jasotzen dituen kolektorea eta goi tentsioko argindar linea aldatu egingo dituzte

80 metroko diametroa duen biribilgunea eraikiko dute Aretxabaleta eta Arrasate artean



Hondeatze-makinak Deba ibaian lanean, martitzenean. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA
Aretxabaletako iparraldeko sarreratik pasatzen den Deba ibaian hondeatze-makinak dabiltza azken bi asteotan lanean. Arrasateko Olandixoko tunelaren lanen barruan daude Deba ibaikoak ere.

Arrasatek eta Aretxabaletak bat egiten duten gunean biribilgunea egingo dute. Biribilgune handia izango da, Bergarako Elorregi auzoan dagoena baino handiagoa, eta, eraikitze lanak hasi aurretik, orain dauden sistemak aldatu egin behar dituzte lekuz: ur zikinak jasotzen dituen kolektorea eta goi tentsioko argindar linea. Horretantxe dabiltza ibaiko hondeatze-makinak.

**HIRU ERREPIDEREN ELKARGUNEA**
Egingo duten biribilguneak Garagartzatik datorren errepidea –Olandixoko tuneletik bueltan–, GI-627 errepidea eta Aretxabaleta herrira doan bidea hartuko ditu. Hain zuzen, bi herrien mugan geratuko da. Guztira, 80 metroko diametroa izango du eta automobil asko hartuko dituela aurreikusten dute, Gasteiz, Donostia eta Bilbo aldera irteteko aukera eskainiko duelako.

Lanon proiektuak hainbat aldaketa izan ditu azken hilabeteotan eta oraintsu elkartu dira Arrasateko eta Aretxabaletako udal ordezkariak Aldundikoekin. Azken aldaketak jasotzen dabiltza orain, eta laster, behin betikoa argitaratuko dute. Lanok 2010eko ekainean bukatzea aurreikusten dute arduradunek.

**KULTURA** > 'MADARIKATUAK ETA APARTEKOAK'

# Pertsonaia ezohikoen erakusketa

'Madarikatuak' izeneko ume ilehoriak eta 'Apartekoak' izeneko zirkuko pertsonaiak daude

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Erakusketa bitxia ekarri dute hil honetan Arkupe kultura etxera: *Madarikatuak eta Apartekoak*. Alberto Saavedra eskultorearen irudiak dira, errealismoz betetako gizakiak, hain zuzen. Gainera, erakusketa aretoan egon beharrean han eta hemen jarri dituzte: sarreran, eskaileretan eta liburutegian.

**UME 'MADARIKATUAK'**

*Madarikatuak* azal zuri eta ile horiko umeak dira, uniformearekin jantzita eskolara doazela dirudi, baina izugarrizko gaizto aurpegia dute. Arkupeko eskaileretan daude bisitarien zain eta batek baino gehiagok hartu du ezustekoa, batez ere ilunpeetan sartuz gero.

*Apartekoak*, ostera, itsusiak dira askorendako, baina era berean oso maitagarriak. Ezaugarri fisiko bereziren bat zutelako sasoi baten zirkuan edo ferietan lan egiten zuten pertsonaia bitxiei egin die omenaldia irudiokin.

Hala, Arkupera sartzerakoan bisitariei ongietorria egiten erraldoi finlandiar bat dago: Wäino Myllyrinne –2,42 metro dituen gizona–. Gainerako pertsonaiak liburutegian jarri dituzte: emakume bizarduna, liliputiarrak, labanak jaten dituen gizona... Eta guztiak zirkuko arropa dotoreekin jantzita. Gainera, pertsonaia bakoitza nor den eta nongoa jakinarazi du eskultoreak.

**PLASTIKO ETA GOMAREKIN EGINAK**

Donostiako eskultoreak plastikoa, poliuretanoa eta goma-aparra erabiltzen ditu beste material batzuekin batera irudiok egiteko. Gainera, garrantzi handia dute arropek, irudi bakoitzaren nortasuna agertzen dutelako.

*Madarikatuak* taldeko irudiak Donostiako Beldurrezko Zinemaren Asterako egin zituen; 20, hain zuzen. Arrakasta handia izan zuten umeok eta Europako hainbat jaialdi eta hiritan erakutsi ditu. Saavedraren irudiak museoetan ere badaude.



Arkupeko eskaileretan zain daude ume *madarikatuak*. MIRARI ALTUBE

## oharrak

LEHIAKETA
**> Argazki lehiaketa Atxagazte gaztelekuan**
12 eta 17 urte artekoendako antolatu du lehiaketa gaztelekuak Arrasate, Eskoriatza eta Zaldibarkoarekin batera. Hamar gai hautatu dituzte argazkiendako. Taldeka edo bakarka aurkez daitezke. Azken eguna: urriak 30.

ERRETIRATUAK
**> Abesbatzaren entsegua**
Urriaren 14an du entsegua Basotxoko abesbatzak (18:00).

KINTOAK
**> 1969an jaiotakoak Oriora**
Urriaren 31n joango dira Oriora 1969an jaioak. Izenematea Belar Meta jantzi dendan, 20 euro ordainduta. Azken eguna: urriak 22.

IKASTAROAK
**> Eskulanak eta pintura**
Kultura Sailak antolatutako eskulan, bainika, zeramika eta pintura ikastaroak hil honetan hasiko dituzte.

**DIRULAGUNTZA** > FORU ALDUNDIA

# Aldundiak 1.700.000 euro emango dizkio Udalari kirol etxeko lanak egiteko

Martitzenean sinatu zuten hitzarmena eta aurten 400.000 euro jasoko ditu, datorren urtean 500.000 euro eta 2011n 800.000 euro

**M.A.** > ARETXABALETA

Orain dela hilabete hasi zituzten kirol etxe berriaren eraikitze lanak Galdiano enpresako langileek. 20 hilabete iraungo duten lanek 11.393.288 euroko aurrekontua dute eta Aldundiko Kirol Departamentuaren laguntza jasoko dute.

Orain dela urte bi etorri zen Kirol diputatu Iñaki Galdos kirol etxe zaharraren egoera ezagutzera eta orduan hitzeman zuen laguntza. Orain, berretsi egin dute eta astean bertan sinatu dute hitzarmena, Gipuzkoako beste hainbat udal eta kirol erakunderekin batera. Gipuzkoako Kirol Ekipamenduen Planaren barruan dago hitzartutako laguntza eta 1.700.000 euro jasoko ditu Udalak kirol etxe berria eraiki eta estali gabeko kirolgunea egokitzeko. Esandako diru horren 400.000 euro aurten iritsiko dira, 500.000 euro datorren urtean eta 800.000 euro 2011n. Aldundiaren planak guztira 50 proiektu lagunduko ditu datozen hiru urteotan, eta horretarako 10,9 milioi euro jarriko dituela iragarri du.

**ESKUTITZA BIZILAGUNEI**

Udalak, bestalde, eskutitza bidali die Markole auzo inguruko bizilagunei kirol etxearen lanen berri eman eta eragingo dizkieten eragozpenengatik barkamena eskatuz. Izan ere, lurra ateratzen dabiltza orain orube hartatik eta kamioi askoren joan-etorria jasan behar dute bizilagun horiek.

ARETXABALETA Lanbide Eskola

2006

LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion Katalogo Modularra.

LANGILEEI ZUZENDUAK

| IKASTAROAK | ORDUAK | HASIERA |
|---|---|---|
| Fabrikazio elektromekanikoa | | |
| Automatismos pneumatiko eta elektroneumatikoak | 40 | 2010 otsaila |
| Automatismo hidraulikoak | 36 | 2010 martxoa |
| Automatismo programagarriak | 40 | 2010 apirila |
| CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa | 46 | 2009 azaroa |
| CNC fresatzeko makinako mekanizazioa | 50 | 2010 urtarrila |
| Fundizioa eta galdaketa | | |
| Kalitatearen kudeaketa | 20 | 2009 azaroa |
| Kalitate tresnak | 24 | 2009 azaroa |
| Teknika metrologikoak eta kalibraketakoak | 50 | 2010 otsaila |
| Grabitatezko galdaketako makineria eta materialak | 60 | 2009 azaroa |
| Presiozko galdaketako makineria eta materialak | 60 | 2010 martxoa |
| Grabitatezko galdaketako tresnerien lanak eta mantentzea | 70 | 2010 urtarrila |
| Presiozko galdaketako tresnerien lanak eta mantentzea | 70 | 2010 maiatza |
| Soldadura eta galdaragintza | | |
| Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura | 80 | 2009 urria |
| Elektrodo estali bidezko topekako soldadura | 80 | 2009 azaroa |
| Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura | 80 | 2010 urtarrila |
| Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura | 50 | 2010 otsaila |
| Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura | 50 | 2010 martxoa |
| Posizio horizontaleko TIG soldadura | 50 | 2010 apirila |
| Beste posizio batzuetako TIG soldadura | 50 | 2010 maiatza |
| Kualifikazio sistematik kanpoko ikastaroak | | |
| Ibilgailuen elektromekanika | | |
| Ibilgailuen oinarrizko mekanika | 14 | 2009 azaroa |

LANGABETUEI ZUZENDUAK

| | | |
|---|---|---|
| Mekanizatua | 520 | 2009 azaroa |
| Ibilgailuen elektromekanika | 485 | 2009 azaroa |
| Geriatriako laguntzailea | 359 | 2009 iraila |

ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

lanbide heziketa formación profesional

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan:** ***www.goiena.net/blogak/argazkiak***

# Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu udako argazkien *Asteleheneko Goienkaria* V. lehiaketako sariak. Garikoitz Iturbe aretxabaletarrak irabazi du lehen saria, *Intsektu koloretsua* argazkiarekin. Argentinako Iguazu urjauzietan egin zuen argazkia. Bigarren saria Ane Jauregi bergararrak eskuratu du, *Txirrindaz* argazkiari esker; Santa Barbaran, Donibane Lohizuneko paraje ederrean, atera zuen argazkia abuztuan. Eta hirugarrena Martin Uriarte arrasatearrak, Alpujarrasen ateratako *Atetik begira* argazkiarekin.



1



2



3



**SARI NAGUSIA.** Garikoitz Iturbe aretxabaletarrak irabazi du sari nagusia, argazki-kamera digital bikaina, **Kiñu** argazki dendak eta **Olympus** etxeak emana. Dendako Juanjeren eskutik jaso zuen saria. Iaz ere lehiaketan parte hartu zuen, baina ez zuen irabazi, eta aurten ere animatu egin da berriro; ezustea hartu du lehiaketa irabazita. Oso pozik dago sariarekin; izan ere, ez dauka horrelako kamerarik eta asko gustatzen zaio argazkilaritza.



**2. SARIA**
Bergarako Ane Jauregik irabazi du bigarren saria, Kantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevaran aste bukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Argazki lehiaketara aurkezten den hirugarren aldia da eta pozik hartu du saria. Santa Barbaran, Donibane Lohizuneko paraje ederrean, atera zuen argazkia abuztuan. Maite ahizpak lagundu zion saria jasotzera: **Arrasate Bidaiak**-eko Bea Aldaik eman zien saria.



**3. SARIA.**
Martin Uriarte arrasatearra izan da hirugarren sariduna. Ez da lehen aldia parte hartzen duena. Aurtengoan hiru argazki bidali ditu. Gatzagako **Gure Ametsa** jatetxean afari eder bat irabazi du Martinek, oporretan Garazi alabari ateratako argazki bereziari esker. Argazkian, Martini saria ematen agertzen da jatetxeko Marisa.

**Babeslea:** kutxa

**Laguntzaileak:** Arrasate Bidaiak – Bidaia-agentzia elkartua; Gure Ametsa jatetxea; kiñu argazkilariak; OLYMPUS Your Vision, Our Future

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51

Gotzon Huegun > Eskultorea

# "Feminismoa eta amatasuna nire oinarri dira egurrezko lanetan"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Gotzon Huegun (Lasarte, 1972) eskultorea da, eta lanak ikusgai jarri ditu kultura etxean, ageriko pintura leihaketan parte hartu zutenek eta pintura ikastaroetako ikasleek egindako koadroekin batera. Egurrarekin eta harriarekin egiten du lan, batik bat. Enkarguz egindako lan batekin dabil, baina gurekin berba egiteko tartea egin du.**


Gotzon Huegun, kultura etxeko erakusketa gelan jarri dituen eskulturekin. MILA AZKUE

**Ze lan jarri dituzu ikusgai kultura etxean?**

Alde batetik, feminitatearen gaineko hiru eskultura daude. Emakumea oinarri hartuta lan egitea atsegin dut. Beste alde batetik, egur tailak daude; hain zuzen ere, lau mural ikus daitezke. Irudi geometrikoetatik haratago, edozein etxetan jar daitezkeen muralak egiten ditut.

Egia esan, lan gutxi jarri ditut ikusgai, une honetan, enkarguz, panteoi batean jartzeko pieza handi bat egiten nabil-eta. Italiako marmol zuriarekin dihardut.

Oro har, nire lanak bitan banatuko nituzke: apaingarriak eta pertsonalak.

**Zergatik Oñatin?**

Oñatiko pintura taldeko presidente Mila Azkue ezagutzen dut, eta hark gonbidatu ninduen.

**Ze material erabiltzen dituzu lanerako?**

Bereziki, egurra eta harria erabiltzen ditut. Inoiz lan egin dut brontzearekin, bezero batek eskatuta, baina nire kabuz denean egurra eta harria erabiltzen ditut.

**Eskulturak ematen duenarekin ondo bizi daiteke?**

Oraingoz, ez naiz kexatzen. Enkarguz egiten dut lan, baina bestelako lan batzuk egiteko denbora hartzen dut. Hamar bat lan ditudanean, erakusketak egiteko tokiak bilatzen ditut.

**"Panteoi baterako, marmol zuriarekin lan bat egiten nabil"**

**"Sariak asko eskertzen ditut! Azkena, Suitzan jaso dut"**

**Egurrean egindako eskulturengatik sariak lortu dituzu. Eskertu egiten dira?**

Sariak eskertu egiten ditut, noski! Azken saria Suitzako sinposioan jaso dut: hain zuzen ere, egurrean egindako eskultura onenaren lehen saria.

**Zure lanak leku publikoetan ikus daitezke?**

Ezagunena Miramar jauregiko sarreran dagoen harrizko eskultura da, baina beste hainbat toki publikotan ditut lanak.

## Bixamon Eguneko erakusketan 81 talde izan ziren

Errosaixo Bixamonarekin bukatu zituzten jaiak Oñatin, astelehenean. Mozorroak nagusi izan ziren kaleetan. Oraindik ere mozorro originalak egin daitezkeela erakutsi zuten askok. Bestalde, Kultura Sailak antolatutako erakusketara 81 talde aurkeztu ziren, 51 helduen mailan eta 30 gazteen mailan. Guztiek dirua jaso zuten sari modura.



MIREIA BIKUÑA

DEIALDIA

## LABeko erretiratuek agerraldia egingo dute

Gizarte Zerbitzuan parte hartzeko baimenik ez dutela salatuko dute

M.B. > OÑATI

Oñatiko LAB sindikatuko erretiratuen taldekoek agerraldia egingo dute hilaren 16an, 12:15ean, plazan. Gizarte Zerbitzuen batzordean parte hartzeko maiatzaren 14ko Tokiko Gobernu Batzordean hartutako ezezko erabakia "salatu" gura dute. "Erretiratu ondoren, gure eskubideak mantentzeko taldea sortu genuen orain hiru urte. Udaleko Gizarte Zerbitzuen batzordean parte hartzeko eskaera egin genuen. Alkatearekin bildu ginen eta erantzuna emango zigula agindu zigun. Erantzuna ezezkoa izan zen. Esan digute batzordeak itxiak direla", azaldu digu Jose Antonio Amundarainek.

**PARTE-HARTZEA BULTZATU**

Hori guztiori salatzeko bildu egingo dira herriko plazan. "Herritarren iritziak eta lankidetza jasotzeko gertu dagoen gobernu taldea behar dugu, eta ez aitzakia merkeak jarrita parte-hartzea mozten duena", diote.

### oharrak

KONTZERTUA

**> Coral L'Horta taldearen kontzertua agustindarren elizan**

Valentziako abesbatzak emanaldia egingo du bihar, 20:15ean, agustindarren elizan, meza bukatu ondoren. Kontzertu amaieran euskal kantu bat abestuko dute Oñati Abesbatzarekin batera.

HITZALDIA

**> Osasun txartel elektronikoaren gaineko hitzaldia**

ONA txartelaren (Osasun Txartel Elektronikoa) gaineko hitzaldia egingo dute martitzenean, hilaren 13an, Pake Leku elkartean, 17:00etan.

HITZALDIA

**> Heriotzaren gaineko hitzaldia Elkar Hezin**

*Nola lagundu heriotzak dakarren galeraren gainean?* delako hitzaldia egingo du Patxi Izagirrek hilaren 15ean, 18:30ean. Hain zuzen ere, Elkar Hezi ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikineko liburutegian egingo dute.



Oihana Artetxe eta Naia Semper arkeologoak eta Iñaki Sagredo historialaria 20 metro karratuko eremuan ari dira lan egiten. MIRIAN BITERI

**ARKEOLOGIA** > ATXORROTZ

# Ikasleak hasi dira Atxorrotzeko indusketa lanak bisitatzen

Astelehenean eta urriaren 17an, herritarrek lanak zuzenean ezagutzeko aukera izango dute

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Dagoeneko hasi dira Atxorrotzen bisita gidatuak egiten. Jakina denez, urriaren 1etik 15era bitartean indusketa arkeologikoak egiten dihardute han, eta egitasmo horren bultzatzaileek lan horiek aprobetxatu gura izan dituzte, lanok eta historian zehar Atxorrotzen gertatutakoa herritarrei ezagutarazteko. Horretarako, bisita gidatuak antolatu dituzte.

Lanak bisitatzen lehenak ikasleak izan dira. Herriko ikastetxeetako ikasleez osatutako taldeak igotzen ari dira egunotan. Ordubeteko 'paseotxoa'-ren ostean eta baseliza dagoen tokira igo aurretik, gazteluaren sarrera non zegoen azaltzen diete. Jarraian, goraino igo eta indusketak zuzenean zelan doazen ikusteko aukera dute.

Larrate enpresa nafarrak dauka lan horien ardura. Hain zuzen, Oihana Artetxe eta Naia Semper arkeologoek eta Iñaki Sagredo historialariak ematen dute egun osoa han; 08:30etik 17:00etara.

**ANIMALIEN HEZURRAK ETA BALAK**

Hirurek 20 metro karratuko eremuan dihardute lanean. Landareen geruza kendu ostean, harrizkoarekin egin dute topo. Horrekin batera, dagoneko hasi dira animalien hezurrak eta gerra garaiko balak aurkitzen. Sagredoren arabera, "gazteluaren zatiak metro bateko edo hortik gorako sakoneran egon daitezkeela uste dugu eta helburua haraino iristea da". Indusketen gaineko azalpenen ostean, Atxorrotzeko gazteluak zuen funtzioa eta horren gainean dauden kondairak kontatzen dizkiete.

Esan bezala, egunotan ikasleek dituzte bisita gidatuak. Baina, herritarrek ere lanak gertutik ikusteko aukera izango dute. Astelehenean eta zapatuan, hilak 12 eta 17, hurrenez hurren, joan ahal izango dira, 10:00etan. Aurretik, baina, txanda hartu behar da Ibarraundi museoan, *ibarraundi@eskoriatza.net* helbidean edo 943 71 54 53 telefono zenbakian.

**IKASTAROA**

## Partaidetza oinarri duen ikastaroa gertu dago

Elkarhezitzenek antolatutako ikastaroa zapatu goizetan da museoan

**M.B.** > ESKORIATZA

Datozen hilabeteei begira, Elkarhezitzenek *Elkarlana eta Gizarte Partaidetza* prestakuntza ikastaroa antolatu du munduko gaur egungo gatazka eta arazoen gainean hausnarketa egin nahi duten pertsonendako. Urriaren 17an emango diote hasiera horri, Ibarraundi museoan, 09:30etik 14:00era. Hilero saio bakarra izango da, zapatuetan.

Ikastaroa egungo gizartea eraldatu eta bidezkoa den gizartea lortzea helburu duten pertsonei zuzenduta dago. Horretarako, hausnarketa sustatzeaz gain, partaidetza eta elkarlanean oinarrizko prestakuntza eskainiko da, sei moduluren bidez: Globalizazioa eta Garapena, Giza Eskubideak, Desazkundea, Genero Berdintasuna, Kulturartekotasuna eta Boluntariotza eta Gizarte Parte-Hartzea.

**GLOBALIZAZIOA ETA GARAPENA**

Urriaren 17ko saioan globalizazioaz eta garapenaz jardungo dute. EHUko ekonomia irakasle Patxi Zabalok *Mundua eta sortutako ezberdintasunak* izeneko hitzaldia emango du horretan.

Ikastaro horren gaineko informazio gehiago edo izena eman nahi dutenak, Elkarhezitzenekin jarri behar dira harremanetan. Ikastaroa dohainik izango da.

**KULTURA** > MUSIKA

# Bikustik eta Puro Chile taldeek Inkernun joko dute urrian

Aitzorrotz Kultur Elkarteak gertu du urriko egitaraua: hilaren 16an eta 24an dira kontzertuak

**M.B.** > ESKORIATZA

Berri Txarrak, Deabruak Teilatuetan eta Simbiosis taldeen kontzertuen ostean, Aitzorrotz Kultur Elkarteak gogor dihardu lanean eta asteon Inkernuko urriko egitaraua aurkeztu du. Hilaren 16an, 22:30ean, Bikustik Elgoibarko taldeak joko du han. 2008ko maiatzean sorturiko proiektua da, rockaren klasikoak eta gaur egungo beste hainbat kantu modu akustikoan moldatzen dituen bikotea. Jon Gurrutxaga (ahots nagusia eta gitarra laguntzailea) eta Patxi Zabaleta (gitarra eta koroak) dira bikotea osatzen dutenak.

Besteak beste, Beatles, Led Zeppelin eta Creedence Clearwater Revival bezalako taldeen abestiak entzun ahal izango dituzte datorren egubakoitzean Inkernura joaten direnek.

**URRIAREN 24**

Urriaren 24an, berriz, punk-rocka izango da protagonista, Puro Chile taldearen eskutik. Ibilbide luzea dute partaideek. Izan ere, Vulpes, Rock Dam, Maria y la Plantacion, Anticuerpos edo Piruleta de Hormigon talde historikoetan ibilitakoak dira. Kontzertu hori ere 22:30ean hasiko da.



Bikustik izeneko bikoteak hilaren 16an joko du. AITZORROTZ KULTUR ELKARTEA

GAZTEAK > KIROLA

# Skate parkea inauguratuko dute bihar, herriko zaleen eskaera bati erantzunez

## Aingeru Guarda eta Sorautz arteko bidegorriko lanak direla-eta, luzatu da egitasmoa

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Kostata bada ere, azkenean skate parkea errealitate bilakatu da, eta biharko, zapatua, gunea inauguratzeko jaialdi txikia antolatu du Eskoriatzako Gazteria Sailak tren geltoki zaharrean.

Esandako festari 16:00etan emango diote hasiera eta hiru ordu iraungo du. Bi lehiaketa egingo dituzte: 14 urtetik beherako neska-mutikoendako, bata; eta adin horretatik gorakoendako, bestea. Gazteria teknikari Maider Etxanizek jakinarazi digunez, skatean ibiltzen dakien edonork parte har dezake lehiaketetan, eta interesa dutenek jaialdia hastean esandako gunean jarriko den mahaian eman beharko dute izena.

Horrekin batera, azaldu digu sariak ere egongo direla; hain justu, Arrasateko Nothing Without dendak eta Jart etxeak emandako skaterako materiala jasoko dute irabazleek.

**BERGARAKO ENPRESA**
Guneko lanak Piorails enpresak egin ditu. Bergarako hainbat skaterrek sortu dute enpresa hori. Etxanizen arabera, "abantaila da haiek ere zaleak izatea, parkea diseinatzerakoan igarri egin delako; are gehiago, Eskoriatzako zaleekin elkarlanean diseinatu dute. Piorailsen zatiez gainera, Gatzagan egon zen U formako egitura ere jarri dute han".

Aspalditik eskatzen dute herrian skatea egiteko gune bat. Herrian skatean ibiltzeko zaletasuna daukaten gazte nahikotxo daude, nahiz eta elkarterik eratuta ez izan. Gazte horietako gehienak 13 eta 20 urte bitartekoak dira.


Gazteak dagoeneko badabiltza skate parke berrian. M.B.

## oharrak

UMEAK
**> PlayStationa gaur ludotekan**
Egubakoitzero bezala, gaur ekintza berezia egingo dute Tortolis ludotekan, 7-12 urte bitartekoendako. PlayStationarekin jolasteko aukera izango dute. Parte hartzeko ez da bazkide izan behar.

KIROLA
**> Euskal Ligako areto-futbol eta saskibaloi partiduak bihar**
Bihar, zapatua, Euskal Ligako areto-futbol partidua egongo da kiroldegian: etxekoak Kanikas Infracoman taldearen kontra lehiatuko dira, 16:00etan. Eta lehia hori bukatu ostean, senior mailako nesken saskibaloi partiduari hasiera emango diote toki berean.

GAZTEAK
**> Filma ikusteko aukera izango dute gazteek domekan**
Gaztelekuko egitarauaren harira, domekan, 18:00etan, filma emango dute gaztelekuan bertan.

PINTURA
**> Azaroaren 12ra arte ordain daiteke zabor bilketa tasa**
Eskoriatzako Udalak bigarren seihilekoaari dagokion etxez etxeko zabor bilketa tasaren errolda jendaurrean jarrita dagoela jakinarazi du. Horrekin batera, azaldu du borondatez ordaintzeko epea dagoeneko zabalik dagoela; azaroaren 12a baino lehen ordaindu behar da, aurrezki kutxan edo bankuetxean.


Ezkerretik, Juan Ramon Ugalde idazkaria, Iñaki Pierruges, Edorta Barandiaran, Karmelo Lezeta eta Pedro Lasagabaster. UDALA

EKONOMIA > INDUSTRIA

# Eskoriatzako Industrialdea Debagoieneko Industrialdeari saltzea onartu dute asteon

## Administrazio kontseiluak eguazten eguerdian hartu zuen erabakia eta atzo hori berrestekoak ziren osoko bilkuran

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA
Eskoriatzako Industrialdea SAko administrazio kontseiluak eguazten eguerdian egindako batzarrean onartu zuen esandako industriagunea Debagoieneko Industrialdeari saltzea. Esandako erabakia aho batez onartu zen, batzarreko kide guztien aldeko botoarekin.

Honakook osatzen dute gaur egun Industrialdeko kontseilua: Pedro Lasagabaster, Dorleta Lezeta, Edorta Barandiaran, Iñaki Pierruges eta Karmelo Lezetak. Eguaztenean hartutako erabakiaren bidez, Eskoriatzako Udala Debagoieneko Industrialdean sartzeko prozesuarekin hasi da. Gai horrekin lotuta, atzo, eguena, arratsaldean egitekoa zen ezohiko osoko bilkuran, udalbatza Industrialdeko kontseiluak hartutako erabakia berrestekoa zen.

**1997KO APIRILAREN 18A EZKERO**
1997ko apirilaren 18an sortu zenetik, Eskoriatzako Industrialdean kide bakarra egon da: Udala. Industrialdeak zorrak izan ditu 2005a ezkero, Torrebason dauden instalazio guztiak ez direlako saldu. Hori dela-eta, egoera ekonomikoa jasangaitz bilakatu da.

2008ko udaberrian, industrialdearen administrazio kontseiluak lokalak saltzeko publizitate kanpaina egitea erabaki zuen. Horrek, baina, ez du oso emaitza ona eman eta zorrak pilatzen joan dira, eta Udalaren egoera ekonomikoan zaildu. Joan den urtean, 61.616 euroko emaitza negatiboa izan zuen eta 2008ko abenduan bankuarekin zuen mailegua 1.817.641 euro zen. Debagoieneko Industrialdeari saltzearekin batera, nabarmen egingo du hobera Udalaren egoera finantzarioak.

**DEBAGOIENEKOAN SARTU**
Bestalde, atzoko osoko bilkuran, Debagoieneko Industrialdearen akzio-harpidetza egiteko konpromisoaz ere jardutekoak ziren udalbatzako kideak. Gaur arte, Debagoieneko Industrialdea osatu dute Gipuzkoako Diputazioak, SPRIk eta Oñati, Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako udalek. Eskoriatza bosgarren udala izan daiteke hemendik gutxira.

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
GARANTIA DE ALQUILER
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
• Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
• Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
• Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es


Erretiratu koadrila karta jokoan Landatxope elkarteko egoitzan. IRATI AGIRREAZALDEGI

**ERRETIRATUAK** > KULTURA ASTEA

# Hitzaldia, merienda, irteera eta antzerkia erretiratuendako

## Hilaren 13an, 14an eta 15ean izango dira ekintzak Torresoroan; Portugaletera ere joango dira

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere Kultura Astea antolatu dute Landatxope elkarteko erretiratuek. Hilaren 13an hasiko dira ekintzak, hitzaldi batekin. Fernando Viciosak hitz egingo die erretiratuei, nola hobeto lo egin eta gehiago deskantsatu gai hartuta. Torresoroan izango da hitzaldia, 17:30ean. Ondoren, merienda izango da elkartean. Txorizoz betetako ogi opilak, txokolatea eta bizkotxoak jango dituzte.

Urriaren 14an irteera egingo dute Portugaletera. Zubi Esekia pasa, itsasontzian ibili, Nauticos jatetxean bazkaldu eta gune historikoa bisitatuko dute gidariarekin. Antzerkia ikusteko aukera ere izango da urriaren 15ean: Legazpiko erretiratuek *Mañana será jueves* antzezlana eskainiko dute Torresoroan, 17:30ean.

Bestalde, urriaren 18an Urretxun egingo den ibilaldi neurtuan ere parte hartuko dute Antzuolako hainbat erretiratuk.

**LOKALARI BIZIPOZA EMAN NAHIAN**

Kultura Astean hainbat ekitaldi izango dira, bai, baina egunero egoten da jendea Landatxopen. "Jendea jokora etortzen da, batik bat, eta arrakasta handia izaten du domeka arratsaldeetako bingoak. Oraindik ari gara lokalari bizipoz apur bat eman nahian. Kostako zaigu, baina jendea etorriko den esperantza dugu", esan digute zuzendaritzatik. Horretarako, 30 boluntariok zerbitzari lanak egiten dituzte txandaka.

Dena ez da aisialdia, ordea, eta erretiratuendako podologia zerbitzua ere eskaintzen dute hilaren hasieran, aurrez txanda hartuta.

## Kalebarreneko aparkalekuetan, kontuz

Kalebarren 1eko balkoietatik jausitako hormigoi zatiek harategi parean aparkatutako auto bat kaltetu zuten, eta ezbehar larriagorik gerta ez dadin hesiak ipini ditu Udalak. Bizilagunek konpondu beharreko kontua da, baina, lanak noiz egingo dituzten ez dakitenez, hesien ondoan luzetara aparkatzeko gomendioa egin dute Udaletik.



IRATI AGIRREAZALDEGI

> DANTZA

### Izena eman behar dute Haur Dantzarien Egunean umeak etxean bazkaritan hartzeko prest daudenek

Urriaren 18an, domekan, izango da Haur Dantzari Eguna Antzuolan. Inguruko herrietako umeen dantza taldeak izango dira herrian, eta Oinarin dantza taldekoek herritarren laguntza eskatu dute. Izan ere, domeka horretan umeak bazkaritan etxean hartuko dituen jendea behar dute. Hortaz, gertu daudenek Itzar liburu-dendan, Martin okindegian, Eroskin edo Nerea lurrindegian eman behar dute izena urriaren 15a baino lehen, esanaz zenbat ume hartzeko prest dauden.

> GARRAIOA

### Olaran etxearen ondoko geltokian bakarrik geldituko dira autobusak berriz ere

Autobus geltokia apirilaren 14an aldatu zuten lekuz Kalegoiko obrak zirela-eta. Lanak uztailean amaitu baziren ere, orain arte Antiguan izan da geltokia. Orain, ordea, irailaren 28an hasi eta hemendik aurrera Olaranen izango dute geltoki bakarra autobusek. Horrenbestez, han itxoin beharko dute bidaiariek Bergara aldera zein Zumarraga aldera doazen autobusak hartzeko, eta Antiguan ez da geltokirik izango.

> BERTSOLARITZA

### Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak salgai ipini dituzte Antzuolan

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia abian da. Joan den astean jokatu zen lehen final-laurdena Zestoan, eta Leitzan eta Bilbon izango dira hurrengo bi saioak asteburuan. Finala Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-en (BEC) izango da, goizez eta arratsaldez. Finalerako sarrerak salgai daude Martin okindegian eta Itzar liburu-dendan. 26 euro balio du finalerako sarrerak eta 12 euro gehiago ordaindu beharko dute autobusez joan nahi dutenek.

> FUTBOLA

### Bihar, zapatua, etxetik kanpo jokatuko dute partidua antzuolarrek zumaiarren aurka

Joan den aste bukaeran Ilintxa taldeari 2-1 irabazi ostean, Antzuola sailkapeneko bosgarren postuan dago, zazpi punturekin Elgoibarrekin eta Soraluzerekin berdinduta. Jon Gurutz Godoik sartu zituen antzuolarren bi golak, lehenengo zatian bat eta bigarren zatia hasi eta berehala bigarrena. Hurrengo partidua Zumaiako taldearen aurka jokatuko dute zapatuan, 16:30ean, Aita Mari zelaian.

> KINTOAK

### Bazkaria egingo dute 1976an jaiotakoek urriaren 17an Beasaingo Artzaienea jatetxean

1976an jaiotakoen kinto bazkaria izango da urriaren 17an, zapatuan. 11:00etan plazan elkartuko dira eta trago bat hartu ostean, eguerdian Urretxura joango dira lineako autobusean. Handik trenez joango dira gero bazkaritara, Beasaingo Artzaienea jatetxera, eta bazkaldu ondoren bakoitzak nahi duen tokian jarraituko du parranda. Urriaren 10a baino lehen eman behar da izena Gorosti tabernan, eta 10 euro ordaindu.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

OSASUNA

# Odol emaileen ekitaldia Elgetan

**L.Z.** > ELGETA
Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Elgetan egingo du aurten urteroko intsignia eta diploma banaketa. Hilaren 25ean, domeka, izango da Espaloia Kafe Antzokian.

Debagoieneko eta Debabarreneko delegazioko ordezkariei banatuko zaizkie oroigarriak; Antzuola, Bergara, Deba, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Oñati eta Soraluzeko odol emaileei, hain zuzen ere.

12:00etan Elgetako parrokian elkartuko dira meza entzuteko. Bazkaria Espaloia Kafe Antzokian egingo dute, 14:30ean hasita. Bazkariaren ostean egingo dute intsignia banaketa.

Bazkari horretarako izena eman nahi dutenek herriko ordezkariengana jo behar dute hilaren 12a baino lehen.

HEZKUNTZA

# Zapatuan inaugurazio ekitaldia Torrealdean

**L.Z.** > ELGETA
Herritar guztiak daude gonbidatuta bihar, zapatua, 12:00etan Torrealdeko udal instalazio berrian egingo den inauguraziora.

Haurreskola, ludoteka eta gaztelekua hartzen dituen lokalerako dirulaguntzak eman dituzten erakundeetako ordezkariak gonbidatu ditu Udalak inauguraziora. Baita herritar guztiak ere; bereziki, haurreskolaren diseinua lantzeko unean lantaldea sortu zuten herritarrak.

**oharrak**

LEHIAKETA

**> Urriaren 13ra arte zabalik argazkiak aurkezteko epea**

Zabalik dago Elgetaklik argazki lehiaketako lanak aurkezteko epea. Hilaren 13ra arte jasoko dituzte udaletxean. Elgetako txokorik maiteenak argazkian jaso eta lehiaketara aurkezteko proposamena egin du Udalak. Sei sari daude jokoan. Argazkiak hilaren 18an ipiniko dira ikusgai.



Ikusmina sortu zuen harategi berriaren inaugurazioak, eguaztenean. L.Z.

**MERKATARITZA** > HARATEGI BERRIA

# Herrian, atzera ere, okela erosteko aukera

22 urteko Imanol Albizu elgoibartarrak eguaztenean zabaldu zuen harategi berria

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Lan handiak egin ditu Imanol Albizu harakinak Salbador kaleko lokala harategi bihurtzeko. Lanak, baina, amaituta daude eta harategia zabalik. Arduratuta baina ilusioz beteta dagoela esan zuen eguaztenean egindako irekieran. Jende askotxo erakarri zuen, gainera, irekierak.

Oxel Erostarbe alkatearen *Plaza barrenian* blogean irakurri dugu elgetarron ardura dela "behar den moduko erantzuna ematea". Uztailean bi urte bete ziren azken harategia itxi zela.

**BESTE BI DENDA ZABALTZEAR**

Denda eta frutategia ere zabaltzekoak dira herrian. Ez du zabaltzeko datarik, baina Dayami Varo hasia da lokala egokitzeko lanekin. Hala, Beatriz Bouzasek Andra Mari plazan duenarekin, bi denda izango ditugu Elgetan laster.

Beltxonguan ere, pertsiana altxatuko dutela zabaldu da herrian. Bertan, frutategia zabaltzeko asmoa dauka Eibarko gazte batek. "Zentro komertziala herrian bertan (…), ezin dugu kalerik egin", adierazi du alkateak bere blogean.

**HEZKUNTZA** > OSASUNA

# Elikaduraren gaineko heziketa tailerra egin zuten eskolaumeek martitzenean

Dietetika aditu batek ondo gosaltzeak duen garrantzia azpimarratu zien

**L.Z.** > ELGETA
Kutxaren gaztetxoen elkarteak Gipuzkoako ikastetxeendako antolatzen dituen jardueren barruan, Maitane Arrondo dietetika adituak heziketa tailerra egin du asteon Elgetako eskolaumeekin. Joko didaktikoen bitartez elikadura osasuntsuaren ezaugarriak zeintzuk diren azaldu zien lehenengo eta hirugarren zikloetako umeei.

"Akatsik handiena da gosari pobrea egitea edo ez gosaltzea", adierazi zuen Arrondok. "Osatua izateko gosari batek esneki bat, zerealdun jaki bat eta fruta bat izan behar ditu, eta hori guztia ondo jateko 20 bat minutu behar dira. Konpainian bada, askoz ere hobeto umeendako".



Maitane Arrondo. GOIENKARIA

Arrondok uste du denbora falta dela arazo nagusia. "Umeek imitazioz ikasten dute. Guk ez badugu gosaltzen, umeak ere ez du ikasiko".

**MERIENDA**

Meriendaren garrantzia ere azpimarratu zuen adituak. "Ume batek lauzpabost jatordu egin beharko lituzke egunean. Jaten duenaren %60 goizetik eguerdira bitartean jan beharko luke. Gainerakoa, %40a, arratsaldetik ohera joan bitartean. Zer gertatzen da? Alderantziz egiteko joera dugula".

Meriendari buruz esan zuen umeendako egokiena fruta eta ogitartekoak direla. "Gipuzkoa osoan ibiltzen gara, eta, jeneralizatzea txarra bada ere, ikusten duguna da herri txikietan ohitura handiagoa dagoela ogitartekoa emateko. Herri handietan umeei dirua ematen zaie eta nahi dutena erosten dute". Dena den, argitu zuen akatsa ez dela opilak jatea. "Produktu industrialek koipe asko dute, eta koipe horren kalitatea ez da onuragarriena. Opil horiek etxean ere egin daitezke, eta kasu horretan koipearen kalitatea guk aukera dezakegu".

Goiena Telebistako lantalde bat 5-6 urte bitarteko umeei eskainitako heziketa tailerrean izan zen, eta erreportajea emango dute martitzenean 19:45ean hasiko den magazinean.

**bere ustez**



Sebastian Arantzabal

# Sasi guztien gainetik

Sagardo egunarekin bat eginez, aurten ere ospatu dugu herriko azoka. Dozena bat baserritar eta kale-baserritarrek ortuko genero onena bildu, eta plazara eraman genuen. Gure moduko sasi-baserritarrontzat egun polita, gehienontzako gainera, urteko azoka bakarra, eta aukera aproposa herriko kontsumitzaileei gure generoa erakusteko.

Jendea krisiarekin aztoratuta bizi den garaiotan, momentu egokia litzateke baserrira begira jarri, eta aterabide berriak aztertzeko.

Bide horretan, gertutasunean oinarritutako salmenta izango zen etorkizuneko aterabidea, inguruko baserritarren generoa ezagutu eta erosteko kultura indartuz, gainera.

**"Momentu egokia litzateke baserrira begira jarri, eta aterabide berriak aztertzeko"**

Urrutira joan gabe ere badaude adibide interesgarriak: baserritarren eta erosleen arteko kooperatibak, hilean diru kopuru bat jarri eta astero genero ederra etxera eramatea, edo salmenta zuzenaren bidez aukeratutako produktuekin osaturiko saskia eskuratzea.

Badago zeregin ugari beste bizi eredu bat posible egiteko, ingurugiroa errespetatuz, elikagaiak sortuz, eta giza harreman justu eta osasuntsuago batzuen alde lan eginez.

((112))
SOS DEIAK

**UDALA** > GARAPEN IRAUNKORRA

# Tokiko Agenda 21ek lehenengo urratsak egin ditu Aramaion

Udala pozik dago lehenengo bileraren emaitzarekin; 20 lagun inguru batu ziren udaletxean eta Agenda 21en nondik norakoak azaldu zizkieten

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaion ere martxan jarri da Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesua. Hilaren 30ean Aramaioko udaletxean lehenengo bilera egin zen. Bertan, Tokiko Agenda 21en nondik norakoak aurkeztu ziren, eta udalerrian garrantzi handieneko gaiak zeintzuk diren definitzen hasi ziren.

Hogei lagunetik gora bildu ziren: alkatea eta bost zinegotzi, bost udal langile, lau auzo-alkate eta herriko hiru elkartetako hainbat ordezkari. Aurrera begira elkarte eta talde gehiagoren parte-hartzea lortu nahi da, egingo den diagnostikoan ahalik eta parte-hartze zabalena egon dadin.

Bileraren lehenengo helburua diagnostikoan sar daitekeen gai zerrenda zabaletik garrantzitsuenak aukeratzea izan zen. Gizarteari lotutako gaien artean diagnostikoan bereziki landu beharrezkotzat jo ziren euskara, kultura, hezkuntza eta kirola, alde batetik, eta osasun eta ongizatea, bestetik. Lurralde gaietako batzuk ere nabarmendu ziren garrantzitsu moduan: lurraldea eta antolamendua eta garraioa eta mugikortasuna proposatu ziren horietan lanean hasteko. Ingurumen baliabideei dagokienez, ingurumen kalitateari eta arriskuari eman zitzaion garrantzia.

Jasotako informazioa diagnostikoaren zirriborro bat idazten hasteko erabiliko da. Zirriboro hori herriko beste eragileek egiten dituzten ekarpenekin eta bestelako datuekin osatzen joango da, eta hilabete batzuen buruan herritar guztiei irekitako batzar batean eztabaidatuko da, behin betiko diagnostikoa izango den dokumentua ixteko asmoz.

Hemendik aurrera ekimen ezberdinak egingo dira: alde batetik, udaletxean postontzi bat jarriko da herritar guztien ekarpenak biltzeko; bestetik, udalerriko talde eta elkarteei bakoitzaren esparruaren inguruko galdera sorta bidaliko zaie; eta azkenik, azaroan zehar espero da Tokiko Agenda 21eko teknikari bat lanean hastea. Teknikari horrek astean egun batean Aramaion egingo du lan eta elkarteekin, auzo-alkateekin eta udal langileekin bilduko da, iritziak jasotzen joateko eta poliki-poliki udalerriko diagnostikoa osatzen joateko.



Hogei lagunetik gora elkartu ziren osoko bilkuren aretoan egindako bileran. PAISAIA



AIZPEA AJURIAGERRA

## Ia-ia eurak baino handiagoak

*Udazkeneko loreak* izenburuarekin argazki hau bidali digu Aramaioko irakurle batek. Perretxikotara joateko sasoia da eta horixe bera egin zuten joan den aste bukaeran Amaiurrek eta Uxuek; perretxikoak aurkitu zituzten, eta ez nolanahikoak, gainera; jasotako perretxiko erraldoiak pozik erakutsi zituzten kamera aurrean.

> BULARRETIK MINTZORA

### Pello Añorgak 'Helduentzat nola kontatu, irakurri, begiratu liburu bat' ikastaroa hasiko du eguenean

Bularretik Mintzora proiektuaren barruan, umeengan irakurtzeko ohiturak sustatzeko hainbat ikastaro eta hitzaldi eskainiko dira guraso eta irakasleendako. Pello Añorga ipuin kontalari eta idazleak abiaraziko du kanpaina. *Helduentzat nola kontatu, irakurri, begiratu liburu bat* izenburupean, hilaren 15ean, 22an, 28an eta 29an hitzaldiak egingo ditu; kultura etxean egingo ditu hitzaldiok, 18:00etan hasita.

> ORIXOL

### Bihar, zapatua, herriko erreka garbitzeko deialdia egin du Orixol Mendi Elkarteak

Bihar, urriak 10, erreka garbiketa egin nahi du Aramaioko Orixol elkarteak. Herritarrei laguntza eskatu nahi izan die horretarako. Zapatuan 09:00etan herriko plazan elkartuko dira eta goiz osoan jardungo dute erreka garbitzen.

Herritarrei arropa zaharrarekin eta katiuskekin joatea gomendatzen diete Orixolekoek; goizerdian etentxo bat egingo dute hamarretakoa egiteko; elkarteak berak ipiniko du hamarretakoa.

**UDALBATZA** > EUSKO ALKARTASUNA

# Osinaga: "Udal Gobernuak ez du ezer berririk egin oraindik"

Alkateak GOIENKARIAn egindako adierazpenei erantzun die EAko zinegotziak

**A.B.** > ARAMAIO

Andres Osinaga Aramaioko Eusko Alkartasuneko zinegotziak prentsa ohar baten bidez erantzun die Asier Agirre alkateak uztailean GOIENKARIAn egindako zenbait adierazpeni. Udal Gobernuaren eta oposizioaren arteko harremanaren inguruan alkateak esandakoa kritikatu du; Agirrek zioen gehiengoa izateak ez duela esan nahi "rodilloa pasatzen" ibiltzen direnik eta gaineratu zuen oposizioaren parte-hartzea handiagoa izatea nahiko luketela. Horren harira, Osinagak dio 2007ko hauteskundeen ondoren Udal Gobernuko inor ez zela berarekin harremanetan ipini, nahiz eta alkateak hori esan GOIENKARIAri denbora batera egindako adierazpenetan; hori "rodilloa pasatzeko asmoa" dela uste du Osinagak. Bestalde, EAko zinegotziak dio bere parte-hartzea Udal Gobernuko kideena "baino handiagoa" dela: "hori jakiteko, batzordeetako eta osoko bilkuretako aktak ikusi besterik ez da egin behar. Udala hiru alderdik osatzen dute Aramaion, baina erabakiak bakarrak hartzen ditu", dio.

Plan Orokorraren egoerarekin ere kritikoa da Osinaga: "Agintaldiaren hasieran sei hilabeteko epea eman zuten Plan Orokorraren helburuak finkatzeko eta urte eta erdian itsuen makilakadak ematen ibili dira. Jendeari informazioa emateko, lehenengo norberak jakin behar du zertan ari den". Horren harira, alkateak uztaileko elkarrizketan adierazi zuen jendeari informazioa ematea izan dela euren helburuetako bat, horrela Plan Orokorraren helburuak eta irizpideak finkatzea errazagoa dela. Aurreko Udal Gobernuak helburuak herritarrak kontuan hartu gabe finkatu zituela zioen Agirrek. Osinagaren ustez, "alkatea ez da inor beste Gobernu batek nola jokatu duen azaltzeko eta jokaera honek begi bistan uzten ditu norberaren hutsuneak". Plan Orokorra garatzeko gainerako alderdiak kontuan ez hartzea ere kritikatu dio Osinagak alkateari. "Egia da Plan Orokorra ezin dela egunero edo urtero errepikatzen diren beste lan batzuen moduan planifikatu, baina garrantzi horretako ekintza bat burutzeko talde guztiak hasieratik kontuan hartu behar dira", dio EAko zinegotziak.

Energia berriztagarriak ere izan zituen hizpide Asier Agirrek elkarrizketan. Osinagak uste du bertan aipatzen diren ideiak aspalditik dabiltzala Udalaren asmoetan. "Orain dela hiru edo lau urte aurrekontu batzuk egin ziren eta baita Madrilera bidali ere. Asmatutako gauzak ez dago bi aldiz asmatu beharrik".

Krisi ekonomikoaren gainean ere galdetu zitzaion alkateari. Hark esan zuen krisiak zalantza barik Udalean eragina izango duela, proiektu asko dituztela esku artean eta dirulaguntzak lortu arren Udalak horietan guztietan diru kopuru bat ipini behar duela. EAko zinegotziak dio bertan aipatzen diren proiektu batzuk aurreko agintaldian onartutakoak direla eta "oraindik ez dela ezer berririk" egin. Andres Osinagak gaineratu du Espainiako Gobernuaren E Planaren bitartez lortutako dirua erraztasun handiarekin erabili dela, "herriaren premiak ondo aztertu eta herritarren iritzia kontuan hartu barik".

**LANDA INGURUNEA** > USO PASEA

# Ehizatzeko baldintzak iragarri ditu Aldundiak

Urriaren 12an hasi eta urtarrilaren 31n bukatuko den ehiza sasoian bete beharreko baldintzak gogorarazi dituzte

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Ehiza garaia hasita dago espezie batzuen kasuan eta astelehenean, hilak 12, hasiko da beste batzuendako; horregatik, baldintza orokorrak zeintzuk diren gogorarazi du Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak atzo, hilak 8, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ohar baten bidez.

**USOAK ETA BIRIGARROAK HASITA**

Gipuzkoan ehiza daitezkeen espezie gehienen ehizaldia astelehenean hasiko da eta urtarrilaren 31n bukatu; besteak beste, ahateak, eperrak eta galeperrak. Bestalde, gogorarazi dute erbirik ezin dela ehizatu Gipuzkoan eta mendiko untxia ehizatzeko baimen berezia behar dela.

Uso migratzaileak eta birigarroak, ostera, dagoeneko harrapa daitezke. Hain zuzen, Gatzagako postuetan ehizatzen dituzte espezie horiek eta laster izango dira zabalik, egunotan ibili dira eta gertatzen. Gipuzkoako Ehiza Federazioaren ardurapean daude postu horiek, bost hain zuzen, eta Araban jarraitzen dute lerroa osatuz. Aldundiak gogorarazi du lerro aurretik 500 metroan ezingo dela ehizatu, ezta eskopetarekin ibili ere, zozketa garaian.

**POSTUEN ZOZKETAK GAUR**

Gaur, hilak 9, hasiko da Gipuzkoako Ehiza Federazioa Gatzagako postuak zozketatzen. Udalak eskatu zuen Gatzagan egiteko zozketa horiek –orain arte Aretxabaletan egin dira–, baina atzo eguerdian oraindik ez zuten inolako berririk. Zozketok egubakoitzero egiten dituzte.

**DEIALDIA** > OGASUNA

## Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ordainaldia

Aldundiak bideratzen duen zergak azaroaren 10erako ordainduta egon beharko du

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Aurtengo jarduera ekonomikoaren gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago. Urriaren 1ean zabaldu zuten eta azaroaren 10erako ordainduta egon beharko du zerga horrek.

Gipuzkoako herri txikietan udalak ez du zerga horren gaineko eskumenik –tartean Gatzaga–, eta Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak bideratzen du. Hala, helbideratutako ordainagiriak zuzenean kobratuko ditu eta helbideratu bakoen kasuan norberak joan beharko du banketxera ordaintzera. Haiek urrian zehar jasoko dute etxean ordaindu beharreko kopuruaren berri. Aldundiak adierazi du urriaren 20rako baten batek jakinarazpenik ez badu jaso etxean, Gipuzkoako zerga bulegoren batera jo dezala argibide eske; Debagoienean Bergaran dago (08:30-14:00).

> INTERNET

## Ikastaroak egiteko aukera dago gaur KZgunean

Gaur goizean (09:00-13:00) etorriko da KZguneko dinamizatzaile Aitor Madrid Interneten gaineko zalantzak argitu eta herritarrei ikastaroak eskaintzera. Bi orduko ikastaro motzak dira guztiak eta gaur egun oso erabilgarriak: *Google*-ek eskaintzen dituen tresnak, sare sozialak, *Gmail, Youtoube,* software librea eta beste hainbat.

Osasun txartel elektronikoaren eta Izenperen gaineko argibideak gura dituztenek edo IT txartela eskuratzeko azterketa egin Eskoriatzako edo Aretxabaletako KZgunera jo behar dute.



MIRIAN BITERI

## Zabalik daude ludoteka eta liburutegia

Asteon zabaldu dituzte ludoteka eta liburutegia Garro jauregian, ate irekiak eginaz, eta gustura joan dira ume eta gaztetxoak bertara. Orain, erabiltzaile izan gura dutenen izenak jasoko dituzte Gurel guraso elkarteko kideek. Begirale lanetan bi lagun ibiliko dira aurten, tartean gatzagar bat: Garazi Orobengoa. Datozen egunotan elkartuko dira begiraleok Gureleko arduradunekin ikasturteko egitasmoa zehazteko.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urriko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK
Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

LIBURUA
Bidali AG ATXAGA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

KAMISETA
Bidali AG KAMISETA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

MP3 BAT
Bidali AG EROSKI
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.

SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
• Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
• Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
• Informatika eta teknologia berrien produktuak.
Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)
**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*



Ezkerretik eskumara Xabi Abasolo, Josu Mentxaka, Asier Blazquez eta Urtzi Markiegi, eguazten arratsaldean Bergarako Garbigune ondoan –Angiozarrera bidean– dagoen zirkuituan. XABIER URTZELAI

**MOTO-KROSA** > OPENA

# Ipar zonako moto-kros proba egingo dute domekan Bergarako zirkuituan

Zapatu arratsaldean entrenamendu libreak egingo dituzte eta domeka goizean, 10:00etan, lasterketa

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergara Hiria moto-kros txapelketak utzitako zapore gazia gainetik kendu nahi du Bergarako Motoklub Taldeak asteburuan: "Eta horretarako hitzordu aproposa da etzi izango dugun lasterketa, Euskal Herriko pilotuekin batera, besteak beste, Kantabriako, Aragoiko, Gaztela eta Leongo eta Errioxako pilotuak etorriko dira-eta openera", adierazi du lasterketan esku hartzearekin batera antolatzaile lanetan ere badabilen Asier Blazquezek.

Orain dela hiru asteko lasterketan Bergarako Motoklubekoek ez zuten eguraldiarekin batere zorterik izan, euri mordoa egin eta zirkuitua erabat lokaztu zen-eta. Horrek zatartu egin zuen proba: "Hobe lasterketa egin ez bagenu; baina Euskadiko txapelketarako puntuagarria zen, eta aurrera egiteko eskatu ziguten". Asteburuan, baina, Angiozarrera bidean dagoen zirkuituak bestelako itxura erakutsiko du: "Bergara Hiria proba amaitu eta aste barruan deitu ziguten esaten ea ipar zonako opena antolatuko genuen. Nahiz eta eguraldiak lagundu ez, openeko ordezkariak harrituta geratu ziren zirkuituarekin, eta Gipuzkoako Motoklubekoak ere animatu ziren".

**HIRUGARREN PROBA**

Domekako lasterketa ipar zonako hirugarren proba izango da. Aurreko lasterketak Falcesen (Nafarroa) eta Maoñon (Kantabria) egin dituzte, eta Bergarakoaren ondoren Aranda de Duerok hartuko du errelebua.

Hala, lasterketari begira Bergarako antolatzaileek gertu dute dena, eta aste barruan zirkuituan ibili dira, azken azterketak egin eta entrenatzeko aprobetxatzen. Ibarretik lau pilotu izango dira openean esku hartzen: Urtzi Markiegi (MX1), Josu Mentxaka (MX2 junior) eta Asier Blazquez (MX1) bergararrak, eta Xabi Abasolo (MX2 senior) arrasatearra. Gainera, ipar zonako bi lasterketa korrituta, Abasolo hirugarren dago sailkapenean –bigarrenarekin berdinduta–, eta Euskadiko Txapelketan, berriz, Arrasatekoa lider dago.

**EHUN PILOTU INGURU**

Aste barruan, zirkuituko zorua gogorregi zegoen, eta lasterketarako ur apur bat botako dute antolatzaileek. Hala, domekan baldintza ezin hobeak izango dituzte openean: "Aurreikusten dugu txanda bakoitzeko irteera-parrillan 25-30 pilotu batzea, eta kopuru horrek ikusgarritasuna emango dio txanda bakoitzari. Lokatzaren eraginez aurrekoan sei pilotuk baino ez zituzten puntuak batu, besteak beste, motor asko apurtu egin ziren-eta".

Bihar (16:30) entrenamendu saioak ikusteko ez da ezer ordaindu beharko. Domekan, berriz, bost euro ordaindu beharko dira zirkuitura sartzeko (10:00).



Bizikletekin jaitsiera lasterketek ere geroago eta indar handiagoa dute. SGANDARA

## Bergarako zirkuitua hainbat kirol jardueretan erabili nahi dute

Datorren urteari begira Bergarako Motoklubekoek hainbat ekintza antolatu nahi dituzte, eta horietako bat da gaztetxoendako motor ikastaroak: "Horretarako pilotu profesional bat ekarriko dugu gaztetxoei motorrean ibiltzen irakasteko". Horrez gain, baina, Bergarako Garbigune ondoan dagoen zirkuituari zuku guztia atera nahi diote: "Bizikletak ez ditugu alde batera utzi nahi, modalitate ezberdinetako probak egin daitezkeelako bertan; esaterako, mendiko bizikletekin jaitsiera lasterketak. Tria-krosa ere beste aukera bat da: korrika, bizikletan eta motorrean lehiatzea.

**XAKEA** > 9. ARRASATE HIRIA

# Gaur hasiko dute opena, maisu handi baten parte-hartzearekin

Lehenengoz hartuko du xakeko maisu handi batek esku Arrasate Hiria openean

Holden Hernandez kubatarra da hura; eliteko xakelari izateko gutxi geratzen zaio


Alejandro Francok -eskuman- kontrario gogorra izango du aurten txapela defendatzeko. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Inoizko txapelketarik puntakoena izango da gaur hasiko duten Arrasate Hiria opena. Parte-hartzaileei begiratua botaz gero, erraz nabarmentzen da hori, eta antolatzaileek ere gauza bera azpimarratu nahi izan dute.

Holden Hernandez xakelari kubatarra txapelketan egoteak maila igo du, berez handia zen maila. Hernandezek orain dela bi urte eskuratu zuen FIDE titulazioa (Nazioarteko Xake Federazioa), eta nahiz eta 25 urte baino ez dituen, denek diote Kubako promesari gutxi falta zaiola mundu mailan elite mailako xakelari bilakatzeko.

**BESTEENDAKO MOTIBAGARRI**

Kubatarraren parte-hartzeak motibatu egingo ditu gainontzeko 33 xakelariak. Eta puntako xakelaria izan arren garaipena ez diote eskura jarriko, besteak beste, nazioarteko maisu Alejandro Franco madrildarrak azken urteotan egindako lana defendatuko duelako –2006an irabazle, 2007an bigarren, eta iaz ere txapeldun.

Rankingean hirugarren lekuan Iñigo Argandoña dago. Hura ere nazioarteko maisu, Arrasate Hirian esku hartuko duen laugarren aldia izango da –bigarren postua izan da haren emaitza onena–. Eta faboritoen multzoan daude, baita ere, Fran Miguel aretxabaletarra–2006an bigarren–, Carlos Nava –2001ean txapeldun– eta David Astasio arabar gaztea. Hala, Arrasateko xakelarien artean Josu Tornay da rankingean goren dagoen xakelaria, torneoan 10. lekuan.

**EGUBAKOITZERO ALTAMIRAN**

Arrasate Hiriko lehenengo bost jardunaldiak egubakoitzetan jokatuko dituzte, Altamirako egoitzan, 19:00etan. Partida horietan egoitzako ateak zabal-zabalik egongo dira xakezaleek txapelketa bertatik bertara jarrai dezaten. Azken jardunaldia –azaroak 13– Arrasateko osoko bilkuren aretoan jokatuko dute, 19:00etan.

> FUTBOLA

### Aretxabaletak Santurtzi hartuko du domekan ibarran

Getxon hiru puntu baliotsu batuta (0-1), UDA ligako laugarren garaipenaren bila zelairatuko da domekan (16:30). Aretxabaletak oraindik partidurik irabazi ez duen Santurtzi izango du aurrean. Talde bizkaitarra ez da erasokorra (bi gol), baina ondo defendatzen dute.

> FUTBOLA

### Mondrak, Bergarak eta Aloñak etxean jokatuko dute

Ibarreko hiru ordezkariek etxean jokatuko dute asteburuan. Bergarak Vasconia hartuko du bihar (16:30) eta Mondrak, sailkapenaren erdian dagoen Oiartzun (16:30).

Aloña Mendik, berriz, domekan jokatuko du bosgarren postuan dagoen Trintxerperen kontra (16:30).

> SASKIBALOIA

### Askartzaren bisita izango du Aloña Mendik bihar

Senior lurralde mailan Aloña Mendik Askartzaren kontra jokatuko du bihar Zubikoan (18:00). Oñatiko mutilek errepaso polita jaso zuten joan den astean Santurtzin (105-73), baina sanmigelak amaituta, Oñatiko mutilek iaz erakutsitako maila errekuperatzea da normalena.





Iazko lasterketako esprint erabakigarrian Driss Ben Said izan zen azkarrena. GOIENKARIA

**ATLETISMOA** > SORALUZE-BERGARA KROSA, OLATZ REMENTERIA MEMORIALA

# Lasterketan esku hartzeko zabalik dago izenematea

## Urriaren 31n egingo duten probarako Arrasaten, Oñatin, Bergaran eta Soraluzen eman daiteke izena

**X.U** > ARRASATE

Ibarreko korrikalariek urriaren 31n dute hitzordua, Antxintxika Triatloi Taldeak orduan egingo du-eta Soraluze-Bergara krosa, Servimasa sari nagusia. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da, eta urtetik urtera lasterketa horrek geroago eta arrakasta handiagoa du –iaz antolatzaileak dortsal barik geratu ziren, 323 lagunek hartu zuten-eta parte–. Iazkoa lasterketa borobila izan zen, eta iaz ere Driss Ben Said izan zen azkarrena. Txarrena, irteera baino lehenago jende mordoa batu zela izena emateko orduan, nahiz eta Antxintxikako koadrila ederra zegoen izenak hartzen. Horregatik, komeni da izena lehenago ematea. Hala, Bergaran (Lazkano Oinetakoak eta Goiena Aseguruak), Oñatin (Zero Kilometroa dendan), Arrasaten (Goiena Aseguruak) eta Soraluzen (udaletxean) eman daiteke izena –10 euro–. Egunean bertan 5 euro gehiago ordaindu beharko dira.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Reala-Salamanca
Domeka. 17:00. Anoeta.

**Hirugarren maila**
Aretxabaleta-Santurtzi
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Gazteen liga nazionala**
Aretxabaleta-Gasteizko Aur.
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Gazteen euskal liga**
San Martin-Bergara
Zapatua. 16:15. Gasteiz.

**Ohorezko erregiona maila (lehengo preferentea)**
Aloña Mendi-Trintxerpe
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Bergara-EHU Vasconia
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Mondra-Oiartzun
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Erregional preferentea**
Zumaiako-Antzuola
Zapatua. 16:30. Zumaia.

Amaikak Bat-Aretxabaleta B
Zapatua. 16:30. Deba.

**Lehen erregionala**
Gazteak-Bergara
Zapatua. 15:30. Unbe.

UDAArizmendi-Mondra B
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Gazteen ohorezko maila**
Elgoibar-Mondra
Zapatua. 18:30. Mintxeta.

Lazkao-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Azti Handi.

**Gazteen lehen maila**
Urki-Aretx.B Arizmendi
Zapatua. 10:15. Unbe.

Bergara-Amaikak Bat
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Soraluze-Arizmendi
Zapatua. 11:00. Antzuolan.

**Ohorezko kadeteak**
Bergara-Aurrera Ond.
Domeka. 11:30. Ipintza.

Amaikak Bat-Aretx.Arizme
Zapatua. 11:00. Deba.

Urola-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Argixao.

**Kadete gizonezkoak**
Arizmendi-Aretxabaleta
Zapatua. 11:00. Almen.

Aloña Mendi-Bergara B
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Eibartarrak-Arrasate
Domeka. 15:30. Unbe.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila**
Goierri Verkol-MU
Zapatua. 18:00. Urretxu.

**Senior autonomikoa**
Aloña Mendi-Askartza
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako seniorrak**
Soraluce BKE-Alde Zaharra
Zapatua. 16:00. Labegaraiet.

**Gazte gizonezkoak**
Urola-MU A
Zapatua. 12:15. Urretxu.

**Gazte emakumezkoak**
Bera Bera-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Kadete gizonezkoak**
MU A-Internacional
Zapatua. 12:00. Musakola.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko seniorrak**
Basauri-Ford Mugarri Arras.
Zapatua. 16:50. Basauri.

**Euskadiko gazte mailako emakumezkoak**
Errotabarri-Verkol Aloña
Zapatua. 18:30. Ermua

**Euskadiko kadete mailako emakumezkoak**
Errotabarri-Verkol Aloña
Zapatua. 16:45. Ermua

**Lehen territorial maila**
Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Soraluce BKE-Donibane M.
Astelehena. 12:15. Labegar.

**Gazte mailako gizonezk.**
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Gazte mailako emakum.**
Bergara Sora.-Amaña
Zapatua. 12:15. Labegarai.

Winbel-Citroen Chapime Ar.
Zapatua. 16:30. Gasteiz.

**Kadete gizonezkoak**
Urola-Talleres Chapime Ar.
Zapatua. 16:15. Zumarraga.

Berezao Aloña-Urola.
Astelehena. 12:00. Zubikoa.

Ereintza Esk.-Bergara Sora.
Zapatua. 12:00. Errenteria.

**Kadete emakumezkoak**
Verkol Aloña-Urnietako
Astelehena. 10:30. Zubikoa.

### XAKEA

**Arrasate Hiria torneoa**
Gaur, 19:00, Altamiran, lehenengo jardunaldia.

### MOTO-KROSA

**Ipar zonako txapelketa**
Zapatua. 16:30.
Entrenamendu libreak.
Domeka. 10:00. lasterketak (5 euro).

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**EKONOMISTAK**

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



**> DANTZA**
Bergarako bi bikote Euskal Herriko 33. Dantza Txapelketan > 38



**> MUSIKA**
Donostiako Orfeoiak zapatuan emanaldia egingo du Bergaran > 39

**> AINARA KORTABARRIA**
Eraikuntza eta Obra Zibileko eta Barne Diseinuko ikasketak egin ostean, gai horiek alboratu eta hezkuntzari eta musikari heldu zion arrasatearrak > 42



# Ainhoa Agirreazaldegi, Bertso Txapelketa Nagusiaren atarian

**LEITZAN**
Bihar Leitzan izango du Agirreazaldegik final-laurdeneko saioa

**BIGARRENA**
Elgetarrak 2001eko txapelketan hartu zuen parte

**BERGARAN**
Leitzan irabaziz gero, Bergarako saioan izango da, azaroaren 7an

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Martxan da dagoeneko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Aurreko zapatuan jokatu zen txapelketako lehen final-laurdena Zestoan eta Jone Uria algortarra izan zen finalerdietarako txartela lortzen lehena.

Bihar, zapatua, Leitzan jokatuko da bigarren final-laurdena eta Ainhoa Agirreazaldegi izango da bertan. Elgetarra sortzez, gaur egun Zarautzen bizi da Agirreazaldegi eta hantxe hasi zen gertatzen txapelketa, uda aurretik. Euskal Filologian eta Alemaniar Filologian lizentziaduna da eta gaur egun helduen euskara irakaslea da, Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean. Txapelketari begira ilusioz eta gogoz dagoela diosku, urduritasun puntu batekin ere bai: "Saiatu naiz beste gauza batzuekin despistatzen egun hauetan; azken baten, azkeneko egunetan ezer gutxi egin daiteke... Egin beharreko lana egina dago".

**LAGUNEKIN BATERA LEITZAN**

Bihar, esan bezala, Leitzako kiroldegian egingo du debuta Agirreazaldegik. Saioa 17:30ean hasiko da eta harekin batera Iñigo Olaetxea, Iñigo Manzisidor *Mantxi*, Ibon Ajuria, Xabier Sukia eta Etxahun Lekuek jardungo dute. Puntuaziorik onena lortzen duenak zuzenean egingo du aurrera eta gainerako onenek puntuazioaren arabera lor dezakete finalerdietarako txartela. Agirreazaldegik behin bakarrik hartu du parte Euskal Herriko txapelketan, orain dela zortzi urte. Orduan saio bakarra egin zuen, finallaurdenetakoa. Emaitza hura hobetzea eta bere buruarekin gustura egotea da helburua: "Zera lortu nahi nuke: publikoarengana iristea nire buruarekin koherentea izanda. Adinean gora joan ahala, edukian zentratzeko beharra ikusten dut, lehenago teknikari garrantzi handiagoa ematen nion-eta... Ikusi behar zer-nolako lana egiten dudan Leitzan. Nire buruarekin gustura egotea da nire asmoa, edo horretara hurbiltzea, behintzat...". Esperientzia luzea du Agirreazaldegik bertsolaritzan: 31 urte ditu eta gaztetxotan, 9 urterekin, hasi zen Bergarako Bertso Eskolan.

Prestaketari dagokionez, esan bezala, uda aurretik ekin zion espresuki txapelketa gertatzeari: "Alde batetik, prestaketa iraunkorra dago, urtetan egindakoa; eta bestetik, txapelketari begira egindakoa: uda aurretik hasi ginen biltzen Zarautz aldean bizi garen bertsolariok, *Mantxi*, Iñaki Gurrutxaga, Uxue Alberdi eta laurok. Geroago, Xabier Sukia, Beñat Gaztelumendi eta Unai Muñoa gehitu ziren. Batez ere, komentarioetan zentratutako saioak egin ditugu, astean bitan azkenaldian; zer igartzen genuen faltan besteen bertsoetan, zer gehituko genukeen...".

**BERGARAN, AZAROAREN 7AN**

*Mantxi* eta Xabier Sukia Agirreazaldegirekin lehiatuko dira bihar: "Antzeko maila daukagu guztiok eta egunaren arabera aurrera egin edo kanporatua izan zaitezke. Finalerdietara iristea da nire asmoa eta iritsiko ez banintz, nire arantza nire buruarekin gustura geratzeko moduko saioa ez egitea izango litzateke".

44 bertsolarik ekin diote txapelketari eta 17 izango dira finalerdietan: "Langa estua", Agirreazaldegiren hitzetan. Bergaran finalaurrekoetako bat jokatuko da, azaroaren 7an. Leitzan irabaziz gero, *etxean* abestuko du egun horretan Agirreazaldegik.




Ainhoa Agirreazaldegi Zestoako saioan izan zen aurreko astean, entzule. IRATI AGIRREAZALDEGI



Lierni Altuna. GOIENKARIA

## Lierni Altuna, Gasteizko saioan aurkezle

Ainhoa Agirreazaldegirekin batera, Lierni Altuna da Debagoieneko beste ordezkaria Euskal Herriko txapelketan. Gai-jartzaile jardungo du aramaioarrak. Lierni Altunak Filosofia ikasketak egin zituen eta gaur egun Antropologia ikasten dihardu. Ogibidez irakaslea da eta Arabako Bertsozale Elkarteko komunikazio arduraduna da. Era berean, Aramaioko eta Arrasateko bertso-eskoletako kidea eta irakaslea da. Arabako txapelketan hasieratik izan da gai-jartzaile taldekoa eta Euskal Herriko txapelketan lehen aldiz jardungo du; hain zuzen ere, azaroaren 8an Gasteizen izango den saioko aurkezlea izango da.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Barakaldoko BECen jokatuko da, abenduaren 13an. Andoni Egaña txapeldunak finalerdietako zazpi bertsolari onenak izango ditu zain.

**DANTZA** > EUSKAL HERRIKO 33. DANTZA TXAPELKETA

# Aitzol Ena eta Maite Lazkano domekan faboritoak Seguran

Bergararrek zazpi txapelketa irabazi dituzte aurtengo denboraldian

Denboraldiko hamabi bikoterik onenak batuko dira domekan Seguran

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bergarako bi bikote lehiatuko dira domekan Euskal Herriko 33. Dantza Txapelketan. Aitzol Enak eta Maite Lazkanok osatutako bikotea batetik eta Aritz Arrillaga-Amaia Bolinaga bikotea bestetik. Maite Lazkano eta Aitzol Ena, gainera, txapela eskuratzeko faboritoen artean daude. Izan ere, zazpi txapelketa irabazi dituzte aurtengo denboraldian: Estibalizen, Hondarribian, Oreretan, Laudion, Zarautzen, Donostian eta, etxean, Bergaran, hain zuzen.

Hala ere, azken asteotan arazoak izan dituzte biek eta Lazkanoren arabera, ez daude sasoirik onenean. Edozein modutan, domekan euren onena ematea espero dute. Maite Lazkanok behin irabazita dauka Segurako txapelketa, 2001ean, Aitzolen anaiarekin, Asierrekin. Beste lau aldiz txapeldunorde izan zen Asier Enarekin eta 2000. urtean, lehiatu zen lehen urtean, hirugarrena izan zen.

Ohikoa denez, Euskal Herriko Dantza Txapelketa Segurako Baratze pilotalekuan jokatuko da, 18:00etan hasita. Orain arte San Joan jaien bueltan jokatu izan den txapelketa, udazkenean jokatuko da lehendabiziko aldiz. Dantza solteko denboraldia uda garaian izaten da eta Segurako txapelketa nagusiak sasoia agurtzeko balio izango du. Dantzariek beraiek nahiago zuten Segurako hitzordua urrian izatea, askok ekainean ikasketa konpromisoak izaten dituztelako. Udan jokatutako txapelketetan emaitza onenak lortu dituzten hamabi bikote onenak batuko dira Seguran. Sestaoko eta Gasteizko bina bikote izan ezik, gainerako zortziak gipuzkoarrak ditugu. Nerea Vesga eta Eneko Gil iazko txapeldunak ez dira Seguran izango.

**NESKA-BIKOTE BAT**

Data aldaketarena, baina, ez da aurtengo nobedade bakarra izango: aurreneko aldiz neska bikote batek hartuko du parte, Azaitz Unanuek eta Aizkoa Medinabeitiak osatutakoa, hain zuzen. Arabako txapelketan ere lehiatu ziren eta Euskal Dantzarien Biltzarrak ez du inolako eragozpenik jarri: "Bagenekien noizbait etorriko zela berritasun hori. Plazan ere ikusten dira sexu bereko bikote asko dantzan, emakumeak nagusiki. Eta ez dugu uste albiste handia izan behar duenik", esan zuen Xabier Mendizabalek, Euskal Dantzarien Biltzarreko presidenteak. EDBko Jose Antonio Atxukarrok gaineratu zuenez, 50eko eta 60ko hamarkadetan izaten ziren neska-bikoteak txapelketetan.

ETB-1ean ikusi ahal izango da txapelketa domekan, 23:00etan.



Aitzol Ena eta Maite Lazkano Bergaran nagusitu ziren irailaren 18an. GOIENKARIA

**LITERARATURA** > 'GALEUSCA 2009'

## Idazle katalan, galiziar eta euskaldunen urteroko topaketa Arantzazun aurten

'Literatura txikiak, erronka handiak' izenburupean, astelehenera arte

**E.M.** > BERGARA

*Literatura txikiak, erronka handiak* izenburupean, idazle katalan, galiziar eta euskaldunak Arantzazun elkartuko dira oraingo aste bukaeran. Esperientziak trukatzea da helburuetako bat.

Idazle katalanak, galiziarrak eta euskaldunak biltzen dituzten elkarteek (AELC, AELG eta EIE, hurrenez hurren) antolatzen dute urtero Galeusca (orain arte 25 bilera egin dituzte), txandaka, nork bere herrian. Hain zuzen ere, aurten Euskal Idazleen Elkarteari egokitu zaio antolaketa, eta, esan bezala, literatura txikien erronkak izango dituzte aztergai bihartik. Gaur, egubakoitza, aurkezpena izango da Gandiaga zentroan, 20:00etan.

**PONENTZIAK**

Hizlarien artean Elena Laka EIEko abokatua eta Goienako kolaboratzailea dago. Idazleen egile eskubideen inguruko saioa egingo du Lakak. Jordi Graells, Edorta Jimenez eta Itziar Zubizarreta dira beste hizlarietako batzuk. Lansaioetarako prestatu dituzten txostenak kontsultatzeko aukera dago Interneten: *www.blogari.net/galeusca2009*.

**PERKUSIOA** > IKASTAROA

## 'Trantze sakratuaren erritmoak' Jaikiren eskutik

**E.M.** > BERGARA

Jaiki elkarteak antolatuta, Nick Twilley perkusio-jole ingelesak *Trantze sakratuaren erritmoak* izenburuko ikastaroa emango du hurrengo astean, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Martitzen, eguazten eta eguenean izango dira eskolak, 18:30etik 21:30era. Antolatzaileen arabera, danborrarekin trantze erritmoak lantzea da ikastaroaren helburuetako bat.

Nick Twilley ezaguna da Debagoienean, behin baino gehiagotan eman dituelako kontzertuak hemengo musikariekin. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek 618 04 67 43 (Paco) telefono zenbakira jo dezakete.

**ASTEBURUAN ANTZUOLAN**

Antzuolan beste ikastaro bat emango du Twilleyk zapatuan eta domekan. Argibideak 660 79 85 15 (Arantza) telefonoan.




SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

> UNED
### Ibilbide literarioak Euskal Herrian zehar oraingo asteburuan

UNEDeko Irakurketa Klubak ibilbide artistiko-literarioa iragarri du oraingo asteburu-rako. Hiru jardunaldi izango dira, zapatutik astelehenera. Zapatuan, Ramon Saizarbitoria izango da gidaria eta, besteak beste, Txillida Leku, Pasaia eta Donibane Lohizune bisitatuko dituzte; domekan, gaua Loiolan egin ondoren, Arantzazura etorriko dira, *Iratzeder*, Juan Mari Lekuona eta Bitoriano Gandiaga olerkariak omentzeko. Astelehenean Zalduondora joango dira Lazarraga jauregia bisitatzera. Argibide gehiago 943 76 90 33 eta 91 398 60 50 telefono zenbakietan.

> AITZORROTZ
### Bikustik bikotea eta Puro Chile taldea urriko programazioan

Eskoriatzako Aitzorrotz Kultura Elkarteak bi kontzertu iragarri ditu urrirako. Datorren egubakoitzean, hilaren 16an, Bikustik bikotearen kontzertua izango da Inkernun. Jon Gurrutxaga (ahotsa eta gitarra laguntzailea) eta Patxi Zabaleta (gitarra eta koroak) dira Bikustik. Rockaren klasikoak modu akustikoan lantzen dituzte.

Urriaren 24an Puro Chile izango da Eskoriatzan.

> BIDE ERTZEAN
### Bide Ertzean taldeak Bergaran joko du azaroaren 7an

Bide Ertzean taldeak kontzertua emango du Zabalotegin datorren azaroaren 7an. Urte hasieran Tolosako Leidor aretoan egindako zuzeneko emanaldiaren diskoa, *Leidor Sessions,* aurkeztuko dute Bergaran. Leidorren diskoa grabatu zuen boskote bera etorriko da Bergarara: Ubeda anaiak (Imanol, gitarra eta abeslaria, eta Jon, baxua); Karlos Arantzegi bateria; Joserra Senperena, teklatuak; eta Fran Iturbe, gitarra-jole bergararra.



Argazkian, Donostiako Orfeoia; bihar, zapatua, Bergaran izango da Sainz Alfarok zuzendutako taldea. GOIENKARIA

**MUSIKA** > X. ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOA

# Donostiako Orfeoia eta Rifon organo-jolea zapatuan Bergaran

Besteak beste, Durufle konpositorearen 'Requiem'-a eskainiko dute San Pedron

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren bigarren hitzordua izango da bihar, zapatua, Bergaran. Gainera, aurtengo egitarauko emanaldirik erakargarrienetakoa da biharkoa: Donostiako Orfeoiak eta Gerardo Rifon organo-joleak aurreko zapatuan Azkoitian egindako kontzertu bera errepikatuko dute San Pedro parrokian, 20:00etan.

Jose Antonio Sainz Alfarok zuzenduta, Gerardo Rifon organo-jole donostiarrak hartuko du parte biharko emanaldian. Haiekin batera, Ana Salaberria sopranoa, Raquel Lizarza mezzosopranoa eta Iñaki Goñi tenorea izango dira biharko kontzertuan.

Egitaraua zabala prestatu dute zapatuko emanaldirako: Aita Madina, Johann Sebastian Bach, Mozart, Gioachino Rossini, Johannes Brahms, Javier Busto Busto eta beste zenbait musikarien lanak interpretatuko dituzte.

Rifonekin batera, Benantzi Bilbao (Mundaka), Jose Antonio Arzelus (Tolosa), Aitor Olea (Durango) eta Jose Luis Frantzesena (Azpeitia) organo-jole euskaldunek hartuko dute parte aurtengo organo erromantikoaren zikloan. Hain justu ere, Aretxabaletako abesbatzak Frantzesenarekin batera kontzertua emango du urriaren 25ean, organo erromantikoaren zikloari amaiera emanez. Mokoroaren *Misa In Honorem S. Joannis Baptistae* eskainiko dute Loiolan.

**CIRYL SCHMIEDLIN HILAREN 17AN**

Datozen asteotan beste bi emanaldi izango dira Bergaran, San Pedro parrokian: hurrengo zapatuan, urriaren 17an, Cyril Schmiedlin organo-joleak emanaldia egingo du eta urriaren 24rako emanaldi benetan bitxia iragarrita dago: Andoni Egaña bertsolaria, Jose Inazio Ansorena txistularia eta Aitor Olea organo-jolea elkarrekin arituko dira.

**BERTSOAK** > 'ONDORENGOAK JAKIN DEZATEN'

## Kruz Azkarate antzuolarrak utzitako bertso idatziak liburu baten batu dituzte

Begoña Azkaratek liburu modura prestatu ditu aitaitak utzitako materialak

**E.M.** > BERGARA

Kruz Azkarate (1916-2008) antzuolarraren *Ondorengoak jakin dezaten* bertso liburua atera berri dute Auspoa bildumaren barruan. Haren biloba bat, Begoña Azkarate, arduratu da aitaitak utzitako materialak liburu modura prestatzeaz. Antzuolako Errotabarri errota-etxean jaiotakoa, errotatik bizi izan zen Kruz Azkarate; okina ere izan zen.

Belen Azkaratek zera esaten du aitaitaren gainean, liburuaren hitzaurrean: "Oso gizon umoretsua izan zen gure aittitta, eta beti zeukan hark pasadizoren bat, konturen bat edo bertsoren bat mihiaren puntan. Beti prest txantxa eta parrandarako. Bere ahotik ikasi nuen hainbat eta hainbat euskal kanta eta herriko ohitura, eta bere ahotik ikasi baita ere guzti hori maitatzen eta bizitzen".

**BERTSO IDATZIAK**

Kruz Azkarateren 65. urtemugarekin batera, herriko bertsozaleek omenaldia egin zioten 1981ean. Batez ere bertso idatziak maite zituen. Koaderno batean utzi zituen bertsoak liburuan berreskuratzeko aukera dago orain. Liburuak 182 orrialde ditu eta 9 eurotan dago salgai.




Liburuaren azala.

GOKI ERREFORMAK, S.L.
OBRAK ETA PROIEKTUAK
Teilatuak • Fatxadak • Barruko obrak
Irizar ibilbidea 1, behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 53 42 • Faxa: 943 76 52 16
bergara@gokierreoformak.es / www.gokierreformak.net



# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com | http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo alokagai. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke, garaje itxiarekin. 687 11 07 21

**Aramaio.** Bi familiendako harrizko etxea , loratategiarekin, salgai. Paraje lasaian ( Errotabarrin) eta herritik oso gertu. Prezio interesgarria. Deitu 685 71 35 63 telefonora.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38.

**La Mongie (Frantzia)**. Apartamentua salgai. Eskiatzeko pistetan bertan, logela literarekin, komuna, sukalde-egongela ohesofarekin eta terraza pistetara begira. Trastelekua eta garajea ere baditu. 80.000 euro. Deitu 629 32 84 53 telefonora.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Berriztatzeko baserria, etxea edo txaleta erosiko nuke Arrasate-Garagartza edo Gesalibarren. Interesatuok, mesedez, mezu bat bidali '*gurekontaktua@gmail.com*' helbidera edo telefonoz deitu. 689 54 32 85.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Duplexa ematen da errentan erdialdean. Jantzia. Ia berria. Bi autorentzako garaje itxiarekin. Raquel. 629 46 93 91.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Unibertsitate ondoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Guztiak kanpora begira. 652 71 16 20 edo 943 79 81 63.

**Bergara.** Etxebizitza emango nuke errentan Matxiategi kalean. 649 07 97 56.

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza errentan ematen da, Atzeko kalean. Guztiz berritua. Garajea aukeran. 656 78 61 34.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza edo baserria errentan hartuko nuke. 658 77 90 46.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 600 25 98 54 edo 687 61 63 00 telefono zenbakietara.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erguin aldean pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 628 76 25 00.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko ikasleak behar ditut. Uriburu kalean, Erguinen, unibertsitatetik gertu. Merke. 663 72 37 44.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. Deitu 686 02 56 56 telefono zenbakira.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati** Garajea errentan hartuko nuke. Deitu 679 62 69 64 telefono zenbakira.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. Deitu 638 10 29 63 telefonora.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu umeak zaintzeko arratsaldez. Deitu 18:30etik 23.00etara 675 70 50 43 telefono zenbakira.

**ARRASATE**

**Dietista behar da belardendan.**
**670 96 29 56**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. 659 62 02 49.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak eta abar. 650 14 69 10.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu umeak zaintzeko. 943 79 77 54 edo 646 63 75 03.

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan etxe zein atariak garbitzeko prest. 663 04 53 99.

**Bergara edo Arrasate.** Emakumea lanerako gertu. Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen jardungo nuke. 636 01 91 12.

**Bergara eta Arrasate.** Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94.

**Bergara eta Arrasate.** Gidabaimena duen mutila atariak garbitu, elkarteak garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. 685 70 76 25.

**Bergara.** Urte askotako esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Ordutegi arazo barik. 685 70 75 25.

**Debagoiena.** Asteburuetan edozein brikolaje edo etxeko konponketa egiten dut.Baita txakurrak zaidu edo paseatzera atera ere. Merke. 686 99 23 94.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua arratsaldez edo aste bukaeratan pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 697 93 73 32.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. 636 01 91 12.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17.

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 605 76 05 59.

**Debagoiena.** Gertu nago pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. 638 54 75 93.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 638 10 29 63.

**Debagoiena.** Mutila aste bukaeretan zerbitzari lanak egiteko gertu. 661 86 23 62.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Deitu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 680 30 24 64.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketa lanak eta abar. 636 05 36 18.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko goizetan. 635 25 54 44.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanetarako. Orduka zein etxean bizi izaten. Asteburuetan tabernan ere lan egingo nuke. 669 02 91 30.

**Debagoiena.** Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. 660 56 65 58.

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. 628 48 05 41 edo 943 71 21 15.

**Debagoiena.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago. Deitu 652 07 63 50 telefonora.

**Debagoiena.** Ordenagailuak konpontzen ditut etxean bertan. 697 66 79 37

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Gaztelaniazko solasaldiak izateko norbait beharko nuke. Alemana naiz eta gaztelania hobetu nahi dut. Trukean, alemana erakutsiko nioke interesatuari. Johanna. Deiut 689 33 30 75 zenbakira.

**Bergara.** Pertsona bat behar da bi mutikori eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailan daude. 639 03 43 58.

**Leintz Gatzaga.** Ingeleseko eskolak emateko irakaslea behar da Leintz Gatzagan. Eskolak bi arratsaldetan izango lirateke eta urtarrila arte, hasiera baten. Autoa derrigorrezkoa. 678 82 22 27.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. 664 66 73 09.

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. 663 04 53 99.

**Bergara.** Eskola partikularrak emateko gertu nago; DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera. Pilar. 943 76 16 42.

**Debagoiena.** Ingeles komunikatibo eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntza. 15:00etatik aurrera. Merke. 610 97 49 68.

**Eskola partikularrak ematen dira.** L.H., D.B.H. eta batxilergo zientifikoa.Ikasketak: Biologian lizentziatua eta euskara eta ingelesaren ezagumendu maila altua. 635 72 02 05.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Peugeot 206** autoa salgai. 7 urte dauzka. Oso prezio onean. 699 57 43 51.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak.** 150 ardi saltzen dira, latxa arrazako 300 ardi gaztez osatutako artalde batetik. 606 04 44 36 edo 943 88 09 45.

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Hiru aste duten lau katakume oparitzen ditut, bi eme eta bi ar. 685 79 07 61.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Aluminiozko llantak** kubiertekin saltzen ditut. Neurriak: 185/60 R14. 638 10 29 63.

**BH bizikleta** salgai, 2009koa eta errepidekoa. Campagnolo freno eta osagaiekin. Egoera oso onean. 617 89 34 15.

**Berogailuak.** Ecotermi etxeko 5 berogailu salgai. Bata, Ecotermi 570 w 5 difusore 100 e; hiru, Ecotermi 600 w 5 difusore 150 e/bak; eta bestea, Ecotermi 1000 w 9 difusore 200 e. Egoera onean. Guztiak 750 eurotan. 605 77 54 64.

**Bikiendako** Arrue etxeko karrokapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649 00 53 42.

**Egurra** salgai. Moztuta. Beheko surako edo txaparako. Aramaion. 617 27 74 64 edo 945 44 51 11.

**Gitarra akustikorako** pedalera salgai. Erdi prezioan. Deitu 943 77 19 20 telefono zenbakira.

**Hozkailu-kutxa.** Zanussi etxekoa. 352 litro erabilgarri. 190 euro. 943 79 66 75.

**Liburu zaharrak.** 1953. urteko liburuak saltzen ditut. Deitu 696 84 19 51 telefonora.

**Monozikloa** saltzen dut. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605 73 07 77.

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650 96 23 08.

**Umeendako aulkia.** Jane etxekoa. Hiru erruberakoa. Frenoarekin. 80 euro. Deitu 608 36 26 07 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Bankuko** billete eta txanponak erosten ditut. 688 61 85 02.

**Bikiendako karroa** hartu edo erosiko nuke. Deitu 650 57 36 07 telefono zenbakira.

**Oñatin** lur saila erosi edo alokatuko nuke. Deitu 609 11 72 96 zenbakira.

### 804. HARTU

**Bizikletarentzako** umeen jarlekua behar dut. Eskarne. Deitu 608 49 94 15 telefonora.

### 806. GALDU

**Belarritakoa.** Arrasateko tanatorio inguruan edo Bedoñako eliza inguruan perla iluneko belarritakoa galdu dut. Balio sentimentala du. Aldez aurretik, mila esker. Deitu 626 32 04 72 edo 943 76 47 56 telefono zenbakietara.

**Eguzkitako betaurrekoak** galdu nituen irailaren 20an, igandean, Urbiatik jaisten. Mesedez, norbaitek aurkitu baditu deitu zenbaki honetara. Deitu 615 79 27 44 telefono zenbakira.

**Urbia** Urbixako bidean eguzkitako antiojo pare bat galdu giñuan joan zan domekan, Irailak 27. Deitu 615 79 27 44 telefonora.

### 807. AURKITU

**Jertse grisa** aurkitu nuen irailaren 28an Bergarako Ibargarai kalean, ziburuen parean. Emakumeen jertse grisa da, luzexka eta aurreko aldetik zabalik. 943 76 26 82.

**Oñati.** Irailaren 27ko bolo txapelketa bukatu ondoren sudadera bat aurkitu nuen, norbaitek ahaztuta. Jabeak Kurtze Baltz elkartean berreskura dezake, astegunetan 20:00 aldera. Deitu 943 78 14 21 edo 943 53 42 13 telefono zenbakietara.


KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.



DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.



**BERGARA**

**BERGARAKO industrialdean PABILIOIA ERRENTAN. 1.000 m². Tarteko solairuan 120 metro koadro bulego eta zerbitzuetarako. Instalazioa eginda dago.**
**630 96 71 00**



**LAN ESKAINTZA**

KALE-GARBITZAILEA

Bergarako Udala, aldi baterako Kale-garbitzaile bat kontratatzera doa lehiaketa-oposizio bitartez.

**Izangaien baldintzak:**
- Eskola ziurtagiria edo parekoa den titulua.
- Lehen Hizkuntz Eskakizuna izatea, ez derrigorrezkoa.

**Instantziak aurkezteko epea:**
2009ko urriaren 16a arte, egun hau barne.

**Oinarriak:** Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan eta *www.bergara.net* webgunean.

*Bergara, 2009ko urriaren 2a.*
*ALKATEAK*

Bergarako Udala



Debagoieneko Mankomunitateak
**TURISMO TEKNIKARIEN LAN POLTSA BAT** sortu nahi du:

**Titulazioa.**
- Erdi mailako unibertsitate-titulazioa.
- Ingeleseko "First Certificate", Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloa edo baliokide dena, edo frantseseko "delf B2", Hizkuntza Eskola Ofizialeko oinarrizko zikloa edo baliokide dena.
- B gida-baimena.

**Eskaerak.**
Urriaren 23ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean. Bertan eta webgunean dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

Nafarroa Etorbidea 17
ARRASATE
Tel.: 943 79 33 99
*www.debagoiena.com*
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Debagoieneko Mankomunitateak
**EPELEKO ZABORTEGIKO ETA GARBIGUNEETAKO ZAINTZAILEEN LAN POLTSA BAT** sortu nahi du:

**Titulazioa.**
- Eskola Graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea

**Eskaerak.**
Urriaren 23ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean. Bertan eta webgunean dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

Nafarroa Etorbidea 17
ARRASATE
Tel.: 943 79 33 99
*www.debagoiena.com*
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK

**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## PSIKOLOGIA ENERGETIKOA

**ESTIBALIZ DIEZ CABALLERO**
Oñati / Kale Zaharra 5 beheai
943 71 65 48 / 635 720 836

## UROLOGOAK

**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Ainara Kortabarria > Begiralea eta musikaria

# "Sorkuntzan dihardugu, eta hurrengo ikuskizuna auskalo zer izango den"

Musika eta hezkuntza dira Ainara Kortabarria arrasatearraren bi ardatz nagusiak. Eraikuntza eta Obra Zibileko eta Barne Diseinuko ikasketak egin ostean, gai horiek alboratu eta hezkuntzari eta musikari heldu zion. Ludotekako begiralea da, hezkuntza musikaleko ikaslea eta Ain_1 taldeko gitarra-jotzaile eta abeslaria. Sormena badu eta sorkuntzan dihardu.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

**Ainara Kortabarria 23 urteko arrasatearrak Barne Diseinuko ikasketak amaitu berri ditu, Hezkuntza Musikala ikasten hasi da, ludotekan lanean dihardu eta Ain_1 taldeko partaide ere bada. Horrenbeste gauzatan ibili arren, baina, tartetxo bat atera du gurekin berba egiteko.**



**Neska okupatua zara, beraz.**

Bai. Goizez Hezkuntza Musikaleko ikasketak egiten hasi naiz; arratsaldeetan ludotekan egiten dut lan; eta tartetxo bat dudanean taldekideekin elkartzen naiz.

**Aurrez Barne Diseinuko ikasketak egin zenituen. Nolatan aukeratu zenuen hori ikastea?**

Arkitektura ikasi nahi nuen, baina ez nuen aukerarik izan eta Eraikuntza eta Obra Zibileko modulu bat egin nuen. Amaitutakoan ikusi nuen arkitektura baino gustukoago nuela diseinua, batik bat diseinuaren alde praktikoa eta funtzionaltasuna, eta Barne Diseinua ikasi nuen. Arlo horretan lanik ez dagoenez eta Txatxilipurdin umeekin, aisialdian, lanean jardun dudanez eta gustuko dudanez, Hezkuntza Musikala ikasten hasi naiz. Gitarra jotzen dut, baina sekula ez dut solfeorik ikasi eta ikasketok egiteak ematen dit aukera musika alde teorikotik ikasteko eta hezkuntza ikasketak jasotzeko.

**Orain ludotekan diharduzu. Nola hasi zinen horretan?**

18 urte nituenetik Txatxilipurdin jardun dut lanean: tailerretan, udalekuetan... eta ludotekan aurten hasi naiz. Izan ere, egunerokotasunean umeen hezkuntzaren nondik norakoak ikusi nahi nituen. Okendoko ludotekan nabil eta jolasekin, liburuekin... ibiltzen dira umeak, eta tailerrak ere egiten ditugu. Aurreko astean, Maritxu Kajoiren aitzakian egin genituen eskapularioak, loreak, gorbatak...

**Ain_1 taldeko kide ere bazara.**

Ain_1 neska talde bat da; orain arte ikuskizun bat eskaini du, non nahasten diren musika, poesia, dantza, antzerkia eta proiekzioak. Orain, sorkuntza lanetan gabiltza, eta hemendik aurrera auskalo zer izango den.

Taldea era berezian sortu zen. Bilgune Feministako aurkezpena zegoen Arrasaten, eta, nik gitarra jotzen dudanez, Iraitz Agirrek esan zidan ea prest egongo nintzatekeen abestiren batzuk jotzeko eta abesteko. Ikusi nuen hark ere ondo jarduten zuela eta gerora beste aukera bat sortu zitzaigun Gasteizen. Horren harira pentsatu genuen taldea sendotzea, eta Amaia Pavon biolin-jotzailea hasi zen gurekin eta dantzan Itsaso Navaridas Gasteizko laguna. Iagura barik pare bat urtez ibili gara emanaldiak egiten.

**Sorkuntza lanetan ari zaretela diozu. Zuenak dira, hortaz, musikak eta letrak?**

Bai. Orain arte Iraitzen eta nire kantuak moldatu ditugu taldean jotzeko; orain, ordea, taldean hasi gara denen artean musika eta letrak gertatzen.

**Gitarra jo eta abestu egiten duzu. Nola hasi zinen gitarra jotzen?**

Txikitan nire lagunek solfeoa, pianoa... ikasi zuten, baina nik ez. Amamaren etxean betidanik egon da gitarra eta beti gustatu izan zait. Hortaz, orain dela hiru urte gitarra eskola batzuk hartu eta nire kabuz hasi nintzen. Orain, Hezkuntza Musikaleko ikasketekin ea teoria apur bat ikasten dudan. Hasi baino ez naiz egin eta eskoletara gustura joaten naiz irakasleei entzutera.

**Musikaz eta umeez gain, zein dira zure zaletasunak?**

Mendira joatea, bizikletan ibiltzea, parranda... Gustatzen zait denbora aprobetxatzea, ez arratsalde bat ezer egin barik pasatzea.

**Umeekin ez ezik bestela ere egiten dituzu eskulanak, ezta?**

Sorkuntzarako zer berezi bat daukat eta ludotekan materiala izanik beti izaten dira aukerak. Narrua lantzen ere jarduten dut. Egiten ditut diru-zorroak, poltsak, lepokoak, belarritakoak... eta gero azoketara ere joaten naiz.

**Dantza ere gustuko ei duzu.**

Euskal dantzetan ibilitakoa naiz, baita irakasle ere, eta orain Arrostaitz taldean dihardut. Flamenkoan ere ibili izan naiz, nahiz eta jendeari arraroa iruditzen zaion. Iaz ikastaro bat izan zen Gazte Bulegoak antolatuta, eta arrakasta izan zuen.

**Nondik ateratzen duzu astia?**

Orain konturatu naiz, lehenengo aldiz, horrenbeste gauzatan jarduten dudala eta ez dakidala nondik ateratzen dudan denbora guztietarako. Hala ere, gustuko dut zer egina izatea.








UBANE MADERA

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Eraikuntza eta Obra Zibileko modulua; Barne Diseinua; eta Hezkuntza Musikala. **Jolas bat?** Jausgailua. Koloretako oihal bat da eta jolas kooperatibo asko egiteko aukera ematen du. **Abesti bat:** *Ispilua,* Ain_1 taldearena. **Musika talde bat?:** D'Callaos flamenko taldea **Liburu bat?** *Nora ez dakizun hori.* **Bidaiatzeko toki bat?** Euskal Herrian txoko ezezagun asko dago. **Bizi izateko?** Hiri batean ez nintzateke biziko, baina non ez dakit. **Bizitzarako lelo bat?** Bizi eta aprobetxatu.

# Arantxa Tapia diputatuari elkarrizketa

## Debagoieneko tranbiaz eta autobus zerbitzuaz erantzun beharko du Tapiak ostegunean

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Arantxa Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua elkarrizketatuko dute ostegunean *Goiena magazinea* programan.

Eneko Azkarate eta Arritxu Barruso kazetarien galderei erantzungo die Tapiak, eta, besteak beste, Debagoiena zeharkatuko duen tranbiaren proiektua zein puntutan dagoen eta bailarako autobus zerbitzuaren inguruan galdetuko diote. Donostiako metroa, Pasaiako portua eta Hondarribiko aireportua ere aipatuko dituzte.

Bestalde, eguaztenean, 100 euro arteko dirusariak banatuko dituzte *Magazinea*-n. Horiek lortzeko, birziklatzeari buruzko galderak erantzun beharko dira.

**GOITB, 'Goiena magazinea'**
> Osteguna, 19:45


Arantxa Tapia diputatua. GOIENKARIA

# Hizkera eta historia entzungai

**O.E.** > ARRASATE
*Ahotsak* izeneko irratsaio berria estreinatuko dute Arrasate Irratiko *Igo autobusera* programan. Badihardugu elkartearen *Ahotsak.com* izeneko proiektuan eta webgunean dago oinarrituta irratsaio berri hori, eta Arrasate eta inguruko adinduen testimonioak entzungo ditugu. Helburua da garai bateko hizkera eta historia berreskuratzea. Bixente Pagoaga da lehen hizlaria.

**Arrasate Irratia, 'Ahotsak'**
> Martitzenetan 10:30etik 11:00etara bitartean


GOIENKARIA

# Amets Arzallus bertsolaria dator 'Ilunpean' saiora

Amets Arzallus Hendaiako bertsolari gaztea dator hurrengo martitzenean GOITBko *Ilunpean* programara. Jon Berezibar kazetari arrasatearrak elkarrizketatuko du Arzallus. Hainbat gairi buruz galdetuko dio Berezibarrek: bertso kontuez, kazetaritzaz, Realaz eta Bolivia eta Kubara egin dituen bidaiez, besteak beste.

Euskal Herrian ezagunak diren pertsonak gonbidatzen dituzte martitzenero *Ilunpean* saiora.

**GOITB, 'Ilunpean'**
> Martitzena, 22:15

## telebegi

**Oihane Agirre**
> 'oagirre@goiena.com'

### Kulturari leiho berria

Kultura ardatz izango duen saioa estreinatu berri dugu Goiena Telebistan, *Gipuzkoa-Kultura*. Astero, ordu erdiz, Gipuzkoan dagoen mugimendu kulturalaren berri jasoko du ikus-entzuleak: dantza, antzerkia, eskultura, pintura, musika... Kultura anitza eta aberatsa sortzen da Gipuzkoan, baina kontsumoa ez da proportzionala. Eta etxetik kontsumitu ahal izango bagenu?

Aurrerapauso handia suposatzen du honek Goiena Telebistarentzat, elkarlanetik abiatutako proiektua delako. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak daki kulturaz, adituak dira kultur edukietan, eta GOITBk telebista egiten dihardu urtetan. Jakituria metaketa honen emaitza da *Gipuzkoa-Kultura* saioa. Gainera, emisioa ez da geure telebistara mugatzen; euskarazko beste toki telebistetan ez ezik, sarean ere ikusi ahal izango duzue saioa, noiznahi *tokiko.tv* atarian.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
10:00 Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
10:00-12:00 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Egubakoitza, 9**
13:15 Marrazki bizidunak .
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Elkartasun bideak.
15:45 Ur eta lur.
16:15 Ikusten.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
22:45 Ilunpean.
23:45 GipuzkoaKultura.
00:45 Emisio amaiera.

**Zapatua, 10**
08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Trikitraka trikiton.
11:30 Kantari.
14:00 Elkartasun bideak.
14:30 Ikusmira.
15:00 GipuzkoaKultura.
15:30 Trikitraka trikitron.
16:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Wazemak.
18:30 Solaskide.
19:00 Ikusmira.
19:30 Ur eta lur .
20:00 Erreportajea.
20:30 Golb tb.
21:00 Ikusten.
21:30 Ilunpean.
22:15 Solaskide.
22:45 Ikusmirai
23:30 Wazemank.
00:30 28 klip.
01:00 Emisio amaiera.

**Domeka, 11**
08:00 Trikitraka trikiton.
09:00 Marrazki bizidunak.
11:30 28 klip.
12:00 Erloklip
12:30 Ikusmira.
13:00 Erreportajea.
13:45 Solaskide.
14:15 Eltze beroa.
15:45 Kantari.
18:15 Trikitraka trikiton.
19:15 Erreportajea.
19:45 Solaskide.
20:15 Wazemank.
21:15 Ur eta lur.
21:45 Erreportajea.
22:45 GipuzkoaKultura.
23:15 Ilunpean.
00:00 Itsasora begira.
00:30 Emisio amaiera.

**Astelehena, 12**
08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Trikitraka trikiton.
11:30 Kantari.
14:00 Golb tb.
14:30 Wazemank.
15:00 GipuzkoaKultura.
15:30 Trikitraka trikitron.
16:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Elkartasun bideak.
18:30 Ikusten.
19:00 Ur eta lur.
19:30 Elkartasun bideak .
20:00 solaskide.
20:30 Golb tb.
21:00 Ikusten.
21:30 28 Klip.
22:15 Ilunpean.
22:45 Gipuzkakultura
23:30 Elkartasun bideak.
00:30 28 klip.
01:00 Emisio amaiera.

**Martitzena, 13**
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:10 Ikusmira.
15:50 Solaskide.
16:20 Itsasoari begira.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Erreportajea.
18:05 Solaskide.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Ilunpean.
23:00 Ur eta Lur.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 14**
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Ikusmira.
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.
15:50 Golb tb.
16:20 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Solaskide.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 GipuzkoaKultura.
23:15 Goiena Magazinea.
00:15 Emisio amaiera.

**Eguena, 15**
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Gipuzkua kultura.
15:45 Ur eta Lur.
16:15 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Elkartasun bideak.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
23:15 Ikusmira.
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

## hildakoak

- **Marcia Martinez Alonso.** Arrasaten, urriaren 1ean. 95 urte.
- **Carmelo Aizpurua Lazpita.** Bergaran, urriaren 1ean. 72 urte.
- **Rosario Urizar Mazmela.** Aramaion, urriaren 2an. 78 urte.
- **Antonia Moreno De Domingo.** Aretxabaletan, urriaren 3an. 85 urte.
- **Juan Maria Garate Unzetabarrenetxea.** Bergaran, urriaren 3an. 96 urte.
- **Cipriano Zubizarreta Zubia.** Eskoriatzan, urriaren 3an. 91 urte.
- **Maria Nieves Uribesalgo Arana.** Aretxabaletan, urriaren 6an. 72 urte.
- **Ramona Roman Fernandez.** Arrasaten, urriaren 6an. 88 urte.
- **Iñaki Arana Barandiaran.** Aretxabaletan, urriaren 8an, 58 urte.

URTEURRENA

### Juan Antonio Ena Enekotegi

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Maria del Carmen Albizua Barañano

Cirilo Mondragonen alarguna

Lehen urteurreneko meza eguenean, urriaren 15ean, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

### Cipriano Zubizarreta Zubia

Lankide Joxerra Zubizarretaren aita

Eskoriatzan hil zen 2009ko urriaren 4an.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastola

Leintz bailaran, 2009ko urriaren 9an.

URTEURRENA

### Juan Arenaza Garitaonandia

2008ko urriaren 10ean hil zen, 77 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 11n, 12:30ean, Mendiolako San Juan Bataiatzailearen elizan ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

### Jesus Eguren Irazabalbeitia

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

### Pedro Arietaleanizbeazkoa Larrañaga

Bergaran hil zen 2009ko irailaren 25ean, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urriaren 9an.

ESKELA

### Iñaki Arana Barandiaran

Aretxabaletan hil zen 2009ko urriaren 8an, 58 urte zituela.

Haren emaztea: Tere Corral. Alabak: Itsaso eta Mateo, eta Amaia. Ama: Zezili Barandiaran. Anai-arrebak: Jon eta Gurutze. Koinatu-koinata, iloba eta gainontzeko senideak.

—

Haren aldeko hileta elizkizuna gaur egubakoitza, urriak 9, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Andramariaren parrokian izango da.



Bertaratuko zaretenoei, aldez aurretik eskerrik asko.

MEZA

### Satur Murga

Gasteizen hil zen 2009ko urriaren 4an.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, urriaren 10ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

—

*Nahiz eta gure artetik urruti joan, beti eskertuko dugu zugandik jaso dugun irakaskuntza.*



Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.

## bono fotoa



**XV-XVI. mendeko etxe hauek dira herri honetako herriguneko etxerik zaharrenak. Eskualdeko ze herritakoak dira?**

**Argazkia eta galdera** >
Miguel Angel Elkoroberezibar

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Arrasateko **Iñaki Irigoien.**
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Arrasaten dago eta Uriburu edo Grandena du izena.**




Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

**ERANTZUNA** ..........................................................
IZEN-DEITURAK ..........................................................
HERRIA ............................... TELEFONOA ...............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Domeka, 11 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Astelehena, 12 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Martitzena, 13 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 14 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Eguena, 15 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Egubakoitza, 16 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 11 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 12 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 13 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 14 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 15 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 16 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 11 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 12 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 14 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 15 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 16 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 10 | Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 11 | Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 12 | Agirre | Gorosarri (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 13 | Agirre | Gorosarri (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 14 | Agirre | Gorosarri (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Eguena, 15 | Agirre | Gorosarri (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |
| Egubakoitza, 16 | Agirre | Gorosarri (Eskoriatza) | 943 71 48 28 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.




**Luis Madariaga** eta **Nati Bernal** orain dela 50 urte ezkondu ziren, Urriaren 8an, Bergaran. Urrezko ezteiak ospatuko dituzte hilaren 12an Arantzazun. Zorionak eta orain bezain gazte jarrai dezazuela. Muxu bana familiakoen partetik.




**Angelita Azkoaga** eta **Jose Maria Heriz** urriaren 10an ezkoondu ziren orain dela 50 urte. Urrezko ezteien ospakizuna urriaren 11n egingo dute familiakoekin. Zorionak, eta ondo pasa familiakoen partetik.




Aretxabaletako **Eugenio Zubiak** eta **Tere Madinabeitiak** urrezko ezteiak beteko dituzte urriaren 12an. Orain dela 50 urte Apotzagan ezkondu ziren eta astelehenean familiakoekin ospatuko dute. Zorionak, bikote, eta patxo bana familiakoen partetik.



Antzuolako **Felix Garitano** eta Zubillagako **Amaia Goitia** orain dela 25 urte ezkondu ziren, urriaren 12an, Zubillagan. Zorionak eta muxu bana, bikote, familiakoen partetik. Laister ospatuko dugu bazkari batekin.



**Juanjo** eta **Juani** eskoriatzarrak orain dela 25 urte ezkondu ziren. Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, urriaren 10ean, zapatuan, familiakoekin ospakizuna egingo dute. Zorionak eta muxu bana, familiakoen partetik.



**Jose Luis Azkarate** eta **Milagros Beitia** arrasatearrek 39. ezkontza-urteurrena beteko dute urriaren 10ean, zapatuan. Zorionak eta urte askotarako, biloben partetik: Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi.



Aretxabaletako **Ekaitz Armentia** eta Valentziako **Maria Ruiz** zapatuan, urriak 10, Arantzazun ezkonduko dira eta bazkaria Bergarako Lasa jatetxean egingo dute. Bidaian Thailandiara joango dira. Zorionak etxekoen eta lagunen partetik. Ondo pasa, bikote!



Antzuolako **Emma Hidalgo** eta Idiazabalgo **Asier Zabaleta** zapatuan, urriaren 10ean, ezkonduko dira Antzuolan, Antiguako elizan. Gero, bazkaria Liernin egingo dute eta bidaian Indiara joango dira. Zorionak eta ondo pasau koadrilakoen partetik.



Bergarako **Juan Luis** eta **Carmen** atzo, urriaren 8an, ezkondu ziren Bergarako epaitegian. Ondoren, etxekoekin egin zuten ospakizuna. Zorionak eta ondo-ondo pasau bidaian. Elementaleko lagunen partetik, muxu handi bana.



**Ruth Trigas** eta **Oier Martin** arrasatearrak zapatuan, hilak 10, ezkonduko dira, Loiolan. Bazkaria Kiruri jatetxean egingo dute eta eztei-bidaian Zeelanda Berrira joango dira. Familiakoen eta lagunen partetik, zorionak eta ondo ibili!



Bergarako **Izaskun Igartua** eta **Aurelio Morillas** orain dela 25 urte ezkondu ziren Bergaran urriaren 6an. Zorionak, bikote, koadrilakoen eta zuekin Argentinan egon ziren lagunenpartetik. Gora bihotzak! Aiaiaiaiaiaiai....ieijiji!




**Alain** aretxabaletarra eta **Jessica** oñatiarra urriaren 3an, zapatuan, ezkondu ziren Oñatiko bake epaitegian. Zorionak, pareja! Ondo-ondo pasau ezkon-bidaian! Koadrilako denon partetik muxu handi bana.



Arrasateko **Aritz Fernandez** eta Oñatiko **Saray Cano** Oñatin ezkonduko dira urriaren 10ean. Bazkaria Zelai-Zabal jatetxean izango da eta bidaian New Yorkera joan ostean, itsas bidaia egingo dute. Koadrilakoen partetik, ondo pasa eguna eta ondo ibili bidaian!

GOIENKARIA
2009ko urriaren 9a

# Urriak 9-16

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



BERGARA
**> LenguAlerta mexikarrak gaztetxean gaur, 'Dekolonizazio 09' biraren barruan**
LenguAlerta Reggae Soundsystem taldeak gaztetxean joko du gaur, 21:30ean. Haiekin batera Tacumah Reggae Band, King Konsul & Chalwa Band eta Boneman taldeek joko dute. Sarrera, 5 euro. Hernanin eta Irunen birako kontzertuak bihar.

## Antzerkia



ARETXABALETA
**> Txalo taldearen 'Ni Hector naiz' antzezlana zapatu gauean Arkupen**
Bere barnean ahotsak entzuten hasi da Hector. Hori dela eta, psikologoarengana joatea erabaki du. Gaztetan harekin maiteminduta egon zen Hector... Aitor Beltran, Teresa Calo eta Nagore Aranbururekin. Bihar, zapatua, 22:00etan. Sarrera, 8 euro.

## Antzerkia



ARRASATE
**> 'Joanen ilargia' txotxongilo emanaldia zapatuan Amaia antzokian**
Teatre Nu katalanek *Joanen ilargia* ekarriko dute Arrasatera. Aitarekin bizi da Joan, uharte txiki batean, baina aita gaixotu egingo da... Carme Sole Vendrellen ipuinean oinarrituta. Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

# Musika

BERGARA
**> Donostiako Orfeoia eta Rifon organo-jolea zapatuan**
Organo erromantikoaren zikloaren barruan.
Bihar, zapatua, San Pedroko parrokian, 20:00etan.

# Antzerkia

ARETXABALETA
**> 'Galtzagorriei to, Inaxito' haurrendako ikuskizuna domekan**
Trikuharri taldearen eskutik.
Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan. Sarrerak, 3 eurotan.

# Erakusketak

ARETXABALETA
**> 'Pertsonaien erakusketa: madarikatuak eta apartekoak'**
Urriaren 31ra arte.
Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

BERGARA
**> Martin Garmendiaren margolanak Nahikarin**
Dozena bat koadro ikusgai jarri ditu Martin Garmendia bergararrak.
Nahikari tabernan, urriaren bukaerara arte.

BERGARA
**> Argazki erakusketa Gure Ametsa elkartean**
Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagaren argazkiak.
San Antonioko Gure Ametsa elkartean, urriaren 18ra arte.

ARRASATE
**> 'Reuters, munduari begira' Kulturaten**
Mundu zabalean ateratako argazkiak dira, hainbat gatazkaren berri ematen dutenak.
Kulturaten, urriaren 18ra arte.

# Ikastaroak

BERGARA
**> Film laburrak, barreterapia eta jostundegia**
Film laburren tailerra urriaren 15etik azaroaren 15era, eguenetan, 19:00etatik 21:00etara; barreterapia, urriaren 21etik abenduaren 16ra, eguaztenetan 19:00etatik 21:00etara; jostundegia, hastapena, urriaren 13tik abenduaren 29ra, martitzenetan 18:30etik 20:30era.
Izenematea eta argibideak kultura etxean, 943 77 91 60 zenbakian.

BERGARA
**> Argazkilaritza ikastaroak iragarri dituzte azarorako**
Hastapen maila azaroaren 2tik 12ra: astelehenetik eguenera Miguel Altuna institutuan, 19:00etatik 21:00etara. Sakontze maila ordutegi eta leku berean, azaroaren 16tik 26ra. Ikastaro bakoitza, 40 euro (30 euro ikasle, erretiratu eta langabeendako). Era berean, azaroaren 2tik 25era oinarrizko argazkilaritza ikastaroa izango da, astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 19:15etik 21:15era, Pol-Pol Argazkilari Taldearen egoitzan.
Izenematea kultura etxean, 943 77 91 60 zenbakian, urriaren 15era arte. Plaza mugatuak. Bergarakoek lehentasuna izango dute.

OÑATI
**> Elikagaien erabiltzaile ikastaroa**
Bereziki dendariei zuzendutako ikastaroa da. Urriaren 26an, 14:00etatik 17:00etara.
Argibideak 943 53 33 03 telefono zenbakian.

ARETXABALETA
**> Hainbat ikastaro Arkupen, urrian**
Idazketa tailerra Karmele Igartuaren eskutik; pintura; bainika; eskulanak; eta zeramika.
Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ARETXABALETA
**> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik**
Martitzenero, 18:30etik 20:00etara, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Abendura arte. Plaza mugatuak.
Izenematea 653 70 50 68 zenbakian edo *jaikielkartea@ayahoo.es* helbidean.

BERGARA
**> Pintura eta marrazketa ikastaroa haurrendako**
Bearten lokalean 5-16 urte bitartekoendako pintura eta marrazketa ikastaroak. Astelehenetan 17:00etatik 19:30era edo zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.
Izenematea zabalik dago. Argibideak 653 71 53 82 (Mayra) eta 635 71 32 69 (Maite) telefono zenbakietan.

ARETXABALETA-ANTZUOLA
**> Trantze sakratuaren erritmoak, Jaiki elkartearekin**
Urriaren 10ean eta 11n Antzuolan emango da ikasta-

PROPOSAMENA



BERGARA
**> Simon Arrietaren gaineko erakusketa**
Simo Arrieta margolari bergarararren (1915-1969) lanari gainbegiratua egiten dion erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan. Bergarako margolari askoren maisu izandakoa, Simon Arrietaren heriotzaren 40. urteurrenaren harira antolatutako erakusketa da. Guztira, 30 koadro batu dituzte Aroztegin; horietako batzuk lan ezezagunak, gainera.
Aroztegi aretoan, urriaren 18ra arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ZUBI HONETAN (URRIAK 10, 11 ETA 12) EGUNERO IREKITZEN DUGU 11ETATIK 19ETARA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz

**PLANETARIUM BERRIA**

**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta. 12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)**

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia.
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa.
**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

**ETA GAINERA...**

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia ahaztezina.
Urriak 10: 13:00 / 13:45 / 16:00 / 17:45
Urriak 11: 12:00 / 13:45 / 15:30 / 16:30
Urriak 13: 12:30 / 13:15 / 16:15 / 17:00

**Fakirraren ohea:** Milaka iltzez osatutako ohe baten gainean etzan nahi al duzu?
Urriak 10: 11:30 / 15:30
Urriak 11: 11:30 / 18:30
Urriak 12: 11:30 / 17:45

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

roa; urriaren 13an, 14an eta 15ean, Aretxabaletan.

Izenematea eta argibideak: 618 04 67 43 (Paco, Aretxabaleta) eta 660 79 85 15 (Arantza, Antzuola). Plaza mugatuak.

ARRASATE

**> Hastapen mailako joskintza tailerra**

Norberak bere baserritar jantzia egiten ikasiko du, eta bidez batez, patroiak egin, patroiak moztu eta josten ikasiko du, gure kulturan murgilduz. Urriaren 19tik aurrera. Ekin Emakumeek elkarkidetza bultzatzeko antolatuta.

Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietan.

## Deiak

ARRASATE

**> Bertso afaria martitzenean**

Andoni Egaña. Beñat Gaztelumendi eta Maialen Lujanbiorekin.

Martitzenean, urriaren 13an, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoko jantokian, 21:0oetan. Txartelak 15 eurotan salgai Basati tabernan edo Arrasateko Gazte Bulegoan.

## Hitzaldiak

OÑATI

**> 'Haurrak eta heriotza'**

Nola lagundu heriotzak dakarren galeraren aurrean. Hiorren gainean jardungo du Patxi Izagirre adituak.

Urriaren 22an, 18:30ean, Elkar Hezi Ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikineko liburutegian.

## Lehiaketak

ARRASATE

**> Santamas irudi lehiaketa**

Santamas Komisiñuek Santamas irudi lehiaketarako dei egin du. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada: egileek kartelaz gain eskuorrirako zein kartel bateraturako proposamena egin ahal izango dute. Lehiaketa edozein arrasatearri zuzenduta dago eta urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen.

*http://santamasirudilehiaketa.blogspot.com.*

DEBAGOIENA

**> Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa**

*Zugaz.com*-ek martxan jarri du Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa eta jasotako argazki zein bideo guztien arteko onenarentzat Eroski hipermerkatuak emandako Wii bat opärituko dute.

Argibideak ondoko webgunean: *http://goiena.net/blogak/kantari/*

ANTZUOLA

**> XV. Argazki lehiaketa**

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Lanak jasotzeko epea urriaren 30era arte dago zabalik.

Argibideak Antzuolako udaletxean, 943 76 62 46 zenbakian.

# Zinema



## Si la cosa funciona ***

**Zuzendaria:** Woody Allen.
**Aktoreak:** Larry David, Evan Rachel Wood, Patricia Clarkson. AEB, 2009. 92 min.

*Match point*, *Scoop*, *Cassandra's dream* eta *Vicky Cristina Barcelona* Europan filmatu ondoren, bere New York maitera bueltatu da Woody Allen, eta horrekin, hain ezaguna egiten zaigun pertsonaietara eta girora. Horrek ez du esan nahi Ingalaterran eta Espainian eginiko filmak Allenen zinemarekin zerikusirik ez zutenik; esaterako, *Match point*-ek *Delitos y faltas*-en du jatorria, baina orain, *Si la cosa funciona*-rekin berriz komedia sentimentalera jo du. Filmaren jatorria 70eko hamarkadan idatzitako gidoi bat da, eta horri aldaketa eta berrikuntza batzuk gehitu dizkio.

Allenen filmetan agertutako ezaugarri, pertsonaia eta egoera ugari ikus daitezke honetan ere: kultura handiko gizon heldu eta kultura gabeko neska gazte baten arteko harreman sentimentalak (*Manhattan*; *Mi poderosa Afrodita*); lagun arteko afariak bakoitzaren istorio bitxiak kontatzen ( *Broadway Danny Rose*); zinema eta ikuslearen arteko dagoen distantziaren haustura, pertsonaiek ikusleari berba egiten diotenean (*La rosa púrpura del Cairo*; *Annie Hall*); bizitza eta amodio harremanak kaosa eta logikarik ez dituzten topaketak dira (*Maridos y mujeres*; *Hannah y sus hermanas*) eta horietan eta bizitzan zoriak *h Point*). *Si la cosa funciona*-n diskurtso honi ikuspuntu positiboa eman dio: harreman sentimentalak ezin dira kontrolpean eduki, ezta ondo azaldu ere, baina irauten duten bitartean goza itzazu.

Woody Allenen beste film batzuetan agian hobeto eta modu landuagoan agertu izan dira ezaugarri hauek. Hala ere, zuzendariaren jarraitzaileok berriz gustura hartzen dugu bere betiko istorio eta pertsonaietara bueltatzea. Azken finean, eroso sentitzen gara ezagutzen dugun pertsonekin (kasu honetan pertsonaiekin) eta giroan gaudenean.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La proposición**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Pequeños invasores**
Domeka: 17:00.

**Cometas en el cielo**
Eguena: 20:30.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Pagafantas**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

**Up**
Zapatua, domeka eta astelehena: 17:00.

**Las horas del verano**
Eguena: 20:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**El intercambio**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Madagascar 2**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Vals con Bashir**
Eguena: 20:00.

**GAZTETXEA**

**Gran Torino**
Domeka: 18:00.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Agora**
17:.15, 20:00, 22:30.

**Malditos bastardos**
18:00, 20:50.

**Vicky el vikingo**
17:00, 18:45, 20:30.

**El soplón**
22:30.

**Moon**
17:00, 18:45, 20:35, 22:30.

**G-Force: licencia para espiar**
17:00, 18:45, 20:35, 22:30.

**Rec 2**
17:00, 18:45, 20:35, 22:30.

**Gordos**
22:30.

**Los sustitutos**
17:00, 18:45, 20:30.

Egubakoitzetik astelehenera.

**FLORIDA-GURIDI**

**Gigante**
18:00, 20:15, 22:30.

**Zorion perfektua**
20:00, 22:30.

**Vicky el vikingo**
17:30 (euskaraz).

**La máquina de pintar nubes**
17:30, 22:30.

**Frozen river**
20:00.

**Si la cosa funciona**
17:30, 20:00, 22:30.

**Katyn**
18:00, 20:15, 22:30.

**El secreto de sus ojos**
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik eguenera.

**YELMO CINEPLEX**

**Oceanworld**
(3-D emanaldiak)
23:30 (egubakoitzetik domekara); 21:30 (astelehenetik eguenera).

**G-Force: licencia para espiar**
(3-D emanaldiak)
15:30, 17:30, 19:30, 21:30 (egubakoitzetik domekara); 17:30, 19:30 (astelehenetik eguenera).

**G-Force: licencia para espiar**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Agora**
15:30, 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.

**Up**
15:45 (zapatuan eta jaiegunetan), 17:45, 19:45.

**Los sustitutos**
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Malditos bastardos**
17:00 (zapatuan eta jaiegunetan), 18:30, 20:00, 21:30, 23:00, 00:30.

**Rec 2**
16:00 (zapatuan eta djaiegunetan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Vicky el vikingo**
16:20 (zapatuan eta jaiegunetan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Si la cosa funciona**
16:15 (zapatuan eta jaiegunetan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Ice Age 3: el origen de los dinosaurios**
16:10 (zapatuan eta jaiegunetan).

**Jennifer's body**
20:35, 22:35, 00:35.

**Gordos**
20:15, 22:30, 00:45.

**Los hombres que no amaban a las mujeres**
21:45, 00:25.

**Pequeños invasores**
16:35 (zapatuan eta jaiegunetan), 18:25.

**El secreto de sus ojos**
17:00 (zapatuan eta jaiegunetan), 19:30, 22:00, 00:30.

**Qué les pasa a los hombres**
15:55 (zapatuan eta jaiegunetan), 18:15.

**School Rock Band**
16:30 (zapatuan eta jaiegunetan).

**District 9**
18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Urriaren 9tik 15era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean, zapatuan eta domekan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Agora**
Egubakoitzetik astelehenera: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:05.
Martitzenetik eguenera: 16:30, 19:15, 22:15.

**Shorts: la piedra mágica**
16:05, 18:00.

**Malditos bastardos**
15:50, 18:50 22:00, 01:00.

**G-Force: licencia para espiar**
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

**Rec 2**
16:20, 18:20, 20:10, 22:15, 00:45.

**Resacón en Las Vegas**
16:05, 18:00.

**Vicky el vikingo**
16:05, 18:00, 20:00, 22:00.

**Qué les pasa a los hombres**
19:15, 22:15.

**Up**
16:20, 18:20.

**La maquina de pintar nubes**
16:15

**School Rock Band**
16:05.

**Si la cosa funciona**
16:00, 18:05, 20:00, 22:00, 00:30.

**District 9**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Expediente 39**
16:20, 18:20.

**Jennifer's body**
18:15, 20:25, 22:40, 00:50.

**Los sustitutos**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

Urriaren 9tik 15era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.



**Zorion perfektua**
Zuzendaria: Jabi Elortegi. Euskal Herria, 2009. 92 minutu.
Hamabost urterekin atentatu bat ikusiko du Ainhoak, eta horrek bizitza markatuko dio. Hogei urte geroago, gizon batekin duen harremana kontatzen du; bere beldurren ondorioz, zaila zaio sentimenduak adieraztea, eta horrek zoriontasunerako bidea eragozten dio. Bartzelonan izaniko istripuak zapuztu egingo dio pianista ibilbidea Ainhoari. Anne Igartiburu ezaguna da protagonista nagusia.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Transformers 2**
AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.
Bi urte pasatu dira Sam Witwickek unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean,. abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

**San Valentin sangriento**
AEB, 2009. Zuzendaria: Patrick Lussier.
Jaioterrira itzuli da Tom, San Valentin egun batez gertaturiko sarraskiaren 10. urteurrenean. 1981ean estreinaturiko filmaren *remake* hau hiru dimentsiotan ikusteko aukera dago Euskal Herriko zenbait aretotan. Jensen Ackles eta Jaime King aktoreak dira protagonista nagusiak.,

**District 9**
Zeelanda Berria-Hego Afrika, 2009. Zuzendaria: Neill Bloomkamp.
Estralurtarren ontzi erraldoi batean Lur planetara helduko dira, Hegoafrikako Johannesburgo hirira, baina errefuxiatu gisa. Estralurtarrak kontzentrazio esparru moduko batean sartuko dituzte eta apartheid erregimena ezarriko diete.

**Gordos**
Espainia, 2009. Zuzendaria: Daniel Sanchez Arevalo.
Irautearen inguruko komedia koral bat da Daniel Sanchez Arevaloren (*Azuloscurocasinegro*) azken filma. Gizentasun arazoekin obsesionatuta dauden lagun batzuk dira protagonistak. Antonio de la Torre, Raul Arevalo eta Roberto Enriquez aktoreekin.

**Ponyo en el acantilado**
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

**Hotel Woodstock**
AEB, 2009. Zuzendaria: Ang Lee.
1969. urtea da. Elliotek gurasoen hotela bere gain hartuko du, negozioa hondoratzen ari denean. Aldameneko herrian rock jaialdi bat egiteko baimena ez dutela eman entzungo du, eta antolatzaileei deituko die, hotelaren ondoko zelaia eskaintzeko, baina ez du imajinatu ere egiten milioi erdi lagun batuko direla han hiru asteren buruan...

**nire aukera**



Amaia Arriaran
Oihulari Klown antzerki taldeko kidea

## Asteburuan, tabernan lanean

Amaia Arriaran bergararra Oihulari Klown antzerki taldean dabil. *Jaque* eta *eZINEMAn* antzezlanekin dihardu orain eta, horiez gain, *Otiacicoch* eta *Mamu txikiak* kaleko ikuskizunekin eta, Andoni Egañarekin batera, *Todo bajo clowntrol* lanarekin. Iurretako kultura etxetik Errumaniako ipuinen kontaketa (helduei zuzenduta) eskatu zieten eta hango ipuinak irakurtzen dabil Amaia aspaldi honetan.

Oraingo aste bukaeran Bartzelonara joatekoa zen, ikastaro bat egitera, baina ahizpa eta koinatua oporretara joan direnez, aste bukaeran tabernaren menpe egotea egokitu zaio. Tabernan lanean harrapatu genuen eguenean.

**Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?**

Alde batetik bestera ibili baino, aspaldi honetan nahiago dut atseden hartu. Deskantsatzeko beharra izaten dut eta hori ere ikasten nabil: deskantsua hartu eta hori egiteagatik errudun ez sentitzen. Lasai egoten, azken baten.

**Noiz dituzue hurrengo emanaldiak?**

Datorren asterako bi hitzordu ditugu: zapatuan, hilaren 17an, *Jaque* antzezlana eskainiko dugu Amurrion eta domekan Getxon izango gara *Mamu txikiak* haurrendako kaleko ikuskizunarekin. Bestetik, asteazkenean eta eguenean bi ipuin kontaketa dauzkat, Irunen eta Pasai Antxon, biak umeei zuzendutakoak.

**Zer ari zara irakurtzen orain?**

Errumaniako ipuinez gain, zortzi bat liburu dauzkat mesanotxean momentu honetan, tartean *Waslala* (Gioconda Belli), *El segundo sexo* (Simone de Beauvoir) eta literatura erotikoko beste hainbat liburu, euskaraz eta gazteleraz.

**Aukera izanez gero, nora egingo zenuke bidaia bat?**

Italiara, Toskanara joango nintzateke gustura. Oraintxe bertan, gainera.

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-10-09

# Patina, garraiobide arina

**ZERTARAKO?** Umeek batetik bestera joateko zein jolaserako erabiltzen dute patina; garraiobide moduan, alegia

**IZENA** Patina nonbaiten ahaztuta utzi edo galduz gero erraz aurkitzen dute, azpiko aldean izena idazten dute-eta

**BERGARA** Patinak modan daude Debagoieneko herri honetan; udaltzainen bulegoan azaltzen dira "galdutakoak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Eskoletako, Agorrosingo eta beste hainbat tokitako atariak patinez beteta egoten dira Bergaran. Zergatik? Erantzun bila horien erabiltzaileengana jo dugu eta hainbat arrazoi eman dizkigute patina erabiltzeko: "Denerako erabiltzen dugu: eskolara etortzeko, jolaserako, baina batik bat batetik bestera azkarrago joateko. Beste garraiobide bat da, ez du kutsatzen eta, gainera, abiadura handia hartzen dugu", esan digute Asier, Amaiak, Ainhoak, Leirek, Nereak, Mikelek, Mariñek eta lagunek patina eskuetan dutela.

Abiadura handian alde egin aurretik galdetu diegu ea patin guztiak *aparkatuta* uzten dituztenean nola jakiten duten bakoitzarena zein den; izan ere, oso antzerakoak dira denak. "Aspaldditik daukagu patina eta inoiz ahaztu izan dugu. Baina patinen azpiko aldean izena eta telefonoa ipintzen dugunez, norbaitek aurkituz gero abisua ematen digu. Patin guztiak batera daudenean ere ezberdintzen dugu gurea zein den: gurpilen edo eskulekuaren kolorearengatik, zerbait puskatuta duelako...".

Batzuek zorte ona dute eta gurpilak gastatzean aldatu eta patin berarekin jarraitzen dute, baina Mikelek ez du zorte bera izan. "Nik hau bosgarren patina dut, aurrekoak galdu egin ditut edo lapurtu egin dizkidate", esan digu. Beste Mikelen patina bigarrena da: "Aurrekoa nahiko kaskarra zen eta aldatu egin nuen".

**UDALTZAINGOAN PATINAK**

Galdu, harrapatu... baina udaltzainen bulegoan azaltzen dira holako patinak, jendeak baduelako aurkitutako gauzak hara eramateko ohitura. "Inoiz bost edo sei ere izan ditugu. Batzuk etortzen dira bila eta bestela, izena baldin badute guk abisatzen diegu".

Hasieran badirudi erraza dela patin gainean ibiltzea, baina ikasi arte jausteko arriskua izaten da. Hala ere, neska-mutikoek truku guztiak ikasita dituzte eta batera eta bestera patina garraiobide moduan hartuta ibiltzen dira.



**ESKOLARA** Neska-mutikoek etxetik eskolara joateko ere erabiltzen dute patina. IRATI AGIRREAZALDEGI

## ahobero

### "Madril joko batzuen egoitza izango da urteren batean"

**Jaime Lissavetzky** >
Kiroletarako estatu-idazkaria

Urteren batean dio, baina zein urtetan edo zein mendetan nork daki ba... Joko batzuen egoitza izango dela ere esan du. Jakin badakienak Olinpiar Jokoek sortu duten zalapartaren berri, ondo, baina ez dakitenek pentsa dezakete partxisa edo karta jokoa direla hizpide. Berba jokoan, behintzat, ez du asmatu.

## iturri onetik

### Azaroaren 28an Pirritx, Porrotx eta Marimotots Eskoriatzan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunak *Irrien lagunak* ikuskizun berria aurkeztera etorriko dira Eskoriatzako kiroldegira azaroaren 28an. Zuzeneko musika, ahotsak eta dantza oinarri hartuta, urtean barrenako momenturik politenak gogoraraziko dituzte askotariko doinuekin: kubatarrak, senegaldarrak, Andaluziakoak... baita abesti herrikoiak ere. Orain diskoa grabatzen dihardute.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Printze txikia

Iker Muniain du izena eta bat-batean bihurtu da printze, futbolean lortutako gol bati esker. 16 urte besterik ez duelako, gol goiztiarrenaren marka ezarri du nafar gazteak. Aparretan dabil egunotan, eta etorkizun distirantena uste zaio nonahi.

Futbolaren oso zale ez –ezta printzeena ere–, haur kirolarien azpimundua gogoratu dut nik, Ikerren harira. Aparretara iritsi direnen iraganak izango ditu lan neketsua eta sakrifizio neurrigabea, nahiz iritsi izanak berak goxatuko ditu horien ajeak. Baina zer esan bidean apurtzen diren panpinez? Ezer erabaki gabe diziplina militarrera kondenatuak izan ondoren, nork itzuliko die denbora galduaren gurpilak zapaldutako umetasuna? Nork azalduko die ziurrenik hobe dela printze ez izatea?

## ai, ene!



### Surfeko taula bizikletan eramateko parrilla

Horra hor gidabaimenik gabeko surflariendako asmakizuna. Buru gainean parrilla ipini eta olatuak hartzera joateko egokia.

*www.nopuedocreer.com*



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51